

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-04-29
ASTELEHENA
407. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



ENERO AZKARATE

"Herriak herriarentzat sortutako ereduaren aldekoak gara"

Nekane Jurado | Ekonomialaria | 5

Gaur erabakiko du Kontseilu Berriak bere hurrengo pausoa | 4



Joan den asteko "finala" irabazi egin du Mondrak (2-1) | 22



Ikasgai bizia Elgetan

1936ko gerrako bonbardaketa oso modu errealistan antzeztu zuten atzo. Jende asko joan zen ikustera | 12



Publikoa bete-betean sartu zen errepresentazioan, argazkian ikusten den moduan.

AITZIBER ARANBURUZABALA

Zaleei eskainitako garaipenarekin bukatu zuen liga Natra Oñatik



Liderraren koparekin. | IMANOL SORIANO

Ospakizunak amaitu eta gero, gaur, astelehena, hasiko dira igoera faserako gertatzen Eneko Blancoren mutilak; hilabete barru jokatuko dute hura | 24

Musika eta dantza maratoi aberatsa egin zuten zapatuan

50 musika eskolako 3.000 kidek alaitu zuten Oñati | 31



Plazako emanaldi bat. | A. ARANBURUZABALA

Zenbait gaztek uda besteentzat lan egiten igarotzen dute

Azken urte hauetan lankidetzako programek jaitsiera izan duten arren, oraindik eskaintza zabala dago

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Udako opor garaia gure aisialdi denboraldi luzeena da, baina hondartza eta turismoari uko egin gabe, besteentzako lan eginez igarotzen dutenak ere bada. Azken urteetan eskaera kopurua apur bat jaitsi den arren, oraindik bada, bere aisialdi denbora besteentzat lan eginez irago nahi duenik.

Gurean gobernu kanpoko erakundeez gain, zenbait banku eta instituzioek eskaintza zabala dute. Egia da gazteak aisia burua dutela, baina bai lankidetzak, bai auzolandegi edo brigadak, lana izanda ere, aisialdirako tokia lagatzen dute.

80 eta 90eko hamarkadetan, boluntario programa hauek oso modan jarri ziren eta uda besteentzako lan eginez igarotzea ekintza arrunta zen. Orain, programak ugari egin diren arren, bertara jotzen dutenen perfila aldatu egin da.

Boluntarioak 20 urte inguru izaten dituzte, eta euren buruan lan egitea duten arren, esperientzia ezohiko eta aberasgarri bat izaten dute. Zorionez, kooperazio programa hauen bitartez bi gauzak uztartzea erraza izaten da. Zoritxarrez, baina, oso esperientzia aberasgarria izan arren, arduradunek boluntarioen jaitsiera bat sumatu dute. Dorleta

Kortazar Arrasteko Gazte Bulegoko teknikariaren hitzetan "gazte gutxiago etortzen dira orain". Hala ere musu truk egiten diren lan hauek eskaera ugari jasotzen dituzte. Udan lan egiteko progra-

ESANAK

"Gazteen bizitzako esperientzia sakona da"

DORLETA KORTAZAR
GAZTE BULEGOKO TEKNIKARIA

men artean, nazioartekoak dira ezagunenak, baina ez dira bakarrik, "brigadak, auzolandegiak, lankidetzak". Aukerak ez dira mota ezberdinetan geratzen. Adina eta interesen arabera eskaintza dezente aldatzen da.

Nagusien zaintza, kooperazio programak, zaharberritze lanak... Bakoitzak bere interesen arabera ekintza aurkitzeko tokia dauka, hala ere, Kortazarrek zera azpimarratzen du, "guztiak gizartearekin zerikusi handia izaten dute". Teknikariak ere lankidetzako programa hauek "bizitako esperientzia sakona" moduan aipatzen ditu. Ez zaio arrazoirik falta, hondartza eta tabernetatik at uda probetxugarri bat pasatzeko apustua egiten dutenek ematen dutena baino gehiago jasotzen dute. "Askotan, bertatik bueltatu eta gero konturatzen dira esperientziak euren pentsatzeko era aldatu egin dela" dio Kortazarrek.

Lankidetzak kanpoan

India, Hego Amerika... Garapen bidean dauden herrialdeetan lan egiteko aukera asko dago, baina bertara joateko minimo batzuk eskatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak 100 plaza eskaintzen ditu urtero eta eskaintza zabala den arren, urtero jende ugari kanpoan geratzen da. Herrialdearen arabera, hilabete bat, bi edo hiru arte luzatu daiteke lankidetzak. "Gehienetan, 18 urtetik gorakoa izatea eskatzen dute" dio Kortazarrek. Tramiteak errazteagatik eskatzen da adinduna izatea.

Boluntarioek, normalean, urte guztian zehar egonkor dauden programetan parte hartzen dute. Horri esker, "euren segurtasuna guztiz bermatua egoten da" dio Kortazarrek. Hori oso positiboa dela dio. Gainera, programa honekin bidaia ere barne dago "boluntarioak bere lanagatik ez du



Kooperanteek mundu elkartuago bat sortzen dute

dirurik jasotzen, baina Jaurlaritzak lo egiteko toki bat, otorduak eta bidaia ordaintzen dizkio".

Bertan egiten diren lanak oso anitzak izanik, gehienetan, oinarriko zerbitzuak indartu edo martxan jartzeko izan ohi dira. Irakasle lanak, eskola bera erakitzen... Ia guztia egiteko dagoen herrialde batean edozein laguntza ere, asko izaten da.

Egindako lanaren bueltan gainera, abantailak ugariak dira. Herrialde baten izaera ezagutzeko luxurik handiena bertako eskutik ezagutzea da, eta honek programek muga hori gainditu egiten dute. Bisitaria, lan eta turismo egitera hurbiltzen



Bere egonaldiko irudi bat. | XABI PASCUAL

XABI PASCUAL | KOLONBIAN KOOPERANTE

"Txiroagoak izan arren, guk baino aberastasun espiritual handiagoa dute"

Xabi Pascualek beti izan du mundua ezagutzeko gogoia, eta lankidetzako programak, inongo filtrorik gabe Kolonbia ezagutzeko aukera eman zion.

Beti izan duzu kooperazioa buruan?

Nik programa lagun baten bitartez ezagutu nuen. Dena den, beti izan

dut beste herrialde batzuetan gertatzen dena ezagutzeko gogoia, eta programa honek errealitate hori ezagutzeko aukera eman zidan.

Zuk nahi zenuen tokira joan zinen?

Zuk ez duzu lurraldea aukeratzeko zure perfila aztertu eta erakundearen beharren arabera batera edo beste

batera eroaten zaituzte. Ni Medellinera, Kolonbiara joan nintzen.

Nolako proiektua izan zen?

Misiolari batzuen proiektuan parte hartu nuen Medellinen bertan. Baina azken bi hilabeteak Medellinetik hiru ordura dagoen Amagan egin nituen. Bertan meategietan lan egiten duten umeekin egiten genuen lan. Kontua da umeak eskolara joan aurretik edo ostean meategietan lan egiten dutela. Janariaren bitartez erakarri eta eurekin jolastu edo etxerako lanak egiten genituen.

Beharrak ugariak izango dira?

Ezberdintasunak oso handiak dira, bai. Toki batetik bestera ezberdintasunak ikaragarriak dira. Hala ere, txiroagoak izan arren, guk baino aberastasun espiritual handiagoa dutela esango nuke. Gazte zein helduek oso egoera gogorrak bizi dituzten arren, ez dute bizitzeko grina edo poztasun hori galtzen.

Igartzen da erakunde lana?

Nik egindakoa ez nuke lana izan zenik izango; nikastera joan nintzen. Baina bai, gobernu kanpoko erakundeak lana asko igartzen da. Batzuetan delinkuentzia tasa jaistera ere iristen dira. Oso jende presatuak egiten du lan eta hori ikusi egiten da.

ORBAIZ FORMOSO | MIZPIRUALDE EGOITZAKO PSIKOLOGOA

"Erlazioak asko ez tuzten dira eta zenbaitek eskutitzak jaso dituzte"

Badira urte batzuk Mizpirualde egoitzak. Bergara Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren akordioari esker, gazteak hartzen dituela. Bertako psikologoak oso balorazio positiboa egiten du.

Nolako auzolandegiak dira Mizpirualdekoak?

Bergarako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak batetik sortutako ekimen bati esker etortzen dira hona.

Urtero gazte kopuru bera etortzen da?

Ez. Urtearen arabera kopuru ezberdina izan dugu.

Nolako lana egiten dute hemen?

Hona gosaldia ostean etortzen dira, eta bi orduz egiten dute lan. Uda garaian bisita kopurua dezente jaisten da eta gazteek konpainia handia egiten dute. Dena den, gure beharren arabera antolatzen ditugu auzolandegiak.

Lan egin ondoren zer egiten dute?



JULEN IRIONDO

Egunaren arabera, kanpotarrak direnez, Xabalote gazteleguan egiten dute lo eta egunaren arabera ekintza ezberdinak egiten dituzte: hondartzara, festaren batera... Azkenean, gure inguruak oso ondo ezagutzen dituzte.

Joan eta gero kontaktua mantentzen dute?

Ez da beti gertatzen. Egondian elkarren arteko erlazioak asko estutzen dira eta zenbait nagusik gutunak edo deiak jaso dituzte.



te. | EDUARDO LANDIA

naren kontua ez da gazteak erakartzen dituen gauza bakarra. Auzolandegietan ez da jardun osorik egiten, gehienetan bi edo hiru ordu lan egin ondoren, aisiarako denbora dezente egon ohi da. Jarduera bikoitz honek gazte asko erakartzen ditu.

Zaharren egoitzak, eraikin historikoak berriztapen programak... Aukera oso anitza da eta gazte euskaldunak erakartzeaz gainera, beste erkidego batzuetako gazteak ere animatzen dira gure auzolandegietan parte hartzera. Honela, lan egiteaz gainera, auzolandegiek izan ohi dituzten irteera eta aisialdi jardueren bitartez, arrotza zaien beste Euskal Herri berri bat ezagutzen dute.

Lana doan da?

Kanpotik begiratu ezker erantzuna erraza da. BAI, lana doan egiten da. Baina apur bat barneratu ezker erantzuna dezente zailtzen da. Honelako uda batean parte hartu ondoren, "aberasgarria", "bizitza ikusteko modua aldatu dit"... Bezalakoak entzuteak oso arrunta da. Egia da askotan, lana ez dela modu errazenean egiten, baina horren truke bizitako esperientziak guztia gaintzen du.

Argi dago, lana musu truk egiten dela, eta gehienetan lan horren ostean beste pertsona baten irribarra besterik jasotzen dela. Zorionez, oraindik diruaren aurretik, irribarre bat nahiago duenik geratzen da.

bada ere, bere lanari esker, lan egiten duten komunitatean barneratzen da. Aurreiritzi eta este-reotipoetatik urrun dagoen herrialde bat ezagutzen. Hori da, lankidetzak eman dezakeen altxorrik preziatuena. Bertakoekin begien bitartez, jatorriz zurea ez de ingurune berri bat ezagutzeko aukera paregabea.

Auzolandegiak

Gugandik hurbilago, uda besteentzako lan egiten igarotzeko ere aukera asko daude. Auzolandegiak azken urteetan dezente ugaitu dira. Kasu honetan gainera, zenbait programatan parte hartzeko 16 urte izatea nahikoa da. Horri esker, gazte gehiagok parte hartzea lortzen dute. Adi-



Mizpirualden oso oroitzapen ona utzi dute gazteek. | JULEN IRIONDO

"Batzuek errepikatzea gura dute"

Maria Egurrola eta Begoña Barrutiak ez dute dudarik: gustura errepikatuko lukete esperientzia. Gazteek beren eguneroko lasaitasunetik atera eta gauza berriak egitera bultzatu zituzten nagusiak. Paseoak, eskulanak, mahai jolasak, festaren bat... Denetik egin zuten aurreko udan, eta argi dago aurtengoan ere gazteek zain daudela.

Bilobak izango balira moduan

Biek bilobak dituzte, eta uda garaian eurekin ordu pare bat pasatzera etortzen direnak antzera tratatzen dituzte. Antzera bakarrik, ze barre artean bada ere, bakoitzak bikotekide gazte bat zuela aitortzen dute. Txantxa izan arren, bien barrek argi uzten dute programaren arrakasta erabatekoa dela.

'www.gazteukera.euskadi.net'

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen webgunean informazio guztia ageri da. Euskadiko gazteei zuzendua dagoen atarian auzolandegi edo lankidetzak programa guztien gaineko jakin beharreko informazio guztia dago.

Hala ere, Arrasateko Gazte Bulegoan ere programa hauen gaineko informazio aukera zabala ere badago.

garraio publikoa Gipuzkoa



Pertsona guztien mesederako tarifa bateratuak.



Garraio-aldaketak baldintza onetan.



Erabileraren araberako deskontuak.



Talde bereziei zuzendutako hobariak.

Mugirekin, zu irabazle

Gipuzkoako garraio publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.

Emaitza baino gehiago, parte hartzea saritu du aurten ere Berdintxiketak

Lasterketa honen berezitasun eta zailtasuna bat dira: korrikalariak bikoteka lehiatzen dira

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Berdintxiketa lasterketa mistoak Oñatiko kaleetatik zehar bost kilometro egin zituen. Eguraldia-gatik-edo, baina uste baino bizkorragoa izan zen eta lehen postua Azkoitia eta Azpeitiko bikote batek lortu zuen.

19:30ak jo bezain laster siri-miri fin batekin Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako Fakultate aurretik irten ziren Berdintxiketako parte-hartzaileak. Eguraldi kaskarrari aurre eginez, 26 bikote eta (lehiaketatik kanpo) bederatzi norbanako animatu ziren korrika egitera. Unibertsitate aurretik irten ostean, erdigunerantz jo eta bertan 5 kilometro egin zituzten. Korrikalariak ibilbideari hiru itzuli ematen zioten bitartean, zenbait txokotan, txalo bitartez oñatiarren berotasuna nabaritu zuten.

Helmugan lehenak hasierako metroetatik ziztu bizian ateratako Nerea Etxebarria eta Ruben Almen-dro izan ziren. Azkoitia eta Azpeitiko bikotea beste lasterketa misto batzuetan parte hartzetik dator eta, "bestearen erritmoa errespetatu behar dela", azpimarratu arren, egindako lehen postuarekin oso gustura geratu ziren.

Bigarrenak Lide Azkue eta Ruben Gonzalez izan ziren. Azkue-arentzat lehen Berdintxiketa izan zen eta bigarren postuarekin oso pozik zegoen: "Rubenek asko

lagundu dit, bera izan da moldatu dena", zioen Azkuek. Ruben, egindako lanari garrantzia kendu guran edo, biek egindako lasterketan zentratu zen.

Hirugarrenak Haritz Azurmendi eta Nerea Uriarte oñatiar-rrak izan ziren. "Aste honetan Nereak lasterketan parte hartze-ko proposamena egin eta hemen gaude", zioen Aruzmendik. Postuari begira gezurra dirudien arren, horrela izan zen. Oñatikoa bezalako bikote gazteek argi uzten dute Berdintxiketa beste urte askoan egingo dutela.

Garrantzitsuena, parte hartzea Hirugarren urte honetan, aurrekoetan bezala, parte hartzea saritzeko, lehen hiru bikoteez gain, azkenek ere euren saritxoa jaso zuten. Horretarako, antolatzaileek herriko denda, udal eta unibertsitatearekin laguntza izan zuten. Ia korrikalari guztiak eroan zuten opari bat edo beste etxera, Berdintxiketa lasterketaren filosofia beteaz.

Euripean bai, baina korrikalari-aren aurpegiak ikusi ostean, nabari da konpainiak eta kirolak merezi izan zuela.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Korrikalariak birritan zeharkatu zuten Oñatiko Foruen plaza. | IMANOL SORIANO



NEREA ETXEBARRIA ETA RUBEN ALMENDRO BIKOTE IRABAZLEA

"Lasterketa mota hau berezia da. Hemen bion artean guztia adostu beharra dago. Batek ezin du bere erritmoa ezarri eta horrek korrika egiteko modua goitik behera aldatzen du. Dena den, ez da gure lehen bikotekako lasterketa izan eta ibilbidea nahiko erraza iruditu zaigu. Gainera, lasterketa erdigunean izan denez, xarma berezia izan du".



RUBEN GONZALEZ ETA LIDE AZKUE 2. BIKOTEA

"Nire lehen aldian izan da Oñatin, baina Rubenek aurreko urtean ere parte hartu zuen. Lasterketa originala iruditu zait eta hasieratik oso ondo moldatu gara. Egia da Rubenek bere erritmoa moteldu egin behar izan duela, baina nik ere esfortzu estra bat egin dut. Postua ez zen garrantzitsuena, baina bigarren geratzeak ere alaitu egiten zaitu".

Gaur erabakiko du KontseiluBerriak eman beharreko hurrengo pausoa

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hurrengo egubakoitzean, maiatzak 7, egingo dute Fagor Etxetresnetako bazkideek aurtengo batzar orokorra. Badu berezitasunik oraingo batzarrak, izan ere, bat egin du denboran Fagorreko bazkide batzuen KontseiluBerria in-iziatibarekin. Ahots Kooperatibista korronteko kideek eta beste bazkide batzuek osatu dute KontseiluBerria. Sinadura-bilketa kanpaina hasi zuten, eta helburua zen norabide berri bat ematea kooperatibari. Hala, hasierako helburua zen maiatzaren 7ko batzar orokorreko gai-zerrendan puntu berezi bat sartzea: Kontseilu Erre-ktore berri baten gaineko bozketa eskatzeko puntua, hain zuzen ere. Puntu hori sartzeko, gutxienez 305 sinadura behar zituen KontseiluBerriak, eta 400 baino gehiago batu dituztela esan zuten in-iziatiba horretako kideek. Gaur, aste-lehena, bukatzen da batzarreko

gai-zerrendan euren eskaera sar-tzeko epea eta, edizio hau ixteko unean, KontseiluBerriako kideak eman beharreko pausoa hausnar-tzen zebiltzan.

Onartutako gai-zerrendako puntuetako bat da Kontseilu Errektorea berritzea.

Uarkapen, goizean goizetik

Fagor Etxetresnen batzar orok-rerra 3.000 lagun inguru daude deituta, izan ere, bazkide aktiboez,

gaur egun bertan lanean dabilta-nez gain, bazkide ez aktiboak ere deituta daude, hau da, gaur egun lanean ez egon arren kapitala orain-dik kooperatiban daukatenak. Arrasateko eta Basauriko bazkideak daude deituta. Jende asko batuko dela ziurtat emanda, batzar orokorra Uarkape frontoian izango da, eta 09:30ean hasiko da; bigarren deialdia 10:00etarako da.

Gai-zerrendan, besteak beste, Fagor Etxetresnen iazko kontuen eta emaitzen berri ematea eta haiek onartzea dago, eta baita 2012ko Gestio Planaren gaineko akordioa eta 2013rako Gestio Pla-na onartzea ere.

Garbigailuak hemen uztea

KontseiluBerria in-iziatiba sortu zenean, besteak beste, honako helburuak zituen: indarrean dagoen Industria Planaren orde-z beste bat onartzea eta, horren arabera, "bailarako eta Basauri-ko lantegi guztiei eustea, ahalik eta langile gehienekin, eta Gara-gartzako lantegiko 6 kiloko gar-bigailuen ekoizpena Poloniara ez eroatea".

DATUA

400

SINADURA BAINO GEHIAGO

KontseiluBerriak bere aldeko 400 sinadura baino gehiago batu ditu.



JULEN IRIONDO

Oñatiko Sortu herri mugimenduen alde

Egubakoitzean, herritar ugariaren aurrean, Oñatiko Sortuk bere aurkezpena egin zuen. Arnaldo Otegiren hitzekin hasi zuten ekitaldia eta, bertan, ezker abertzaleak "herrigintzarekin eta herriarekin duen konpromisoa" azaldu zuten. Etxebizitza edo ekonomia bezalako gai-er buruzko iritzi bat izan arren, Oñatiko Sortuk bere erabaki eta norabidea herri batzarren bitartez hartuko zutela berretsi zuten.

Langileek zalantzan jarri dute bidegorriaren epea

Elorregi eta Madalenako tunelen egokitzapenez gain, zenbait zatiren argiteri lanak ere falta dira



Farolak jarri eta gero, lanak ia amaituta daude. | I.G.



Elorregiko tunelean oraindik lan dezente geratzen da. | I.G.



Madalena auzoko tunela amaitu dute, baina inguruak ez. | I.G.

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Urte hasieran Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasate eta Oñati arteko lanak hasi zituenean maiatzeko eginda egongo zela zehaztu zuen, baina ibilbideko lanei gainbegiratu bat eginez gero, lanak bide onetik doazen arren, argi ikusten da bidegorria aurrerago zabalduko dutela. Langileek ere iritzi bera dute. Elorregin lanean zegoen langile baten hitzetan, "ez da atzeratu gaituen arrazoi zehatz bat egon baina hemen lan handia zegoen". Toki berean zegoen beste langile batek antzerako iritzia duen arren, atzerapenari arrazoi bat eman dio: "Euri asko egin du neguan eta horregatik atzeratu gara".

Madalenako tunela amaitu dute, baina inguruak oraindik ez dituzte atondu. Puntu horretan zenbait farola eta hesiak ere falta dira. Oñatitik Arrasaterantz doan ibilbidean, berriz, argiteri lanak amaituta daude. Elorregin ere lanak ia amaituta daude, baina "azken ukitu" batzuk baino gehiago geratzen da.

Arrasaten, apur bat hobeto

Trenbide zaharraren ibilbidea erabili denez, Arrasaten lanak arinago joan dira. Hala ere, oraindik ez dute bi tuneletako argiteria jarri. Bidegorriko erabiltzaile batek adierazi duen moduan, "hemendik egunero pasatzen naiz, eta oso langile gutxi ikusten ditut. Ikusten ditudanean!" Hori esan ostean, baina, hobekuntzak nabari direla ere gaineratu zuen.

Erabiltzaileak bidegorria erabiltzeko irrikaz daude, eta maizta hasi orduko bukatuko ez duten arren, maiatzean zehar prest izatea espero dute askok.



Juradok bere liburuetakoa bat Bergaran aurkeztu zuen. | ENENKO AZKARATE

Nekane Jurado | Ekonomialaria

"Herriak herriarentzat sortutako eredu baten aldekoak gara"

Krisia ekonomikoa barik, mendebaldeko bizitzeko moduaren gainbehera dela uste du

I.G. | ARRASATE

Askapenak maiatzeko lehen bi asteburuetan formazio saioak eskainiko ditu Arrasateko Etxaluzera eraikinean. Bigarren aste bukaeran sistema kapitalistak eragin duen krisitik irteteko alternatibak izango dira protagonista. Bertan Nekane Jurado ekonomialariak *Alternatiba sozioekonomikoak eraikitzen* izenburupean hitzaldia egingo du. Hitzaldi horren aurretik, baina, GOIENArekin hitz egiteko tartetxo bat izan du.

Zein egoeratan gaude?

Aste honetako titularrak irakurtzea besterik ez dago. Datuak negargarriak dira, gizartea oso egoera larrian dago. Lan faltaz gain, gobernuaren laguntzari esker, lanaren egoera bera ere dezente okertu da. Gainera, titular handien bitartez, jendea nahastu egiten dute. Burtsak edo Barne Produktu Gordinak gora egiteak ez du gure egoera hobetuko denik ziurtatzen. Are gehiago, kasu askotan, lan baldintzek bere horretan jarraitu edo okerrera egiten dute.

Krisi honen kostua, gainera, ahu-lanak ordaintzen ari dira.

Hala da, bai. Itxuraz, ekonomia-aren hobe beharrez, produktu lehiakorrago batzuk sortzeko, enpresen irabaziak murriztu beharrean soldatak jaisten hasi dira. Hortaz, krisi hau birritan ordaintzen ari gara, lehenengo

soldata jaitsieren bidez eta gero gizarte zerbitzuetan egin dituzten murrizketa sakonen bidez.

Hitzaldian alternatiba sozioekonomikoak azalduko dituzu. Bada-goztontzat ona izan daitekeen eredu ekonomikorik?

Guk 90eko hamarkadan euskal sozialismo identitarioa deritzon eredu bat sortu genuen. Hori martxan jartzeko, baina, Euskal Herriaren independentzia ezinbestekoa da, gure ekonomia-aren jabe izatea beharrezkoa da. Zoritxarrez, egun bizi dugun larrialdi egoeratik ezin gara independentziaren zain egon. Horregatik, 90eko hamarkadan sortutako eredutik tiraka, *Auzolan Euskal Herria* delako proiektua sortu dugu. Zatika bada ere, hasi gara eredu horretako zenbait ekimen martxan jartzen: denbora bankuak, elkartruke programak... Herriak herriarentzat sortutako eredu baten aldekoak gara, kanpo injerentziarik gabea.

Esku-hartze gehiegi dago, ezta?

Multinazional eta korporazioek botere gehiegi dute. Bertatik bertarako ekonomi sistema umilago baten sinisten dut.

Krisia ekonomikoa edo mendebaldeko gizarte ereduarena da?

Krisia azalatu aurretik izaera edo ekologiaren krisiez hitz egiten genuen. Argi dago, krisia barik, mendebaldeko bizitzeko eraren gainbehera dela.

Lan osasunaren nazioarteko eguna

Egun zehatza domeka izan bazen ere, LAB sindikatuak egubakoitzean egin zuen elkarretaratzea. Sindikatuaren ustez, administrazio eta enpresaburuaren laguntzarekin, langileriaren lan baldintzak okertu egin dira eta osasun baldintzek ere okerrera egin dute. LABen ustez, mutualitateek gaixoaren alde egin beharrean, interes ekonomikoaren alde egiten dute beti. Horrez gain, osasun ereduaz erabakitzekeo premia ere aldarrikatu zuten.



IBAN MORALES

GOIENA RENT

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

Maiatzaren 1eko ekintzak Eibarren eta hiriburuetan egingo dituzte

- ▶ ELAk autobusak antolatu ditu Debagoienetik Bilbora joateko
- ▶ LABek kale-agerraldia eta bazkarira Eibarrera joateko dei egiten du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Krisiak eta murrizketek markatutako eguna izango da aurten ere Maiatzaren 1a. Sindikatu nagusietatik, CCOO eta UGTk batera ospatuko dute, eta ESK eta Eilasek ere bai. Debagoiengan ez da ekitaldi berezirik izango, eta ekitaldi orokorretara joateko dei egin dute hemengo ordezkari sindikalek.

ELA sindikatuak Bilbora joatera deitu du. Jesusen Bihotzetik abiatuko dira kale-agerraldian 11:30ean, *Eskubide sozialen alde* leloarekin. Ohiko aldarrikapenak egingo dituzte: aberastasuna banatzeko eta fiskalitate bidezkoago baten alde. Horrez gain, maiatzaren 30erako deitutako grebarekin bat egiteko eskatuko diete langileei. ELAren iritziz, Maiatzaren 1a "aukera egokia" da "zurrunbilo neoliberal eta zentralizatzaileari" aurre egiteko.

Kale-agerraldia eta gero, BECen bazkaria izango dute afiliatuek eta lagunek. 6.000 lagun inguru espero dituzte.

ELAren ekitaldietara joateko autobusak izango dira Debagoienetik: Aretxabaletatik 09:30ean irtengo da, Tesa ondoko geltokitik, eta Arrasaten jendea batuko du 09:45ean. Oñatitik beste autobus bat irtengo da 09:45ean, eta Bergaran 10:00etan geldituko da.



LABeko Debagoieneko arduradunek Maiatzaren 1a ospatzeko dei egin dute. | LAB SINDIKATUA

LAB sindikatuak Eibarren egingo du kale-agerraldia, 12:00etan, eta bazkaria 14:30ean, Untzaga plazan. 19:00etan kontzertuak izango dira gaztetxean. Borrokatu, matxinatu eta irauli Euskal Herria da aurtengo leloa, eta bertako "herri eta eskualdeetako enplegua eta etorkizuna defendatzeko" dei egin du LABek. Euren iritziz, izan ere, Euskal Herriak bizi duen "emergentzia egoera" ez da krisiaren ondorio, baizik eta "krisia aitzakia hartuta apli-

Lan-hitzarmenera bidea ireki da

ELA, LAB eta CCOO sindikatuak eta Biharko enpresak -adineko pertsonentzako sei egoitza eta hamaika eguneko zentro kudeatzen dituenak Gipuzkoan- lan-hitzarmena sinatze aldeko aurre-akordioa lortu zuten joan den egubakoitzean. Lan-hitzarmen hori Gizarte Politikako Departamentuak egindako proposamenaren oinarrituta dago. Horrek 350 langilerengan izango du eragina, eta horietatik % 96 emakumeak dira.

Hain zuzen lan-hitzarmena oraindik egin gabe dagoelako, bost eguneko greba hastekoak ziren gaur, astelehena, Gipuzkoako zaharren egoitzetako langileek.

katzen ari diren politiken ondorioa".

ESK sindikatuak euskal hiriburuetan agerraldiak egingo ditu, Eilas, CNT eta CGT sindikatuak eta hainbat gizarte-plataforma eta eragilerek batera. Bestalde, Errenteriatik Donostiara martxa egingo dute, Errenteriatik 09:00etan irtenda. Boulevardean agerraldia egingo dute segidan, 12:30ean. Gainerako hiriburuetarako, hauek dira ordutegiak: Bilboko Kale Nagusian, 11:30ean agerraldia; Iruñean, Recoletos plazan, 11:30ean mitina eta 12:00etan agerraldia; eta Gasteizen, Bilbao plazan, 12:30ean, kale-agerraldia.

Borrokatu leloarekin, enplegua, etxeko lanak, zaintza-lanak eta aberastasuna banatzeko eskatuko dute. Horrez gain, Maiatzaren 1eko ekintzak hilaren 30eko greba orokorraren "abiapuntuzat" hartuko dituzte.

Lan-hitzarmenaren erreforma

CCOO eta UGT sindikatuak Euskadiko ordezkariak batera ospatuko dute Maiatzaren 1a, eta ordu berean, 12:00etan, kale-agerraldiak egingo dituzte Bilbon (Jesusen Bihotzetik abiatuta), Donostian (Alderdi Ederren) eta Gasteizen (Andra Mari Zuriaren plazan). *Ez daukate mugarik. Zure eskubideak babestu itzazu* lelopean ibiliko dira kalerik kale.

Oraingoz, behintzat, ez CCOOk ez UGT ez dute bat egin Gune plataformak deitutako greba deialdiarekin; beraz, Maiatzaren 1ean beste egun batera, uztaillaren 7ra begira jartzeko dei egiten du CCOOk: "Egun horretan orain berealdiko aktibitatean dauden hitzarmenen indarraldia bukatzen hasiko da, eta inoiz baino garrantzitsuagoa da negoziazio kolektiboaren erreformari uko egitea, eta jarrera hau kalean erakutsi behar dugu".


BAZen eman daiteke Etxebideren ASAP alokairu programan izena

012 telefonoan Donostiara joatea eskatzen dute, baina ez da beharrezkoa

L.K. | ARRASATE

Etxebidek martxan daukan ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programan jende gutxiago dago izena emanda Debagoiengan Gipuzkoako beste eskualde gehienetan baino. Hori ikusita, programan bitartekari izateko homologatuta dagoen Deba Garaia agentziak gogorarazi gura du ez dagoela Donostiara joan beharrik bertan izena emateko, 012 telefonoan esaten duten moduan; Arrasaten bertan, BAZen egin daiteke hori.

ASAP programak errenta mugatua etxebizitza alokatzeko aukera ematen du: 550 euro hileko, gehienez ere, Arrasaten; 400, Aramaion eta Gatzagan; eta 475, Debagoieneko gainerako herrietan. Horren truke, etxearen jabeari errenta jasoko duela eta etxebizitza ondo egongo dela bermatzen dio Eusko Jaurlaritzak.



ASAP programaren webgunea. | GOIENA

Berme hori aseguru-poliza baten bitartez ematen da. Informazio gehiago www.etxebide.euskadi.net webgunean dago.

ASAPen bitartekariak izateko zenbait immobiliaria daude Jaurlaritzak homologatuta: Debagoiengan, Deba-Garaia, Arrasaten, eta Cortabarria, Oñatin.

83,4 milioi euro irabazi zituen Oronak iaz

Horrez gain, Europatik kanpo zabaldu da, Brasilgo AMG Elevadores taldea erositako

L.K. | ARRASATE

Mondragon Korporazioko kide batek, Oronak, 83,4 milioi euroko irabaziak izan ditu 2012ko ekitaldian, eta 569,1 milioi euroko negozio-zifra lortu du, aurreko ekitaldian baino % 2,3 gehiago. Horren berri eman zuen Oronak joan den astelehenean, hilak 22, Kurtsaal jauregian egindako batzar orokorrean.

Brasilgo 4. enpresa-taldea

Ekitaldiko datuekin batera, Brasilgo AMG Elevadores taldearen erosketaren berri eman zuen Oronak. AMG taldea hori igogailuen sektoreko Brasilgo 4. enpresa-taldea da, eta, horrenbestez, hura erostearrekin "urrats garrantzitsua" egin du Oronak atzerrian zabaltzen joateko helburuari dagokionez;

izan ere, Europatik kanpo erosten duen lehenengo enpresa da esandakoa. Nazioartean zabaltzea eta leku aldetik dibertsifikatzea helburu estrategikoa da Oronarendako, berrikuntzarekin batera. Ekitaldi berean jakinarazi zuten, ez da erosteketa bakarrik izan: Frantziaren beste bi enpresa eta Norvegiaren beste bat erosi ditu Orona kooperatibak; denak "erreferentziakoak".

AMG Elevadores taldea erositako, datozen urteetan Brasilen 100 milioi euroko negozio-zifra lortzea espero du Oronak, eta munduko lehen hamarren artean kokatzea.

Berrikuntzari dagokionez, 60 milioi euro eta salmenten % 2 inguru, inbertitu zituen iaz horretan.

Lorea Agirre | Kazetaria eta HUHEZIKo Sorgunea ikertegiko kidea

"Gure helburua, haurra zentralitatean jarrita, gurean dauden egitasmoen berri ematea da"

- ▶ Haurren zentralitatean oinarritutako jardunaldia egingo dute Donostian maiatzean
- ▶ Tonucciren 'Città dei bambini' liburuaren euskarazkoa argitaratuko du Txatxilipurdik

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Haurren zentralitatean oinarrituta, *Herri hezitzailea, eskola herritarra* jardunaldia egingo dute, Donostiako Kursaal jauregian, maiatzaren 10ean eta 11n. Antolatzaileen artean, MUko HUHEZIKo Sorgunea ikertegia eta Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkarte daude.

Zer batzen du jardunaldiak eta zein helburuekin?

Gure helburua, haurra zentraltasunean jarrita, Euskal Herrian abian dauden hainbat ekimen ezagutaraztea da. Baina badu bigarren helburu bat ere: Francesco Tonucci psikopedagogo italiarrak haurren zentralitatearen inguruan egindako azterketak Tonucciren ahotik jasotzea. Umearen inguruan lanean gabil-tzanok hainbat autoreen lanetatik elikatzen bagara ere, funtsezkoenetako bat, Francesco Tonucci dugula kontuan hartuta, gonbidapena egin genion etortzeko. Hasiera baten Txatxilipurdik haurren eremuan lan egiten dugun beste eragileoi Tonucciren *Città dei bambini* liburu itzultzea proposatu zigun; hortik sortu zen jardunaldiaren ideia, Tonuccirekin harremanetan jarrita.

Nor da Tonucci eta zergatik da hezitzaileendako erreferente?

Orain erretiraturata dagoen arren, urte asko eman ditu irakaskuntzan, ikerkuntzan eta ondorioz, hainbat ekimen jarri zituen martxan. Urte luzetako jardunean, elkarrekin lotuta dauden bi eremu landu ditu, beti ere, haurren zentralitatean oinarrituta: herria edo hiria zer den eta umeeek herriaren antolaketan parte hartzeko duten eskumenaren ideia batetik, eta bigarrena, berriz, umea eta eskolaren ingurukoa litzateke. Kontzeptu horiek biak jaso zituen, besteak beste, *Città dei bambini* liburuaren, hezitzaile askok esku-liburu moduan erabiltzen duguna.

Liburuaren euskarazko bertsioa, Haurren Hiria maiatzaren 9an Arrasaten aurkeztuko duzue.

Gure lan jarduna euskaraz izanda, beharrezkoa ikusi genuen guztiok *Haurren hiria* argitaratzea. Bergarako Maider Elkoro itzuli du. Tonuccik, erretiratu ondoren Fanon, jaioterrian, abian jarritako filosofiaren gauzatzea jasotzen du liburuak. Kezka batek abiatu zen, hau da, haren haurtzaroko garaiko hiriak eta gaur egunekoak, antzekotasunik ez zutela. Tonuccirentzako lehengo gaziarragoa zen eta horregatik, hiria eta haren antolaketa,

umeen begiradatik ikusten hasi beharra aztertzen hasi zen. Fano hiriko sei eta hamabost urte bitarteko haur eta gazteekin *laborategia* jarri zuen orduan martxan, hau da, herriko guneak eraldatzeko haurren batzorde bat antolatu zuen Udalean. Haurrei horrelako prozesu parte-hartzailetan nola lan egin irakatsi zien lehenengo eta ondoren, haur batzorde horrek, hiri egoki baten aldeko proposamenak egin zizkieten udal ordezkari. Proiektuak emaitza onak eman zituen, Italiako beste herri batzuetara hedatu zen gero eta Europako zein Hego Ameriketako beste herrialde batzuetara ere bai.

Haurren hiria liburuaren hitzaurrea zuz egin duzu, ze mezuekin?

Tonucciren ideia nagusiak nabarmendu ditut, nolabait esanda, umeari zer zor diogun. Umearen balioa gehienetan, etorkizunean izango denaren arabera neurtzen dugu eta ez, haurra momentuan zer denaren arabera. Tonuccik dio, umea hiritarra denez, baduela balioa. Duda barik, ikasketa prozesu indartsua dago atzetik, baina gauzak egiteko beste modu bat ikasita, komunitate osoarentzako onurak izango dituen gizartea eratzeko bidea emango du. Tonucciren ekarria termino horietara ekarri dut eta ideia horiek gurera nola ekarriko dugun azaltzen saiatu naiz, bereziki, hizkuntzaren zentralitatea eta herri-gintzan oinarrituta.

Nola gauzatu ahal da filosofia bera herrialde ezberdinetan?

Tokian Tokiko tradizio eta indarguneak zeintzuk diren oso kontuan hartu behar da eta gure ustez Euskal Herrian Tonucciren ideien aplikazio tekniko egin daiteke gure tradizioari lotuta. Tradizioari lotuta, besteak beste, bi ezaugarri ditugu: bat, hizkuntza eta beste, auzolana, edo herri mailako ekimenetan antolatzekeo dugun joera. Hemen, beraz, bi ezaugarri horiek oinarri hartuta aplikatzea proposatzen dugu Tonucciren filosofia.

Euskal Herrian ere eman ditu Tonucciren filosofiak hainbat fruitu.

Badira batzuk bai, urrutira joan gabe, Txatxilipurdik, besteak beste, ohiko ludoteken funtzionamendua aldatuta eta haurra zentralitatean jarrita bi egitasmo jarri ditu abian: *Berramesten egitasmoa* eta *Plaza berreskuratuz* deritzona, bestea. HUHEZIKo Sorgunea ikertegitik lanean ari gara, Irrien Lagunak elkartearrekin, Oarsoaldeko lau udaletan, umeen parte-hartze prozesuan



HUHEZIKo Sorgunea ikertegiko kidea da Lorea Agirre. | LOREA AGIRRE

"Ikasketa prozesu luzearen atzetik, komunitate osoak irabaziko du gero"

"Tonucciren ideien aplikazioa, Euskal Herrian, tradizioari lotuta egin daiteke"

oinarritutako proiektua gauzatzen. Ordiziako Udalean ere badute orain urte batzuk Ordizia herria hezitzailea izateko beste bat martxan. Nafarroan ere badira, Lizarra eta Iruñean, umeeke diseinatutako parkeak egin dituzte adibidez. Leioan Tonucciren filosofian oinarritutako ikas-komunitate egitasmoa ere abian da. Horiek guztiak, jardunaldietan sakonduko ditugu. **Hiria antolaketa egokia behin eta berriz aipatuta, nola gauzatu herria edo hiria hankaz gora jarri gabe?**

Hasteko, nabarmendu beharreko ideia nagusia, hiriak ideologia baten arabera antolatzen direla, da. Orain arte izan dugun hiri-gintza, arazo fisikorik ez duen eta dirua maneiatzen duen gizonezkoaren ikuspuntutik sortutakoa da. Ez dago ezer neutroa; beraz, beste modu batera pentsatuz gero, beste modu batera deseraiki edo berreraiki daitezke hiriak. Nire ustez kontua ez da hiriak botatzea; dauden guneak beste modura batera pentsatuta gauza handiak egin daitezkeela esango nuke.

Eta gobernariak nola ikusten dute hau guztia?

Aurrez aipatu dizkizudan egitasmoetan Udalek ere parte hartzen dute. Gaur egun, uste dut denok ulertu dugula, eta baita agintariak ere, gure etorkizuna eratzeko tresnak, parte hartzaileak izan behar direla. Foru Aldundiak esateko, badu parte-hartzearekin lotutako sail bat eta dagoeneko ehunka proiektu lagundu dituen. Administrazioa guztiok garelako sinetsi behar dugu eta horregatik ditugula eskubideak eta baita ardurak ere. Prozesu hori baina, laborategia da, hau da, ikasketa-prozesu bat.

Hala ere, gurasook ere txipa aldatu behar dugu.

Bai, hala da; parke egoki baten kontzeptua oso ezberdina da haur eta gurasoendako. Gaur egungo jolasparkeek kartzela txikien itxura daukate. Plano makro baten begiraturako bagenu, momentu honetan Mendebalde osoan, beldurpean bizi gara: beldur ekonomikoa, kaleak beldurgarriak dira, gauak beldurgarriak dira, etorkizuna ez dakigu nolakoa izango den... Beldurra barreiatzeko propaganda oso bat dagoela esango nuke; betidanik erabili izan da, beldurra, gizartearen kontrol tresna moduan. Nik uste dut kale bat edo plaza, umentzat jolasgarri bihurtzen dugunean, toki hori, segurua dela. Guk kalean, edozein tokietan, jolasten genuen eta uste dut horrelako gauzak berreskuratu egin daitezkeela. Tonuccik sarritan aipatzen du jolas librearen garrantzia, inork ez lizuke jolasa kontrolatu behar, 0-6 urte bitarteko haurrek jolasaren bitartez ikasten dute.

Liburuak irakurtzeko gomendioa egingo diguzu, beraz?

Bai, dudu barik, gurasoentzako ere ikasgai ona izan daiteke. Mezu argia eta samur ulertzekoa du. Haurrentzako eta haurrekin, guztiontzako mesede, gizarte hobe bat egitea lor dezakegu.

ZABALIK

IÑAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/



Galderak eta galderak

Urteak betetzen ditudan neurrian, gero eta galdera gehiago egiten dizkiot nire buruari. Socratesen esaldi batek zioen moduan: "Ezer ez dakit, ezer ez dakidala baizik". Hona hemen adibide batzuk.

Zergatik ez zuen telebistak, hasiera baten, programazioa eten, Bostongo Maratoian gertatu zenaz informatzeko? Twitter aise gailendu zitzaion telebistari, 140 karaktereen indarrarekin, barreiatze-gaitasunarekin eta hedapen azkarrarekin.

Horretaz ari garela... inork badaki zerk eragin zuen atentatua? Zergatik egin zuten? Zenbat aldiz egiten diot galdera hori nire buruari, telebista ikusten ari naizela, edo egunkaria irakurtzen: baten trajeak, besteen gainsoldadak, Barcnas dela, errege-etxea dela... Baina ze behar dute? Giza-ustelkeriak dauka azalpena.

Eta ustelkeriaz ari garela... Paper zuriaren aurrean nengoela, Legazpiko kontsultaz berba egin nezakeen, baina... zertarako? Herriak dagoeneko egin du berba, ezta?

M-30eko grebaz ere berba egin nezakeen, baina buruzagi sindikal bati zera entzun diot: "Greba orokorreko gobernua aldatzen dituzte". Eta zer esan ez dakidala geratu naiz. Hainbat galdera datozkit burura: non daude politikaren, praktika sindikalaren eta konpromiso sozialaren mugak?

Eta azken galdera: ze etorkizun izan dezake herrialde batek, talentua alferrik galtzen uzten badu? Fernando Cossio plazaratu zuen galdera hura, Ikerbasqueko zuzendaria. Bada... ez da etorkizun ona izango, eta pentsatu gura dut ahal dugun guztia egiten ari garela ezagupen-ihesik ez izateko eta haren iman bihurtzeko.

Tira, erantzunak bilatzen ditudan bitartean, baikortasunari eutsiko diot: gehiago egin eta gutxiago berba egin. Euskadik ekintza positiboak behar ditu, berba ponposo eta hutsalak alde batera utzita. Aurrekontuak ere behar ditu, baina hori beste zutabe baterako utziko dugu.

USTEAK USTE

XABIER URZELAI | xurzelai@goiena.com

Bizikletan ere, zaborren gaia?

Ez dok eukiko gel hori lurrera botatzeko asmorik, ezta?", esan zion joan den astean lagun batek Deba-Deba martxa zikloturista egiten zebilen beste bati, tropelean zirela. Kontatu didanez, intentzioa antzeman zion, Udana igotzen. Eta baita bota ere. Txirrindularitzan ere profesionalen ohiturak hartu nahi izaten dituzte askok, eta barrita edo gelen hondakinak lurrera botatzea da *pro*-ek duten ohitura txar horietako bat. Hasi dira gauzak aldatzen: joan den astean, Liege-Bastogne-Liege klasiako hainbat profesional zigortu zituzten horregatik. Datorren domekan da Bergarako martxa, Udanan inork ez du gelik hartuko, goiz da. Baina Elosuan, hondakinak poltsikora.

KALE INKESTA

Irakurtzeko ohiturarik badaukazu? Zein hizkuntzatan?



ESTITXU MEABE
ARETXABALETA

Bai, badaukak irakurtzeko ohitura. Ikasturtean zehar euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzen dut, eta udan, batez ere, gaztelaniaz.



MIRARI ZUBIA
ARRASATE

Mutikoak irakurtzen duelako; hark irakurtzen duena nik hartzen dut gero, hori da tranpatxo. Batez ere gaztelaniazko liburuak dira.



MARISA MURILLO
ARRASATE

Bai, normalean, irakurtzen dut; batez ere, gaztelaniaz. Hala ere, umearekin euskaraz irakurtzen dut, noizean behin.



LUISA ORMAETXEA
ARRASATE

Ez, ez daukat irakurtzeko ohiturarik. Ilobek irakurtzen dute, eta baita semeek ere. Nire garaian luxua zen irakurtzen jakitea.

HANDIK ETA HEMENDIK

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ideia batzuk Eduardo Apodakaren eskutik

Onintza Irureta Azkune
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Atzo hasi eta gaur bukatuko dira Udaltop jardunaldiak Lasarte-Orian (Gipuzkoa). Eduardo Apodaka EHUKO irakasleak atzo *Euskaraz jarduteko aktibazioa: ideia zenbait psikologia sozialetik* hitzaldia eskaini zuen.

Irudikatu euskara teknikariz jositako aretoa. Euskaraz egiteko ohiturarik ez duen euskalduna edo euskara ikasteko intentzio handirik ez duen administrazio langilea izango dute buruan.

Bada, Eduardo Apodakak jendearen portaera linguistikoa aldatzeko Gizarte psikologiak eskaini ditzakeen hainbat ideia azaldu nahi izan zituen bere hitzaldian. [...]

Hizkuntza batetik bestera jauzi egitea buruhausterik gabekoa izan daiteke, baldin

eta, adibidez, ikuspegi instrumentaletik egiten bada. [...]

Hizkuntza aldaketa horrekin ez dugu ezer jartzen jokoan. [...]

Kode aldaketak (gaztelaniatik euskarara egiteak) hainbat gauza galarazten dizkie hiztunei (hala nola, udal langileei): segurtasuna, komunikagarritasuna eta autoestimua, besteak beste.

Zeren ondorio dira hizkuntza portaera aldaketak? Bi eremu aipa ditzakegu: barne dispozizioaren eta kanpo dispozitiboaren ondorio. [...]

Portaera denak ez dira berdinak eta bi maila bereiz daitezke: batetik, azturak edo ohiturak, barne dispozizioetan muina dutenak, eta bestetik, ekintzak.

Bietan eragin daiteke. Aldaketa eragiteko jokoan zer dagoen azaleratu behar da. Hau da, nola azaltzen diozu udal langileari hemendik aurrera euskaraz egin behar duela? Euskaraz egiteko eskubidea duelako, hala egin behar duelako... Hizkuntza kodea aldatzeko esango diogu, eta kito? Aldaketa horrek zein zentzu duen azaldu beharko zaio, alegia, zentzugintza landu beharko dugu. [...]

Bestalde, jakin behar dugu azturetan ala ekintzetan eragiten ari garen.

Esate baterako, lor dezakegu halako langilek gure aurrean hizkuntza aldatzea, baina buelta eman orduko gaztelaniara itzuli da.

Ekintzan eragin dugu, baina ez langile horren azturetan. [...]

Eduardo Apodakak esandako beste bi kontutxo:

-Euskara gaitasunari tartea eskaini zion Apodakak. Haren ustez, euskararekin oso exigenteak gara, zuzentzeko joera handia daukagu. Eta ondoko esaldi hauek utzi zizkigun: "Ez gara euskaraz egiten duen herria", baizik eta "Euskara ikasten ari den herria", eta "Euskara ikasleen herria" gara.

-Anormalak gara: Entzule bat zerbait anormala eskatzen ari garenaren kontuarekin geratu zen eta familiako adibidea jarri zion.

Seme-alabek gurasoei adierazi izan die euskaraz bizi nahi izateagatik ingurukoekiko anormal sentitzen direla.

Apodakaren erantzuna: "Bai, arraroak gara, eta hala esan behar diegu, arraroak garela. Bide batez esanda, gaur egun garai batean baino jende arraro gehiago dago".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Hauek dira irabazleak!

Hauek dira APIRILEKO SARIDUNAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:
ZORIONAK, GUZTIOI!

AISIA DEBA HOTELEAN**

2 pertsonarentzako gaua ostatuan,
buffet-gosaria eta zirkuitu termala

- Isabel Arenaza Legasa (Oñati)
- Andoni Axpe Madinabeitia (Arrasate)
- Julian Arriaran Otaegi (Bergara)

2 pertsonarentzako relax gastronomikoa
(bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua)

- Arantzazu Igartua Lizarralde (Bergara)
- Karmele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)

TELEBISTA ETA BLUY RAY**

- Idoia Moreno Zubikarai (Bergara)

BASERRISAREAKO OTARREK**

- Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara)
- Tomas Beitia Arejolaleiba (Eskoriatza)
- Arantxa Zubillaga (Arrasate)
- Juan Luis Gallastegi Arrondo (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO sarrerak*

- Mila Martinez de Zuazo (Oñati)
- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
- Itsaso Lazpiur Ibarzabal (Bergara)
- Eneritz Urbieta Atxa (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO

* **Arrikruzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute.

ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

** **Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitzete mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduetgia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
www.goienakluba.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Dorleta Kortazar | Sozialista Abertzaleak-eko zinegotzia Eskoriatzan (1999-2003)

- ▶ Garai hartan zinegotzi guztien arteko elkarlana zegoela azpimarratzen du Kortazarrek
- ▶ Kultura eta ongizate arloak indartu zituzten lau urte haietan, eskoriatzarraren arabera
- ▶ Batzordeetan lan egitea erabaki zuten eta osoko bilkuretara erabakiak hartuta joaten ziren

"Udaletxeko ateak zabaldu eta herritarrek eurena ere bazela nabaritu zutela uste dut"

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Lau urtez egon zen Dorleta Kortazar eskoriatzarra Udalean. Gazte sartu zen, 23 urte zituenean, eta esperientzia hartaz egin digu berba.

Nolatan sartu zinen politikan?

Gaztetatik egon izan naiz ezker abertzaleko taldeetan sartuta, eta, egia esateko, zerrenda osatzeko nindoan, beste barik; bosgarrena nintzen. Ez genuen horrelako emaitza onik espero eta Udala Gobernuan sartu nintzen. Hasierako urduritasunaz aparte, oso talde polita osatu genuen eta ilusioz eta gogoz nengoela gogoratzen dut.

Zein izan zen zure egitekoa?

Legegintzaldi hartan lanak guztion artean banatu genituen, hamaika zinegotzi ginen eta denok, PSEkoak barne, ardurak hartu genituen gure gain. Ni Ongizate Sailean egon nintzen, ez zinegotzi bezala, EAJkoa zelako, baina bai batzordekide gisa. Gainera, bilkuretan bozeramailea nintzen, eta urte hartan Udalbiltza ipini zen martxan eta Udaleko arduradun moduan nengoan ni.

Eta nola oroitzen dituzu lau urteak?

Lehenengo aldia zen ezker abertzalea alkatetzan sartzen zela. Alkatea (Edorta Zubizarreta) zinegotzi izan zen aurreko legegintzaldian, eta zer edo zer bazekien arren, gainerakook berriak ginen. Aurreko alkatetzak 12 urte egin zituen eta kosta egin zen aldaketa ematea. Bada, hasierako beldur haiek kendu, eta oso pozik geratu ginen egindako lanarekin.

Egitekoak denen artean banatuta izateak lagunduko zuen, ezta?



Dorleta Kortazar, orduan Ongizate Saila egon zen eraikina atzean duela. | ZVDM

Zalantza barik. Udala bat hamaika pertsonaren artean eramatea edo, urte batzuetara gertatu den moduan, lan osoa pertsona gutxi batzuek euren bizkar gainean

"Ongizate Sailean nengoan eta bozeramailea nintzen bilkuretan"

"Udalbiltza ipini zen martxan eta Udaleko arduradun moduan nengoan"

eramatea oso ezberdina da. Lan handiagoa eskatzen du akordioetara eta iritsi behar duzulako, baina oso lan giro polita zegoen. Udalean sartu ginenean erakutsi gura izan genuen gauzak beste modu batera egin zitezkeela, eta lortu genuen. Langileekiko harremanak ere aldatu ziren, hierarkia hura hautsi eta erakutsi genuen herriarentzako lan egiteko geundela han. Ez dut esango ez zirenik gai eztabaidatsuak egon, baina, orokorrean, balorazio positiboa egiten dut.

Batzordeetan egiten zenuen lan.

Nork bere esparrua zeukan, baina askatasunez aritzen ginen sentsazioa dut. Batzordeetan ipini genuen erabakigunea, eta dena erabakita eramaten genuen osoko bilkuretara, edo landuta,

gutxienez. Eta batzordeetan guztioak geundenez, politikoak izan ziren oso erabaki gutxi hartu genituen. Lan egiteko modua ideala da, nire ustez, eta legegintzal-

"Langileekiko harremanak aldatu ziren; hierarkia hautsi zen"

"Hesi arkitektonikoak ezabatzeko proiektua garatu zen"

diko puntu garrantzitsu bat izan zen hura. Herrigintzak bestelako bultzada hartu zuen urte haietan, udaletxeko ateak zabaldu eta herritarrek eurena ere bazela nabaritu zutela iruditzen zait.

Beste lorpenik gogoratzen duzu?

Ongizate Sailetik, esaterako, hesi arkitektonikoak ezabatzeko proiektu potolo bat eraman genuen aurrera. Lantalde txiki bat osatu genuen, mugikortasun arazoak zituzten herritarrek ere bertan zeuden. Plan orokorra egin genuen, lehentasunak zehaztu eta etorkizunerako oinarriak zeintzuk izan behar ziren erabakiz, irisgarritasuna bermatzeko. Udalean egon ginenean ekonomikoki sasoi onak ziren. Hori bai, sartu ginenean bazirudien hirigintza eta zerbitzuetara joaten zela diru guztia eta Kultura eta Ongizate sailak indartu genituen bereziki.

Legegintzaldia 2003an amaitu zen; Auzitegi Gorenak Sozialista Abertzaleak desegin zuen gero...

Bai, eta igarri nuen; izan ere, hurrengo hauteskundeetan zerrendaburu moduan nindoan eta bertan behera geratu zen. Urte gogorrak izan ziren, ezintasun sentsazioa geneukan, aurreko urteetan lan polita egin genuelako eta proiektuarekin jarraitu gura genuelako. Dena den, azpimarratu behar da Udalean sartu zirenek ez zutela egoera samurra izan eta gure parte-hartzea bermatzeko lan egin zutela. Esaterako, informazio asko pasatzen ziguten, batzordeetara joateko aukera ere bageneukan... Gurekiko begirune hura izan zuten.

PEDALKA

SAIO BERRIA

FRANZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | MAIATZAK 2, 21:50



HERRIAK

ARAMAIO

Sagardoaren bitartez turismoa sustatu nahi du elkarte berri batek

- ▶ Sagardogileen federazioak, 67 sagardotegik eta 9 udalek eratu dute Bizi Sagardoa
- ▶ Euskal ondarea den edariaren inguruko guztia sustatzen asmoarekin jaio da

IMANOL GALLEGO | ARAMAIO

Sagarra, sagardoa eta haren kultura nahiz turismoa sustatzea. Helburu hori du Bizi Sagardoa elkarte berriak. Lehenbizikoz, Gipuzkoako, Nafarroako, Arabako eta Bizkaiko sagardogileen elkarteek bat egin dute proiektu batean, guztien artean, sektore garrantzitsu honen alde lan egiteko. Horrez gain, eragile publiko eta pribatuen parte-hartzea ere izango du Bizi Sagardoa elkarteak, hainbat udalek eta elkarteek parte hartu baitute proiektuan. Guztira, 67 sagardotegi, 9 udal-gurean Aramaiokoa da bakarra- eta hainbat fundazio, museo, enpresa eta bestelako eragile bildu dira eratu berri den Bizi Sagardoa elkartearen.



Bizi Sagardoa. | TXOMIN MADINA

Bide emankor baten hasiera

"Ilusio handiarekin" agertu da Juan Antonio, Arabako Sagardogile Elkartearen lehendakaria. "Arabian oso gutxi gabiltza saltsa honetan, baina ilusioz gabiltza gure sagardo propioa egiten eta honelako ekimenek bultzada handia ematen digute". Esker oneko hitzak izan ditu elkarte berriaren parte hartzearekin kontaktu dutelako. Ramon Ajuria, Aramaioko alkateak ere "herriarentzat probetxua ateratzeko aukera" bat dela dio. Izan ere, sagardoa eta bere kultura bultzatzeaz gain turismo ekintzak ere egingo dituzte.

Sagardoaren ibilbidea sortzea da elkarte berriaren asmoetako bat. Aramaiok, Astigarraga edo Hernani bezalako herri batzuen aurrean sagardo bolumen txikiago bat ekoizten duen arren, badu zer

ESANAK

"Aramaiorentzat probetxua ateratzeko aukera bat da"

RAMON AJURIA
ARAMAIOKO ALKATEA

erakutsi: "Sagardoaren prozesua, toponimia...", zerronda luzea aipatu zuen Ajuria. Ondoren gainera, bolumen kontuetan sartu gabe, Aramaiok sagardo kontuan duen garrantzia azpimarratzeko, herriaren "36 ekoizle" daudela esan zuen. Argi

dago ekimen berri honetan Aramaiok duen guztia emango duela. Ziur, tradizioz sagardo gune diren herrietatik asko ikasteaz gain, zer irakatsi ere izango duela.

Bizi Sagardoa ekimena hobeto ulertzeko, oso esanguratsua den datu bat eman beharra dago: lehen aldiz Nafarroako Sagardogileen Elkarteak halako proiektu batean parte hartzea erabaki duela. Aretxagaren hitzei kasu eginez, honek agerian uzten du "sagardoa gure herriaren ondarea dela, edari zaharra, euskaldun guztion". Horregatik sagardoa bere garaitik at ere promozionatzeko beharra ikusten du erakunde berriak. Sagardoaren kultura zabaltea "guztionez" delako. Gainera, sektorearen

alde lan egin nahi duen orok tokia izango du Bizi Sagardoa elkartearen. Horregatik Aretxagak argi utzi du "elkarte ireki bat dela eta urtetik urtera hazten joango dela". Argi dago sagardogilerik gabe sagardorik ez litzatekeela egongo, horregatik sortu dute elkarte bateratu hau. Dena den, Bizi Sagardoa ez da lanean hasteko tresna bat, ekoizleak aspalditik baitabilta martxan. Hemendik aurrera, baina, erronkak elkarlanean gaintutuko dituzte.

Bizi Sagardoa elkarteak, gainera, Euskal Herriarentzat sektore garrantzitsuak elkartuko ditu: baserria, baserriarekin lotutako industria eta turismoa. Guztia txotx baten atzean dagoen guztia jakitera emateko.

J.A. ARETXAGA
ARABAKO
SAGARDOGILEEN
PRESIDENTEA

"Ikuspuntu ezberdinetako kideek sortu dugu"

Noiz hasi ziren elkarte hau sortzeko lanak?



2011an elkar-
tea mamitzen

hasi zen. Lehenengo hasi zen Federazioa sortzen, Euskal Herriko Federazioa eta honen helburuetako bat elkarte bat sortzea zenez, biak batera hasi ziren sortzen egia esan. Federazioa abendua aurkeztu zen eta elkarte oraintxe.

Zer nolako elkarte da?

Ikuspuntu eta arlo oso desberdinetako kideak daude elkartearen, besteak beste 67 sagardotegi, 9 udal, hainbat museo, enpresa... kide oso desberdinek osatzen dute elkartearen. Batzuek interes ekonomikoa dute eta beste batzuek, udalek bezala, herri-arentzako interesgarria izan daitekeelako daude bertan, besteak beste turismoa sustatzen dutelako. Aragoi, Nafarroako eta Euskadiko ingeniari agronomoak ere taldean sartu dira laguntzaile bezala, beraz, interes oso desberdinak dira nagusi elkartearen.

Sagardotegira txotx denboraldian bakarrik joaten gara?

Bai, nik uste dut baietz, txotx denboraldian *boom*-a egoten da, baina gero urtean zehar apur bat ahaztuta izaten dugu sagardoa. Maiatzean txotx denboraldia amaitzean, sagardo kontsumoa ere jaitsi egiten da asko, baina esan behar da ere ondorengo hilabeteetan ere kontsumitzen dela eta nahiko portzentaje handian. Urterik urte, geroz eta handiago da portzentaje hori.

Aramaiok beti egin du bere landa produktuen aldeko apustua

Duela hiru bat urte Baserri Barri proiektuarekin ere Aramaiok baserri munduari beste buelta bat eman zion. Sagardogile talde baten ekimena izatetik hasi zen; hasieran denok erabili ahal izango zuten dolare bat erosi zuten, gero pasteurizagailu bat (sagar zukua kontserbatu ahal izateko) eta azkenik herritik kilometro ingurura bi solairuko eraikin bat egokitu zuten lehen sektoreko ekimenak garatzeko.

Badirudi Aramaiok herritar eta baserriarren behar eta eskaerak batzen jakin duela. Argi dago bateratzean dagoela sekretua, bi elkarteetan indarrak batuz arrakasta handia lortu dute-eta.



Baserri Barri fundazioko hasiera emate ekitaldia. | JOKIN BEREZIARTUA



Lubakietan gudariak frontea gogor defendatzen. | AITZIBER ARANBURUZABALA

ELGETA

Memoria berreskuratzeko nahiaz, sekulako ikasgaia atzo Intxortan

Debagoieneko eta Elorriko ehun boluntariok Intxortako fronteko gertakariak irudikatu zituzten atzo

A. ARANBURUZABALA | ELGETA

1936ko urrian eta 1937ko apirilean Intxortako frontean gertatutakoaren simulazio txalogarria egin zuten atzo. Elgetako Udala eta Intxorta 1937 Elkartek gidatuta, ehun lagunetik gora parte hartu zuten, memoria berreskuratzeko

helburu nagusi zuen antzezpen erreala eta gordinean. Intxortako lubakietako gertaerak pirotekniaren laguntzarekin ederto jantzita, Elgetara bitarteko martxarekin borobildu zuten, *Frankismoaren inpunitateari tolerantziarik ez* lelopean.

Ikusleak, memoria goseaz

Juan Ramon Garai Intxorta 1937 elkarteko kidea gustura zen, aspaldiko nahia gauzatzea lortu zutelako, eta baita hesiaren bi aldeetan erakutsitako inplikazioagatik ere. 700 bat lagun batu ziren, horien artean, gazte asko.

Ordezkaritza politikoa, asko: edaletakoak; Legebiltzarkideak, eta alderdi eta erakunde ezberdinetakoak. Herri ekimenetik bultzatutako lana zoriondu eta eskertu zuten guztiek. Harrera ikusita, hurrengo urteetan ere egiteko asmoa azaldu dute.



JOSU ERKOREKA
JAURLARITZAKO BOZERAM.

"Gure historia hurbilean ikasgai garrantzitsuak ditugu eta ona da horiek ezagutzeko, gaurko elkarbizitzarako eta baita etorkizuneko ere nola antolatuta nahi dugun erabakitzeko".



ARATZ GURIDI
GRANADEROA (ELGETA)

"Gerrari buruz zerbait nekien arren, kontu honekin asko ikasi dut. Amak komentatu zidan antzezpena zegoela eta gerra zibila gustuko dudanez, izena eman nuen. Petardoak bota ditut".



AINARA TOTORIKAGUENA
IKUSLEA (ELGETA)

"Oso hunkigarria eta polita izan da. Familian garai hura bizi izan zutenak ditugunez, pertsonalki, sentimendu nahasketa handiarekin jarraitu dut gaurko antzezpena".

Erreportaje osoa:
eskaneatu QR kode hau poltsikoarekin.



ARRASATE

Gazteak inoiz baino gehiago inplikatu dira



Gazte jende pilo bat zen San Andresen, mahaiaren bueltan. | IMANOL SORIANO

L.K. | ARRASATE

Aurtengo ezustea -ona- gazteek eman dute San Andres auzoko jaietan, izan ere, aurreko urteetan ez bezala, gazte mardoa apuntatu ziren auzo bazkarira, zapatuan. Elorriko sukaldariak prestatutako Eusko Labeldun oilasko izterrak, entsalada eta postrea bazkaldu zituzten. Auzo alkatea, Jon Barriocanal, oso pozik zegoen: "Ez nuen espero auzoko gazteak horrela inplikatzeko auzo bazkarian. Euren aldetik asko ipini dute, eta eskertzekoa da".

Bihar, martitzena, kirolak (17:00) eta pintxo poteoa (18:00) izango dira San Andresen. Ekitaldi bereziena eguaztenezan izango da, Aitor Guridi zena, auzo alkate izandakoa, omenduko dutelako. Egun berean, 80 urtetik gorakoendako bazkaria izango da, eta dagoneko iaz baino 10 lagun gehiagok eman dute izena.



ARRASATE ETA OÑATI

IMANOL SORIANO

Produktu piloa, Kubarako

Duela bi hilabete Oñatin Acesma elkarteak Kubarako janari eta higiene produktuak batzen hasi eta gero, egubakoitz eta zapatuan Arrasateko Hiper Eroskin ere produktuak bildu zituzten. Arrasate eta Oñatiko Eroski; Oñatiko Hermansoloña elkarteak; BM eta Dia; Elkar Hezi, Txantxiku eta Urgain ikastetxeak eta Juldain farmazia eskertu nahi dituzte.

ONATI

Murgialdaiko txakolin fresko eta txispaduna gustura edan zuten oñatiarrek domekan

- ▶ Murgia auzoko Murgialdai baserriak Getaria izendapeneko bere txakolina aurkeztu zuen atzo
- ▶ XIX. mendeko ohiturari berriz eustea erabaki eta 2008an hasi ziren mahastiak landatzen

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Freskoa, txinpartaduna eta garratzasun orekatuarekin: horrelakoa da, egileen esanetan, domeka eguerdian aurkeztu zuten Murgialdai baserriko txakolina. Oñatiko gaztelekuan aurkeztu zuten, eta jende asko joan zen bertara. Bukaeran, Murgialdaiko ardotxoa eta pintxoak eskaini zituzten.

Bide emankor baten hasiera

Oñatiko baserri askotan egiten zen moduan, Murgialdai ere txakolina egiteko ohitura zegoen, XIX. mendetik, baina utzita zeukaten, azken urteotan berriz heldu dioten arte. Hain zuzen, 2006an erabaki zuen familiak mahastia berreskuratzea, eta 2008an landatu zuten lehenengo mahats-landare hektarea. Hondarribi Zuri mahatsa ipini zuten, baina bertakoari ere eutsita.

Ekitaldiaren zati bat izan zen Jose Felix Diaz de Tuesta arrasatearrak egindako argazkiek osatutako diaporama baten emaldia, ekoizpen-prozesuaren nondik norakoak azaltzeko.



Ekoizten lagundu zuten guztiak eta beste asko joan ziren domekan gaztelekuko aurkezpenera. | LEIRE KORTABARRIA

ARITZ GALDOS
EKOIZLEA

"Jende askok lagundu du ekoizten: eskerrik asko denei!"

Aspalditik zenuten txakolina egiteko ohitura, ezta?



Bai, Gure baserriaren izaera ere horrelakoa izan da, askotariko produkzioarekin, eta guk mahastigintza utzita izan dugu, baina orain produkzio aldaketa egitea pentsatu dugu eta lehenengo haritik tiratu dugu.

Zelako txakolina da?

Freskoa, bere fruta-gustua-rekin, txispa apur batekin eta garratzasuna nahiko ekilibratuta, nik uste.

Zenbat jende ibili zarete txakolina egiten?

Familia osoa endredatu dut, eta lan handia duen gauza bat da. Eskerrik asko denei!

Non egongo da salgai?

Hasiera baten Oñatiko taberna eta jatetxeetan jartzeko asmoarekin gabilta. Oñatin bertan izan behar da irteera-lekua, hori argi daukagu.

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara



Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18

LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

GARAIZ ZABILTZA!

Bergarako hirigune historikoan
2, 3 logelako etxebizitzak.


- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukalde ekipatuak, logela armairuak

Informazio guztia
gure web orrian.

Sartu eta ikusi



www.promocioneserregetxoplaza.com





Euskaltzaleek eta euskalgintzako ordezkariek ezberdinek joan den egunean egindako bilera, Kulturateko Loramendi gelan. | AMAIA TXINTXURRETA

Herritarrengan euskararen erabilera nola bultzatu aztertzen

AEDko ekintza taldea ateratako ondorioei forma ematen hasiko da laster

A.TXINTXURRETA / J.B. | ARRASATE
Hainbat hilabetetan euskararen erabilerean inguruan gogoetak egiten aritu ostean, joan den egunean AEDko ekintza taldeak bilera berri bat egin zuen, euskaltzaleekin eta gertuko euskaldunekin eurek egindako gogoetak egiaztatze eta euren ekarpenekin horiek osatu eta aberasteko.

Bileraren helburua izan zen abiapuntu horretatik abiatuta, aurrera begira zein lan eremutan eta zein moldetan lan egin beharko litzatekeen aztertzea: "Euskal-

dun denok ez gara berdinak, izaera eta perfil ezberdinak ditugu. Ezin dugu guztiengandik inplikazio bera espero, gure aurreikuspenak perfil ezberdinetara doitu behar ditugu. Perfil horiek kontuan hartuko ditugu zer eska dezakegun baloratzeko", dio AEDko Itxaro Artolak.

Ondorio aipagarrienak

Ondorio hauek atera zituzten, besteak beste: talde naturaletatik eragiteko beharra, norbanakoen jarreretan eta portaeretan ere eragin beharra dagoela, gogoeta

edo esperimentazio talde bat sortzeko proposamena, eta herritik haratago, beharbada eskualde

mailan, gainontzeko euskara elkarteek bat eginez bultzatu beharko litzatekeela euskararen erabilera.

Itxaro Artolak kontatu digu hamar egun barru elkartuko direla lantaldekoak eskuartearen duten materialari forma emateko. Era berean, gaineratu digu pozik daudela prozesu honek eman duenarekin: "Uste dut emankorra izan dela prozesua eta gure lana aberastu duela. Azken batean hori zen bilatzen genuena, asko ikasi dugu eta aurrera egiten lagunduko digu horrek".

ESANAK

"Prozesua emankorra izan da, eta asko ikasi dugu"

ITXARO ARTOLA | AED ELKARTEA



Josean Garcian saioa, Goikobalu abesbatza atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

Maila handiko abeslarienez osatutako gala lirikoak lepo bete zuen Amaia antzokia

J.B. | ARRASATE
Udaberriko Musikaldiaren baitan Ozenki Elkarte Lirikoak antolatutako jaialdi lirikoak arrakasta boro-bila izan zen. Opera eta zarzuela maite dituen herria da Arrasate eta argi geratu zen beste behin: eguna izanda, 650 sarrera inguru salduta. Amparo Navarro, Javier Agullo, Andres Veramendi, Josean

Garcia eta Ana Cadaval izan ziren ahotsa jarri zutenak, Isabella Blezien-en piano doinuez lagunduta. Goikobalu abesbatzak ere lan ederra egin zuen, soprano eta tenoreen ahotsak are indartsuagoak eginez. Txalo zaparradak izan ziren etengabe, kantuak hasi aurretik eta amaitu ostean. Bi ordu inguru iraun zuen jaialdiak.

Azken txanpan sartuko dira San Andres auzoko jaiak

J.B. | ARRASATE

Ekintzez betetako aste bukaeraren ostean, azken txanpan sartuko dira asteen San Andres auzoko jaiak. Luzea izan da asteburua eta gaur oraindik ajearekin esnatuko ziren auzotar batzuk. Baina egitarauak eskaintzen du ondo pasatzeko aukera oraindik; asteburuan Errebueta Kaleko batzordeak antolatutako ekintzek hartuko dute protagonismoa. Etzi, berri, Aitor Guridi zenari egingo dioten omenaldia nabarmendu beharra dago.

EKINTZA AIPAGARRIENAK

MAIATZAK 1

12:00 'Magic the gathering' lehiaketa, Etxaluzen.

12:00 Meza nagusientzat.

13:00 Aitor Guridi auzo alkate ohiari omenaldia Gudari plazan.

14:30 80 urtetik gorakoendako bazkaria Corazon de Encina elkartearen egoitzan.

16:00 Billar lehiaketako finala Pippol tabernan.

16:00 Puzgarriak Bedoñaben.

MAIATZAK 4

18:30 Bikote -krosa. Sari potoloa egongo da irabazleendako.

20:30 Mozorro desfilea Errebueta eta Dr. Bañez kaleetan. Sariak egongo dira.

Egun osoan:

Mozorro-Party Eguna, Errebueta Kaleko komisiok antolatuta.

Sant Jordi eguna, giro ederrean

Urtero moduan, gurean bizi diren kataluniarrek Sant Jordi eguna ospatu zuten apirilaren 20an. Udala auzoan elkartu ziren eta aurten lehen aldiz, euskarazko eta katalanezko liburuak trukatu zituzten bazkaldu aurretik. Bazkalostean, eguraldi ona aprobetxatuz, umeendako jolasak egin zituzten Udalan bertan. Giro ederrean ibili zirela kontatu digute.



JON ETXEBERRIA



Musakolako jai batzordeko kideak, iazko jaien hasieran. | UBANE MADERA

Iban Goñi: "Krisia ez da aitzakia izango jai giroa nagusitu dadin"

Musakolako jaiak antolatzeko diru gutxiago izan arren, auzo alkatea pozik geratu da egitarauarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ate joka ditugu dagoeneko Musakolako jaiak. Auzo alkateak eta jai batzordeak bat egin dute ahalik eta egitaraurik osatuena egiteko, aurrekontua aurreko urteetako baino baxuagoa izan arren: "Krisia ez da aitzakia izango jai giroa nagusitu dadin. Sorpresa antolatu ditugu eta horiez gozatzeko herritarrei eskatu gura diegu kalean egon daitezen", adierazi digu Iban Goñi alkateak. Iaz sartu zen auzo alkateak baina oraingoa izan da jaiak antolatzeko tokatu zaion lehen aldia: "Jesus Mari Apraizi eta jai batzordeari eskerrik beroenak eman gura dizkiet, eurak barik ezingo nuker-

lako antolakuntza lana aurrera eramane. Sekulako taldea dago, ez nuen espero horren jende ona egongo zenik". Nobedadeen artean, DJ Amaiaren saioa aipatu du: "Nerabeendako ez zegoen apenas ekintzarik eta hutsune hori bete gura izan dugu aurten".

Auzorik 'independenteena'

Jaiak domeka honetan hasiko dira mendiko bizikleta martxarekin. Egun potoloenak, baina, maiatzaren 10ean hasiko dira, Erretiratuaren Egunarekin. Arrasateko auzorik *independenteena* gertu dago astoaren umore onak gidatzen dituen urteko egun politenak bizitzeko.

EGITARAU: EKINTZA AIPAGARRIENAK

DOMEKA, MAIATZAK 5

09:00 Musakolako BTT VI. Irteera. Ibilbidea: Musakola, Zubillaga, Bedoña, Musakola, Anporreta eta Musakola. Irteera eta helmuga Ziar-Ola elkartearen. Umeendako bizikleta jaiak ere egingo da goizean zehar.

BARIKUA, MAIATZAK 10

10:00 Kanpai errepika eta suziri jaurtiketa jaiak hasi direla iragartzeko.

11:30 Danborrada Arizmendi ikastolako umeekin.

17:00 Spinning 'Masterclass'-a, kiroldegiko kanpoko aterpean. Begirale adituak egongo dira. Izen-ematea, kiroldegian bertan.

17:30 Txokolata eta opilak 12-17 urte artekoendako. 3-12 urte arteko umeendako tailerrak gazte txokolan.

17:30 Pintxo dastatzea San Antolin eskolan, Ekinen eskutik.

19:00 Ikurrinaren igoera, buruhandiekien eta gaitariakien. Alkatetzatik gozokiak botako dituzte. Orduan jarriko dute txapela eta zapia.

19:30 Auzoko erretiratuendako afaria Al-Andalus elkartearen. Hasiera Musakolako abesbatza taldeak girotuko du.

22:00 Bolo txapelketa bolatokiaren, San Isidro elkartearen ondoan.

23:00 RPL eta Garraxi taldeen rock kontzertua San Antolin plazan. Garai guztietako musika Oñatiko DJ Javi Sound-en eskutik, San Isidro eliza ondoan.

ZAPATUA, MAIATZAK 11

11:00etatik 13:00etara: Scooter eta skate txapelketa bigarren txanda. Amaiera San Antolin eskolan. Lehen txandan San Andresko jaietan jokatu zen.

11:30etik 13:30era: Puzgarriak San Antolin eskolan.

12:00 Umeendako Asto Jaia, San Antolin plazan. Erretiratuaren etxetik irtengo du astoak.

13:30 Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak ematea.

15:00 Herri afaria San Isidro eliza ondoan. Eguraldi txarra eginez gero, aterpean egingo da.

18:00 Koadrilen arteko San Isidro Sokatira Sari Nagusia.

19:00 Arrasate Musikaleko banda gaztearen eta orkestra gaztearen kontzertua Santa Teresa elizan.

23:00 DJ Amaia San Antolin plazan. Kaixo taldearen berbera San Isidro eliza ondoan. Gauerdian: moda desfileak auzoko pertsonaia xelebreekin.

DOMEKA, MAIATZAK 12

11:30 Gimnasia erritmikoko erakustaldia kiroldegian.

11:30etik 13:30era: Puzgarriak San Antolin eskolan.

11:30 Meza nagusia San Isidro elizan. Ondoren, abesbatza eta luntxa San Isidro elkartearen.

14:00 Baserritarrek zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.

22:30 Azken traka *Paseo maritimoa*-n. Suzko errubereak eta sorpresak. Datorren urtera arte.

Askapenaren formazio mintegia Etxaluzen

J.B. | ARRASATE

Askapenak II. Formazio Mintegia egingo du maiatzaren 4an eta 11n. *Herri jantzia, garaipenaren hazia* lelopean, Etxaluzen antolatu dituzte jardunaldiak. Zapatu honetan, maiatzak 4, honako gaiak landuko dituzte, gaian adituak diren hizlariak: inperialismoa (Manuel Navarrate), borroka feminista eta internazionalista (Bilgune Feminista), herri boterea (Iñaki Gil de San Vicente) eta mundu arabiarreko matxinadak eta inperioen kontraerasoa (Martxelo Diaz). 10:00etan izango da lehen saioa eta 18:00etan azkena; saio bakoi-tzak bi ordu inguru iraungo du. Izena emateko formaziomintegia@askapena.org helbidera idatzi behar da; bazkariaren prezioa, 12 euro.

TAO sistema eta zenbait mozio bihar, osoko bilkuran

Apirileko ohiko osoko bilkura egingo da bihar, 18:00etan hasita. Gaien artean, aipagarrienak izango dira TAO sistema behin betiko onartzea eta EAJ zein PSE-EEk Mendekotasunerako Arretaren Hobekuntza planaren gainean aurkeztuko duten mozioa. Azken horri mozio alternatiboa aurkeztuko diote Bilduk eta Aralarrek.

PSE-EE, zahartzaroan dauden pertsonen ahotza ematearen alde

PSE-EEk zahartzaroan dauden arrasatearrei ahotza emateko Hirugarren Adinekoen Kontseilua osatzea eskatuko dio Udalari biharko osoko bilkuran: "Zahartzaroan dauden herritarrak gero eta gehiago dira eta Udaleko erabakietan parte hartzeko aukera gehiago izatea eskatzen dute", adierazi du, besteak beste, Ariz Arrieta bozeramaileak.

Kulturaren egingo du Harrera Elkarteak nazio batzarra

Euskal preso eta iheslari ohieki babesa eman eta laguntzeko sortu zen Harrera Elkarteak nazio-batzarra Arrasaten egingo du, Kulturateko areto nagusian, maiatzaren 11n. Helburua izango da azken urteko elkartearen ibilbidearen gainean informazioa ematea eta gerturatzen diren guztien artean balorazioa egitea.

LEHEN ETA ORAIN



ARRASATE PRESS



JOKIN BEREZIARTUA

Zerrajerako pabiloiak bota zituztenekoa

Arrasate urte gutxian zenbat aldatu den ikusteko beste adibide bat ekarri dugu oraingoan. Arrasateko historian txoko berezia merezi duen Union Cerrajera enpresa ekarri nahi izan dugu gogora. Ia ehun urtez Arrasateri makina bat lan eta ondasun ekarri zizkion enpresa izan zen eta haren amaiera gogoratzeko egin diogu txoko hau. Ezkerreko argazkia 2000. urte hasieran ateratakoa da, urtarriekoa, Zerrajerako pabiloiak eraitsi

zituztenean hartutakoa. Pabiloi guztiak bota zituzten garai hartan, oraindik zutik geratu diren erlojuaren eraikina moduan ezaguna dena eta Aprendices eskolaren eraikina izan ezik. Aurten etxebizitzet osatutako bloke berriak dauden lekuan -Zerrajera kalea hor dago egun- lantegiaren pabiloi ezberdinak zeuden. Hotel Mondragon ere ikusten da bi argazkietan; hotela itxuraldatu dute, baina erakina bera ez da aldatu.

Bergarako eta Gipuzkoako bolo txapelketa, aurtengo Pazkoetan

Herri bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude 15 eurotan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Datorren maiatzaren 17tik 21era ospatuko dira aurtengo Pazko jaiak Bergaran, eta Udaleko kultura sailak prest du dagoeneko egitaraua.

Bolo txapelketa

Ohi denez, Bitorianaxoren jaietsierarekin hasiko dira aurtengo herriko jai nagusiak. Maiatzaren 17an izango da hori, 20:00tan. Segidan, udal musika bandak kalejira egingo du, eta herritarrak jaietaz gozatzeko hasiko dira. Bingo erraldoia, giza futbolina, argazki lehiaketa, urteroko pilota partiduak eta bolo txapelketa dira, esaterako, ekitaldietako batzuk.

Jaietako lehen egunean egingo dute, hain zuzen ere, Bergarako bolo txapelketa. Gauerdian izango da, 24:00tan, eta San Joxepeko bolatokian egingo dute. Herriko Bolo Kirol Klub-ek antolatuta du, eta bolatokia 21:00tatik aurrera egongo da zabalik. Hurrengo egunean, Gipuzkoako bolo txapelketa jokatu dute toki berean, 17:00tan.

Talo tailerra umeendako

Beart elkartearen laguntzarekin, aurten ere egingo dute haur eta gazteendako plastika sariketa. Zapatu goizean izango da hori, San Martin plazan. Sari banaketa, eguerdian izango da. Eta horren aurretik, taloak egiteko tailerra egingo dute umeendako, plazan bertan.

Eta umei lotuta, aurten ere egingo diote ongietorria jaioberriei. Iazko Pentekoste jaietatik aurtengo jaietara bitartean jaio diren bergarar txikitxoei, ekitaldi berezia eskainiko zaie udal txeko osoko bilkuren aretoan.



Joan den urteko jaietako koadrilen eguneko herri bazkarian ateratako argazkia. | GOIENA



Anje Duhaldek Bideberrin joko du maiatzaren 19an, domeka. | GOIENA

Ondoren, argazki bateratua aterako dute udalaren kanpoaldean, artxibo aldeko eskaileretan.

Arratsaldean, errektadore gaztetxoek eta gazteen txapelketa izango da seminarioko zezen plazan. Euskal Herriko errektadoreen ikuskizuna eta errektadore eskola ibiltaria ere jasotzen ditu aurtengo Pazkoetako egitarauak. Haurrendako jolas-parkea, apar festa eta goitibehera txapelketa ere bai.

Herri eta bertso bazkariak

Koadrilen egunerako bazkaria ere antolatu dute aurten. Ohi denez, San Martin plazan izango da, astelehenean, eta eguraldi txarra eginez gero, Labegariaietako kiroldegian prestatuko dute jangela. Bazkarirako txartelak 15 eurotan daude salgai ondorengo toki hauetan: kultura etxean eta Depor, Ariznoa eta udal pilotalekuko tabernetan. Bazkaldu ostean, kafe-kantu saioa egongo da. Eta aurretik, eguerdian, tabernetan arteko herri kirolen txapelketa zezen plazan.

Bestalde, zapatuan, bertso bazkaria egingo dute txosna gunean, txosna batzordeak antolatuta. Alaia Martin eta Aitzol Barandiaran izango dira bertso-lariak. Jaiak hasiko diren egunean, ikasle bazkaria ere izango da Bideberrin.

Irrien lagunak eta Duhalde

Horrez gain, kontzertuak, laburmetrai eta argazki lehiaketak eta baltsa jaietsiera ere jasotzen ditu, bestalde, txosnetako egitarauak. Musikari dagokionez, esaterako, 2zio, Fiachars eta Gozategi taldeek joko dute hilaren 17an, jaietako lehen egunean, eta zapatuan, Gauka, Iheskide eta Kop taldeek. Domekan, berriz, Irrien Lagunak etorriko dira Bideberrira, eta iluntzean, kontzertua egingo du hantxe Anje Duhaldek. Gauean, 23:00tan, II laburmetrai lehiaketa egingo dute. Astelehenean, Emon eta DJ Bull-ek joko dute, besteak beste.

Herrixa Dantzan ekimena, jota eta abesti latinoen kontzertua edo dantzaldiak ere egongo dira aurtengo Pazkoetan.

Lertxundi dator udal pilotalekura hilaren 4an

Ogia egiten ikasteko ikastaroa edo Beart-en eguna ere jasotzen ditu maiatzeko kultura gidak

O.E. | BERGARA

Oroimenaren oraina izeneko diskoaren aurkezpen kontzertua egingo du Benito Lertxundi orio-tarrak Bergaran laster. Maiatzaren 4an etorriko da udal pilotalekura. 21:30ean hasiko da kontzertua eta sarrerak 20 eurotan daude salgai kultura etxean. Lehiatilan ere egongo dira.

Bestalde, DJ jaialdia ere izango da maiatzean Zabalotegin eta baita udal bandaren kontzertuak ere. Gaztetxean, berriz, lau egu-

bakoitzetan egingo dituzte musika kontzertuak, Egubakoitzak Kartzelan ekimenaren barruan.

Argazki zaharren erakusketa

Erakusketei dagokionez, bi jasotzen ditu maiatzeko kultura gidak. Batetik, maiatzaren 3tik 19ra Pol-Pol mendi taldeak antolatu duen argazki zaharren erakusketa. Eta bestetik, urteroko Bergara Hiria argazki lehiaketako lanen erakusketa. Maiatzaren 24tik ekainaren 9ra egongo da



Benito Lertxundi Bergarako orkestarekin 2011ko abenduan. | GOIENA

hori zabalik. Erakusketa biak Aroztegi aretoan egongo dira.

Maiatzaren 5ean, berriz, hiru eta zortzi urte arteko umeendako bertso-antzezlanak egongo da Zabalotegin: 3,2, Zast ... Egizu jolas!

Eta maiatzaren 25ean, Koldo Eleizalde lehiaketako sari-ematea egingo dute udal pilotalekuan Zinemari buruz, zine komertziala eta zinekluba, biak egongo dira datorren hilabetean.

Hiru ikastaro

Bestalde, hiru ikastaro ezberdin antolatu ditu udaleko kultura sailak maiatzerako. Bata, ogia modu naturalean egiten ikasteko ikastaroa da, etxean egindako legamiarekin egindako ogia, alegia. Ogi errezetak aztertu eta hamaiketako eginez ogiari buruzko bitxikeriak ikasteko modua ere izango da. Maiatzaren 25ean izango da ikastaro hori Angiozarko Pagomendi elkartearen Bestalde, ortuzaintza ekologikoari buruzko ikastaroa ere egingo dute Angiozarren. Bizikasik antolatuta izango da, eta plazak mugatuak dira.

Hirugarrena, GPSaren erabileraren ordenagailua izeneko da. Basque Adventureko Iker Osak emango du, maiatzaren 13tik 16ra. Elebitan izango da eta hor ere plazak mugatuak dira.

Bizikletan ibiltzea atsegin dutenek aukera bikaina dute domekero

Mendiko bizikleta gustuko izanda, irteerak egiten dituzte domekero

ANE ETXEBERRIA | BERGARA
Euria, elurra, hotza, beroa... nahiz eta eguraldia eskasa izan, edo primerakoa, domekero-domekero bizikleta hartu eta herritar talde bat *palmera*-n elkartzen da bizikletan buelta bat ematera joateko.

Txirringularitza atsegin dute guztiak, eta, talde txiki bat izatek, hau da, lagun arteko plana

izatetik, talde handi bat sortzera pasa da. Domekero 09:00etan elkartzen dira Ibargarai kaleko *palmera*-n; hortik, taldearen izena. Talde irekia da; hortaz, nahi duen orok parte har dezake irteeretan. Baldintza bakarra hau da: mendiko bizikleta gustuko izatea; eta umore ona izaten bada nagusi, hobeto.

Poliki-poliki taldea osatuz eta

handituz joan da; adin askotarikoko 25 bat pertsonak osatzen dute taldea eta orain dela gutxi webgunea eta jantziak atera dituzte. Horrenbestez, argi dago talde serio eta antolatua dela.

Informazio gehiago nahi duenak taldeko webgunea kontsulta dezake (<http://webdiseinu.es/palmerakuak/>) edo, bestela, domekaren baten *palmera*-n agertu.

Egiten dituzten mendi bueltei dagokienez, denetarikoa dira, batzuk beste batzuk baino gogorragoak eta luzeagoak, baina nork bere erritmora egiten du buelta. Orain arte mendi buelta hauek egin dituzte, besteak beste: Eloorrion buelta, Irimora igoera gogorra, Bergarako hainbat auzo bisitatu, Elgeara, eta beste hainbat.

Domekero izanda, batzuetan talde handia elkartzen da eta beste batzuetan, txikiagoa; parranda zelakoa izan den, nabaritu egiten da taldean; hori ikus daiteke, behintzat, taldearen webguneko elkarrizketetan.

Elurretan ibiltzea ere gustuko dute taldeko zenbait kidek; hori ikus daiteke, behintzat, euren bideoetako baten.

Hortaz, herritar guztiei irekitako domeketarako proposamena eta parte hartzeko dei egiten du Palmerakuak taldeak. Goizeko bederatzietan elkartzen dira, domekero.

'Basque Night Adventure'

Martxa horretan ere parte hartu zuten Palmerakuak taldeak. Zaputuko proposamen horretarako hiru ibilbide zeuden antolatuta, baina, azkenean, ibilbide luzeena bertan behera geratu zen.

Hala, zapatu gaueko hitzordua helduentzako izan zen, baina arratsaldean gazteentzako hitzordua prestatu zituzten gitarra-aren barruan. Hala, Lokatzak antolatuta, 16:30ean, bizikleta jolasak eta Gipuzkoako eskola arteko txapelketa egin zuten, San Martin plazan. Eta 18:00etan, plazatik irtenda, haur, gazte eta helduek elkarrekin itzuli bat egin behar zuten baina azkenean bertan behera geratu zen.

Egubakoitzean 80 pertsonak emanda zuten izena, baina zapatuan bertan ere egon zen izena emateko aukera; izan ere, 19:30etik 21:00etara izenak hartzen ibili zira antolatzaileak Agorrosinen. Federatuek 15 euro ordaindu behar zituzten; federatuta ez daudenek, aldiz, 20 euro

Kartutxo guztiak, baina, ez zituzten asteburuan erre, astelehenean (19:00etan, Irizar jauregian) *Polonia* diapositiba emaldia egingo dute-eta.



Palmerakuak taldea jantzi berriein. | PALMERAKUAK

Maiatzean batzartuko dira ikasleak udal ordezkariekin Agenda 21en barruan

Aurten hondakinen gaia aztertzen ari dira eta horren harira etorkizuna hobetzeko dituzten ideia eta iritziak partekatuko dituzte agintariekin

M.B. | BERGARA
Bergarako eta Oñatiko ikasle eta irakasleek pauso sendoak eman dituzte Eskolako Agenda 21en bidean ikasturtean barrena. Azken hilabeteetan, hondakinen inguruko diagnostikoa egin ahal izateko bi saio egin dituzte: *Ikasi* saio teorikoa eta *ikus* saio praktikoa egin dituzte. Haur Hezkuntzan hasi eta Batxilergora arte, ikasleek eskualde eta udalerriko egoera ezagutzeko datuak eskuratzeko izan da saio horien helburua.

Hori horrela, haur eta gazteek etorkizuna hobetzeko proposamenak sortu dituzte, eta baita konpromisoak hartu ere, maiatzean udal arduradunekin partekatuko dituzten proposamen eta konpromisoak, hain zuzen ere.

| Bergara eta Oñatiko Eskolako Agenda 21a buletin digitala 2013ko apirila | Agenda 21 Escolar de Bergara y Oñati buletin digital abril del 2013 |
|---|---|
| Hilabete hauetan egindako lanaren oinarri jasotzen hasi gara. Bergara eta Oñatiko ikasleak hondakinen inguruko diagnostikoa egin dute, eta orain, herritarren ideia hobetzeko hainbat proposamen eta konpromisoak ditugu eskuratuak. Hurrengo pausua, udal ordezkariak proposamenak berri emateko izango da. Egin dezagun bideak! | ¡Hemos empezado a recoger el fruto del trabajo realizado en los meses de invierno! Después de haber en el diagnóstico de los residuos, el alumado de Bergara y Oñati ha presentado una serie de propuestas para mejorar la situación del municipio, así como compromisos que deberán ser asumidos. El próximo paso consistirá en presentar dichas propuestas a los representantes municipales, siguiendo caminos. |
| Taldea guztiak Bergara eta Oñatiko ikasle eta irakasleek osatzen dute Eskolako Agenda 21en bidean. Hurrengo pausua, udal ordezkariak proposamenak berri emateko izango da. Egin dezagun bideak! | Este es el resultado de los trabajos realizados en los meses de invierno. Después de haber en el diagnóstico de los residuos, el alumado de Bergara y Oñati ha presentado una serie de propuestas para mejorar la situación del municipio, así como compromisos que deberán ser asumidos. El próximo paso consistirá en presentar dichas propuestas a los representantes municipales, siguiendo caminos. |

Buletinaren irudia.

Laguntza hartu eta eman

Ikasturtean zehar hondakinen gaian sakontzeko ekintza osagarriak ere egin dira: irakasleei

eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako formazio saioak antolatu dira, eta baita Lehen Hezkuntzako haurrentzat sortu-

tako jolas ludiko didaktikoak ere.

Hori guztia egin ahal izateko, zentro bakoitzeko koordinatzailearen lana funtsezkoa izan da.

Zubiak eraikiz

Orain arte ikastetxe barruan egindako lana handik kanpora aterako dute. Hain zuzen ere, erabakiak hartzeko prozesua ulertzeko eta herriko plangintzan parte hartzeko, ikastetxetik udaletxera joango dira. Modu horretan, herriko gazteen ideiak eta iritziak udal ordezkariari helaraziko dizkiete. Hain zuzen ere, maiatzean batuko dira ikasleak udal ordezkariekin, eta, euren proposamenen berri ematearekin batera, konpromisoak hartzeko ere eskatuko diete udal arduradunei.

Apirileko buletina, kalean

Agenda 21eko Bergarako eta Oñatiko ikasleen apirileko buletin digitala dagoeneko kalean dago.

Buletin hori www.bergara.net helbidean dago eskuragarri, PDF formatuan.

Goitibehera lehiaketako izen-ematea zabalik dago

M.B. | BERGARA
Hitzordu finko bilakatzen ari da Pentekoste jaietan jokatzeko den goitibehera lehiaketa. Aurten laugarren urtez jarraian jokatu da, maiatzaren 19an, ohi bezala, Pentekoste jaietako domekan.

16:00etan jokatu da txapelketa, nahiz eta pilotuek 15:00etarako egon beharko duten San Martzialerako maldan, eta Euskal Ligarako puntuagarria da.

Izen-ematea zabalik dago

Interesa duten guztiak har dezakete parte. Horretarako, 679 31 62 72 edo 943 76 07 47 telefono zenbakira dei egin dezakete (Irene). Izen emateko azken eguna maiatzaren 13a izango da.



Ibilbide gorria aukeratzen dutenek, Berezaio auzotik egingo dute itzulerako bidea. | MIREIA BIKUÑA

Bizi-ohitura aktiboak sustatzeko hiru ibilbide herritarren eskura

Maiatzaren 13an, 15ean eta 17an egingo dituzte, 10:00etatik 11:30era arte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Begirale baten laguntzarekin, herriko hiru ibilbide egiteko egitasmoa aurkeztu zuten abenduan, Oñatiko osasun etxea eta Udalak. Helburua zen, 65 urtetik gorako pertsonen artean ariketa fisikoa sustatzea. Orduan egindako deialdiak ez zuen nahikoa erantzun izan, eta orain, beste deialdi bat egin dute herritarren artean. Maiatzeko hiru egunetan -13an, 15ean eta 17an- hiru ibilbideak egingo dituzte. Egunero bat. Adineko pertsona sedentarioetan ariketa fisikoa sustatzea helburu duen Tipi Tapa programaren fase berri bat da.

Oztoporik gabekoak

Tipi Tapa ibilaldiak oztoporik gabekoak dira. "Bizi-ohitura akti-

boak sustatuz, pertsonen osasun maila hobetzeko asmoa daukagu. Horretarako, hiru ibilbide seinaleztatu ditugu", esan digu Oskar Carrascal kirol teknikaririk. Pro-

gramaren aurkezpenean esandako moduan "helburua da era egokian ibiltzen eta ariketa fisikoa egiteko kalean dauden aparailuak ondo erabiltzen ikastea eta bakarrik

DATUA

3

IBILBIDE

Horiek dira bizi-ohitura aktiboak sustatzeko proposatzen dituzten ibilbideak. Zailtasunaren eta luzeraren arabera, koloreka sailkatu dituzte: berdea, urdina eta gorria.

ESANAK

"Pertsona nagusien osasun maila hobetzeko seinaleztatu ditugu hiru ibilbideak"

OSKAR CARRASCAL | KIROL TEKNIKARIA

paseatu behar dutelako etxean geratzen direnak ariketa fisikoa egitera animatzera".

Izenak, maiatzaren 8ra arte

Ibilbide horietan parte hartu dezakete autonomia mugatua duten 55 urtetik gorako oñatiarrek. Hiru ibilbide egingo dituzte: berdea, 2,702 metrokoa, maiatzaren 13an; urdina, 3.476 metrokoa, maiatzaren 15ean; eta gorria, 5.307 metrokoa, maiatzaren 17an. Ibilbideak Foru plazan hasiko dituzte 10:00etan, eta postetxearen alboan dagoen hirugarren adinekoendako kirol parkean bukatuko dituzte, 13:30ean.

Interesatuendako zabalik dago izena emateko epea: maiatzaren 8ra arte egin behar da osasun etxean, kiroldegiko sarreran edo Pake Leku elkartearen.

Berdea, urdina eta gorria

Ibilbide berdea Foru plazatik Ota- dui Zuhaiztian dagoen Urbieta baserriraino doa. Ibilbide laua, Unibertsitate paretik Lizaur kalea gurutzatu eta erreka ondotik Kasablankarako bidea hartuta. Otadui Zuhaiztiko lehen zatia ezkerreko espaloitik egin behar da, eta Kasablankako etxe berrietatik, eskuineko espaloia erabilita.

Ibilbide urdina aukeratzen dutenek Foru plazatik Eteo zahar- rerrainoko bidea egingo dute. Alegia, Kale Barria, Lazarraga, Bidaurreta, Olakua, San Lorentzo eta Ugarkalderainoko joan-eto- rria.

Ibilbide gorria da zailena. San Martinetik gora hartuta, Tokillo- ko errotrairaino joango dira. Itzule- ra bidea, Santa Lutziko ermitatik behera egingo dute. Berezaio, Natra Oñati eta Arantzazuko Ama kaletik pasata. Atzeko kaletik Foru plazara helduko dira.

Informazio-orriak

Hiru ibilbideak batzen dituen informazio-orrietan zehazten dute ibilbide bakoitza nondik egin behar den: errepidea non gurutzatu, ze espaloi, zebra-bide edo biribilgune erabili, noraino joan ... Triptiko horiek kiroldegian, Pake Leku eta osasun etxean eskuratu daitezke.

Auzoetako jaien tramitazioan aldaketak

M.B. | OÑATI

Auzoetako jaiak ospatu ahal izateko Udalak ematen dituen baimenen tramitazioa aldatu egin da. Aurten, herri guneko kaleen jaietako baimenak Kultura departamentuak emango ditu, eta auzoetako jaietakoak Auzoak eta Landa Garapena departamentuak. Oraingoz baimena jaso dute Olabarrieta, San Migel Txiki, Kasablanka eta Errekaldeko jaien antolatzaileek.

Iazko abenduaren 20ko osoko bilkuran Auzotasun Programaren oinarriak onartu zituzten. Oñatiko 16 landa auzoen artean banatzeko partida aurreikusten zen. Diru hori, besteak beste, auzoetako jaietara bideratzea aurreikusten zuten. Partida horretatik jasoko du laguntza Olabarrietako batzordeak.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin dute

M.B. | OÑATI

Udalak errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin du. Informazio osoa jasotzen duten triptikoak etxeetan banatu dituzte. Ekainaren 25era arte egingo diren aitortpen mekani- zatuak, internet bidezkoak edo autolikidazio proposamenak euskaraz egiteko deia egin dute herritarren artean. Norberak aukeratzen du aitortpena euskaraz egin gura duen. Iaz, oñatiarren %19k egin zuen aitortpena euskaraz. 2007tik bikoiztu egin da portzentajea: Orduan %8k egin zuen.

Auzo-konpost guneen inaugurazioa

M.B. | OÑATI

Bihar eta etzi ipiniko dituzte martxan auzo-konposta egiteko lau gune: Bidebarrieta (18:30) eta Zubibarrikoa (19:30) bihar; eta martitzenean, Ugarkalde (18:30) eta San Lorentzokoa (19:30). Ekitaldi horietan udal ordezkariak eta auzo-konposta egiteko izena eman duten herritarrek parte hartuko dute. Azken horiek gainera, auzo-konposta egiteko erabiliko beharreko kuboak jasoko dituzte.

Olakuako eta Errekaldeko guneak, hurrengo astean inauguratu gura ditu Udalak.

Lehen zintzilikarioak ipini dituzte

Atez atekorako lehen zintzilikarioak ipini zituzten aurreko astean. Hain zuzen ere, Kalegoienako biribilgunean ipini dituzte bi. Datozen egunetan, herriko gainerako lekuetan ipiniko dituzte. Zintzilikarioen behin betiko kokaguneak ikusgai egongo dira Santa Ana aretoko beirtean, gaurtik.



IBAN MORALES

Udalekuetako begiraleendako oharra

M.B. | OÑATI

Udaleku irekietarako kontratatuko dituzten begiraleen zerrenda ikusgai dago udal- txean. Erreklamazioak aurkezteko, eskaerako dokumentazioa osatzeko edo maiatzean egingo dituzten formazio saio- taria joan ezin direla jakinarazteko azken eguna, bihar, martitzena da. *Milakolore* udalekuak prestatzeko kontratatuko dituzten begiraleek lau formazio saio egingo dituzte: maiatzaren 11, 18 eta 25ean, eta ekainaren 29an. Udalekuak uztailaren 1etik 26ra izango dira.

ARETXABALETA

Aurrera dihardu hiri hondakinen eztabaidak

- ▶ Bosgarren edukiontzia erabiltzeko deialdia egin dute azken egunotan
- ▶ Bihar, martitzena, egingo dute hirugarren bilera informatiboa

MIRIAN BITERI | ARETXABALETA

Aretxabaletan hiri hondakinen kudeaketarekin lotutako esku orriak banatu dituzte azken egunotan etxeetan. Horietan gaikako bilketaren alde eta atez atekoaren kontra dauden aretxabaletarrei dei egiten zaie bosgarren edu-

kiontzia erabiltzaile egiteko. Hiru arrazoi ematen dituzte 5. edukiontzia aldeko taldeak izena emateko: gaikako bilketa ahalbideratzen duelako, ordutegirik ez duelako eta merkea delako. Gogorazten dute Arkupen eman behar dela izena.

Herriko kultura etxekoek jakinarazi digute jende asko hurbildu dela Arkupera, eta "nahasmena" ere sortu duela esku orriak. Askok uste zuten atez atekoaren kontra sinatzeko deialdia zela, eta ez edukiontzia marroiaren erabiltzaile egiteko. Horrekin batera, gogorazi dute hondakin organikoak batzeko edukiontzia erabili ahal izateko aurretik Arkupetik pasa beharra dagoela, funtzionamendua ezagutze aldera.

Batzar bi asteon

Bosgarren edukiontzia aldeko taldeak kanpaina berria egiten duen bitartean, Udalak sustatutako Hondakinen Mahaiak bilera informatiboekin jarraituko du. Bihar, martitzena, *zero zabor* eta 5. edukiontzia aldekoek osatutako taldeak batzarra egingo dute, 18:00ean; eta eguenean, industriako kideen txanda izango da, 18:30ean. Arkupen dira biak. Hondakinen arazoaren nondik norakoak azaltzen dituzte bilerotan, arloka.



Edukiontzia marroiaren erabilera sustatzea eskatu dute. | IMANOL SORIANO



Komediaren pasarte bat | AITOR AULESTIARTE

'The Full Monty' filmaren antzerki moldaketa dago bihar Arkupen

M.B. | ARETXABALETA

Txintxaun Kolektibo antzerki talde bizkaitarrak *The Full Monty* izeneko antzezlan aurrekeztuko du bihar, martitzena, Aretxabaletako Arkupeko Zariaia aretoan. Emanaldia 22:00etan hasiko da, eta horretarako sarre-
rak lau euro balioko du.

Izenburu bereko filma eza-gunaren antzerki moldaketa horrek 70. hamarkadan Britain Handiko iparraldeak jasandako langabeziaren arazoa jorratzen du. Rosa Martínez Alcocerrek gidatutako emanaldian honako aktoreek hartzen dute parte: Andoni Ruiz, Aitor Aresti, Aitor Berrio, Fore Perez Oliver, Aitor

Pareja, Joseba Romero, Raul Perez Oliver, Alizia Otxoa, Izar Narbaiza, Maite Lopez eta Sardo Irisarrik.

'Striptease' ikuskizuna

Komedia dramatiko da, protagonistak sei langabe dira, eta duintasuna berreskuratzeko egingo duten ibilbidea islatzen da horretan. Hain justu ere, Gaspar protagonista Jon izeneko semea ikusteko eskubidea galduko du pentsioa ordaintzeko enplegua ez badu lortzen. Horren aurrean, *striptease* ikuskizuna osatzea bururatzen zaio, langabezia dauden beste bost lagunekin batera.

ESKORIATZA-ARETXABALETA

Zabalik dago nagusiendako udako egonaldiatarako izen-ematea

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal gizarte zerbitzuak nagusiendako udarako aldi baterako egonaldiak gertatzen dabiltza, eta zabalik dago izena emateko epea.

Aurtengo udako denboraldia hiru hilabetetan banatu dute. Uztaila aukeratzen dutenek maiatzaren 17a baino lehen eman behar dute izena; abuztukoek, maiatzaren 31 baino lehen; eta irailekoek, ekainaren 14a baino lehen. Eskaerak udal gizarte zerbitzuetako bulegoetan jasoko dira. Bada, Eskoriatzatik jakinarazi dute interesatuek aurrez

hartu behar dutela txanda, 943 71 31 36 telefonoan.

Gizarte zerbitzu biek nabarmendu dute plaza kopurua mugatua dela, eta, hortaz, aipatutako epeetatik kanpo jasotzen diren eskaerak hutsik gertatzen diren plazan arabera eta horien ezaugarrien arabera onartuko direla.

Plazen esleipena

Bestalde, plazen esleipenak honako epeetan jakinaraziko dira: uztaileko egonaldia, ekainaren 12an; abuztukoena, ekainaren 28an; eta irailekoena, uztailearen 12an.

Gaur hasiko dute 15 lagunek lan aktibaziorako ikastaroa, Arkupen

M.B. | ARETXABALETA

Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik, lan aktibaziorako ikastaroa hasiko da gaur Arkupen. Aretxabaletako eta Eskoriatzako 15 lagunek parte hartuko dute maiatzaren 20ra arte iraungo duen ikastaroan.

Lehen hiru saioetan, lana bilatzeko teknikak aztertuko dituzte; eta hurrengo bi aste-

tako saioetan, Interneten lana zelan topatu ikasiko dute; Aretxabaletako KZgunean izango dira eskola horiek.

Autoenplegua

Ikastaroaren azken saioa, berriz, autoenpleguari buruzkoa izango da. Guztiak goizez izango dira eta hiru orduko iraupena izango dute.

ESKORIATZA



Joan den urteko Aitzorrotz eguna. | GOIENA

Aitzorrotz eguneko bazkarirako txartelak salgai, maiatzaren 2ra arte

M.B. | ESKORIATZA

Astebete eskas baino ez da gertatzen Aitzorrotz kultura elkartearen egunerako, eta herri bazkarirako txartelak erosi gura dituztenek egubakoitzera, maiatzak 2, arte dute aukera, Inkernun, Goxo Txikin eta Aldatzen. Bi menu dituzte aukeran: helduendako, marmitakoa, perretxikoz betetako solomoa, pastela eta kafea, 15 euroren truke; eta umeena, makarroiak, haragi-bolak eta izozkia, 10 eurotan.

Egitarau zabala gertatu dute maiatzaren 4rako: 11:45ean, txistulari eta buruhandiek kalejira egingo dute herriko kaleetan, eta ordu laurden geroago, sagardo eta

talo postuak zabalduko dituzte; Sarasola, Petritegi, Lizeaga, Larrarte eta Iparragirre sagardoak dasatu ahal izango dira.

Alberdi eta Silveira

Bertsolariak ere izango dira: Uxue Alberdik eta Xabier Silveirak saioa eskainiko dute, 13:00etan, plazan; eta hori amaitzean, bertso-triki poteoa hasiko dute. Bazkaldu ostean, 17:30ean, Potx eta Motx pailazoaren emanaldia izango da plazan.

Musika ere izango da: 18:00etan, Menim eta Balerdi Balerdik joko dute Inkernu parean; eta 22:30ean, Never Surrenderren kontzertua egingo da toki berean.

Autoenpleguaz ez dute berba egingo bihar

M.B. | ESKORIATZA

Bihar, martitzena, autoenplegu eta ekintzaitetasuna sustatzeko egitekoa zen hitzaldia bertan behera utzi dute. Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako berbaldia da, eta, hortaz, bailarako beste hainbat herritan egingo da.

Maiatzaren 7an, Arrasateko Etxaluze jauregian izango da berbaldia, 15:00etatik 18:00etara, gaztelaraz; 14an, Bergarako Irizar jauregian, ordu berean, baina euskaraz; 20an, Aretxabaletako Arkupen, 10:00etatik 13:00etara, gaztelaniaz; eta 28an, Oñatiko Zubillagako Olaburu zentroan, arratsaldean eta euskaraz.

Ariketa egitearen garrantziari buruzko hitzaldia dago asteon

Eguenean, *Ariketa eta ohituraren onurak nagusientzako* hitzaldia eskainiko du Josu Larreategik, 19:00etan, kultura etxean. Osasun Astea en bueltan, zaharren egoitzan egin zuen berba horretaz.



Haurrak gurasoekin batera Saroa Bikandiren ipuina entzuten. | LARRAITZ ZEBERIO.



Tximeleta hegalaria egin zituzten saioan. | L.Z.



Sarola Bikandi ipuina kontatzen. | L.Z.

ELGETA

Ipuinak, abestiak eta eskulanak izan ziren protagonista Sarola Bikandiren saioan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zapatu goizean, Udalak antolatuta, ipuin kontalari saioa egin zuten Sarola Bikandik liburutegian. Gurasoen laguntzaz hamabost neska-mutiko elkartu ziren ordubeteko saioan ipuinak entzun, abestiak ikasi eta eskulan txiki bat egiteko.

Saio integrala izan zen, adar oso ezberdinak jorratu baitzituen Bikandik. Ilustrazioen bitartez udal liburutegiaren funtziona-

mentuaren inguruko azalpenak ere eman zizkien ipuin kontalariak haurrei, eta bide batez gurasoei.

Saio dinamikoa

Tximeleta belarriak, *Baba erraldoiak* eta *Txita polita* ipuinak kontatu zituen Bikandik, baita Kutxa Magikotik ateratako bizpahiru olerki ere. Kantuan ere egin zuten neska-mutikoekin, eta eskulan txiki bat ere bai: txime-

leta hegalaria bana egin zuten haurrek, eta etxera eraman.

Gurasoen parte hartzearekin

Gurasoek ere saioan parte-hartzea eskatzen du Bikandik. Hala, zapatuan, hamabost haur eta bederatziguraso elkartu ziren liburutegian. Gustura irten ziren guztiak. Ikusteko dago orain saioak jarraipena izango duen, eta beste herrietan moduan talde finko bat sortzen den.

LEINTZ GATZAGA

Konponketa tailerra eta mendi irteera asteburuan, Gurelen eskutik

Maiatzaren 4an da konponketa tailerra, eta hurrengo egunean Atxorrotzera irteera

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gurel elkarteak bi ekitaldi antolatatu ditu datorren asteburu honi begira. Konponketa tailerra da lehena, zapatuan egin gura dutena. "Bi boluntario egongo dira eramaten direnak konpontzen; izan ahal dira jostailuak, bizikletak, patinetak, baloiak... etxean izaten ditugun horiek", zehaztu

dute elkartetik. Plazan antolatuko dute konponketa tailerra, 11:00etan hasita; eta azpimarratu dute beharra duen edozeinek eraman ditzakeela konpondu beharrekoak, aldeztu aurretik izena eman behar barik.

Domekan, berriz, Atxorrotzera mendi irteera izango dute la gogora ekarri dute Gureletik.

Eta hitzordua ere zehaztuta dute: "10:00etan plazan, denok batera joateko. Kasu horretan ere ez dago aldeztu aurretik izena eman beharrik".

Ekainean, dantzarako aukera

Bestalde, iragarri dute dagoeneko ekainera begira ere badabiltzala ekitaldiak antolatzeko orduan; besteak beste, dantza ikastaroa antolatzea pentsatzen dabilta: "Sanjuanak dira, eta asmoa da suaren bueltan dantza egiteko ikastaroa egitea. Joserra Perezek gidatuko du. Baina hemendik eta ekainera bitartean zehaztuko ditugu egunak, orduak eta baita lekua ere".

ARAMAIO

Kamioi batek istripu ikusgarria izan zuen Aramaiorako bidean, egubakoitz goizean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Egubakoitz goizean istripu ikusgarria izan zuen kamioi batek Aramaiora bidean, A-2620 errepidean. 11:30ean gertatu zen ezbeharra; Arrasatek Aramaio Ibarra auzora heltzeko azken bihurgunean irten zen kamioia errepidetik.

Scania markako kamioi bat izan zen errekarari erori zena; argazki ikusgarria utzi zigun.

Istripuaren ondorioz, 52 urteko kamioi gidaria arin zauritu zen eta Arrasatera eraman zuten, Debagoieneko Ospitalera.

Kamioia errekatik atera

Kamioia errekatik ateratzeko lanek errepidea oztopatu zuten zenbait orduz eta gidariak tentuz gidatu behar izan zuten. Hala ere, egoera egunean bertan bueltatu zen normaltasunera.



Kamioia errekan A-2620 errepidean, egubakoitz goizean. | JONE INUNZIAGA

'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimenean parte hartzeko aukera egongo da ekainaren 30era arte

Topaguneak antolatutako *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena joan den apirilaren 23an jarri zen abian, ekainaren 30era arte. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu egitasmoak: liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartuz gero eta itzultzerakoan liburuazainak emandako fitxa beteta, erosketa txartela jasoko du irakurleak Arrasate ala Gasteizko Elkar dendetan liburu hori bera ala euskarazko beste edozein erosteko. Gero, irakurleak beretzat gorde ala oparitu ahal izango du liburua hori.

ANTZUOLA

Informazio panel berriak herriko hainbat kaletan

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Udalak herritarrekin komunikazio zubi berriak eraikitzeko hartutako konpromisoarekin jarraituz, panel informatzaileak jarri ditu herriko hainbat kaletan. Bi motatako panelak jarri ditu Udalak: irekiak, herritarrek erabili ahal izango dituztenak orotariko informazioa eskaintzeko, eta itxiak, Udalaren esku

geratuko direnak. Azken horietan, herriko eta Udaleko berriak, jakinarazpenak, agenda... mota horretako informazioa jartzeko izango dira.

Kokapenari dagokionez, panel irekiak Eguzki auzoan, Sagastin, Kalegoien eta Antigan daude. Panel itxiak, berriz: erakpen gunean, Kalebarrenen, Sagastin eta Kalegoien.



Udalak jarriko panel informatzaile berriak. | LANE ETXEBERRIA.

LASA JATETXEA

Zure ezkontza ospatzeko leku paregabea!



Ozaeta jauregia,
Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Bisita gaitzazu
www.restaurantelasa.es



- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Beharrezko hiru puntuak lortu zituen Mondrak atzo arratsaldeko partiduan

- ▶ Partidu gogorrean 2-1 gailendu zen etxeko taldea
- ▶ Berioko jokalariek aukera onak ere izan zituzten

| EMAITZA |
|------------|
| MONDRA |
| 2-1 |
| BERIO |

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Atzo arratsaldean Mojategin egiten zuen hotzak ez zituen jokalariek izoztu, 90 minutuan gogor eta energiaz jardun zuten Arrasateko jokalariek asko baitzuten jokoan partidu honetan.

Lehenengo zatia oso indartsua eta interesgarria izan zen. Mondrak izan zuen baloiaren jabetza eta jokaldi oso politak eraman zituen aurrera. Ander Ruiz de Azua atezainak ez zuen lan askorik egin behar izan, bere taldekideek dena eman baitzuten donostiarren areara behin eta berriz hurbiltzeko.

Lehenengo gola nahiko goiz iritsi zen, 15. minutuan, Julen Zaitegik sartu baitzuen. Korner baten ondorioz sartutako gola

FITXA TEKNIKOA

Taldearen izena: Ander Ruiz, Markel Crespo, Kevin Barranca, Andres Castillejo, Jon Zabaleta, Mikel Gonzalez, Andoni Aizpurua, Asier Manso, Julen Zaitegi, Gorka Duñas, Iker Pavón,

Taldearen izena: Javi, Aimar, Morti, Garate, Oñate, Xabi, Beraza, Axi, Pika, Villena, Garmen, Angel, Beñat, Calafell, Pablo, Guariste

Beste: Hotza egiten bazuen ere, jarraitzaileen animoek giroa berotu zuten.

izan zen. Hortik gutxira donostiarrek aukera bikaina izan zuten, baina protestaz amaitu zen guztia. Ondorengo minutuetan gogor aritu zen Mondra, aukera bat baino gehiago izan zuen, baina ezin. 30. minutuan txartel horia Mondraren aurka, hortik minutu gutxira Berioaren aurka eta 36. minutuan, korner baten ondoren talde donostiarraren gola iritsi zen Garmendiaren eskutik. Hurrengo jokaldiak arriskutsuak izan ziren bai talde batentzat bai

bestearentzat. Azkenean, lehen zatia banakoarekin bukatu zen.

Aldaketa ugari izan ziren partiduan eta baita txartel hori asko ere. Baina hala ere, Mondrak urduritasun apur batekin bada ere, indartsu ekin zion bigarren zatiari. Berioko jokalariek ere gogotsu atera ziren zelaira. Hala ere, 5. minutuan jokaldi eztabaidagarria izan zen nagusi, Mondrak penaltia eskatu zuen, baina arbitroak ez zuen ezer ikusi.

Bigarren zatian indarrak nahiko orekatuak izan ziren, minutu batzuetan Berioko jokalariek indartsuago jardun zuten eta beste minutu batzuetan Mondrakoek. Baina azkenean, partidua amaitzeko minutu gutxiren faltan, Markel Gonzalezek garaienaren gola sartu zuen. Jokaldi polit baten ondorioz etorri zen gola. Poza eta indarra ematen duten gol horietakoa izan zen.

Sailkapenari begira partidu oso garrantzitsua zen atzokoa eta eginbeharrekoak ondo eginiko sentazioarekin abiatu ziren aldagiletara jokalariek. Datorren astean Hondarribiren aurka jokatzen dute: beste final bat.



Partiduko jokaldietako bat. | JOSETXO ARANZABAL



Mondra presionatzen aritu zein behin eta berriz. | JOSETXO ARANZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Bederatzi jokalariren aurka ibili arren, ezin punturik atera

Gol aukera gutxiko partiduaren ostean, punturik gabe geratu ziren etxekoak

| EMAITZA |
|------------|
| BERGARA |
| 0-1 |
| TOLOSA |

A.E | BERGARA

Eguraldiak ez zuen lagundu zapatuan Agorrosinen jokaturako partiduan; horren eraginez edo, ezintasuna nagusi izan zen talde bergararren. Partidu osoan 3-4 aukera oso garbi izan bazituzten ere ezin izan zuten gola sartzerik

izan. Tolosako jokalariek, aldiz, gol bakarra sartu zuten Martinezen eskutik. Lehen zatian sartu zuten partiduko gol bakarra.

Partidu kaskarra izan zen zapatukoa, gauza ezer gutxi gertatu zen 90 minutuetan, nahiz eta bi tolosar kanporatuak izan ziren 70. eta 89. minutuetan.

Denboraldia amaitzeko gutxi falta da, eta etxekoek ez dute ezer irabazteko edo galtzeko, hortaz, motibazio txikiarekin daude jokalariek. Tentsioa mantentzen saiatu beharko dira mahoneroak, azken partiduetan irudi ona ema-

tea nahi badute behintzat.

Asteburuko partiduen ostean, sailkapenak nahiko berdin jarraitzen du. Izan ere, lehen bi postuetan dauden taldeek, Oiartzun eta Hernanik, lanak ongi egin eta euren partiduko irabazi dituzte. Hala, Oiartzunek lider izaten jarraitzen du 69 punturekin eta Hernanik bigarren postua mantentzen du 67 punturekin.

Bergarako taldeak lasaitasun postuetan jarraitzen du. Hurrengo partidua Real Unionen aurka izango du. Irundarrak hirugarren postuan daude.



Bergarako jokalariek zapatuko partiduan. | I. SORIANO

GIMNASIA ERRITMIKOA | Kimu eta Haur mailek erakustaldi polita egin zuten | 26



Partiduko momentu batean UDAko jokariak. | JOSETXO ARANZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Garaipena lortu zuen UDAk nahiz eta partidu gorabeheratsua jokatu zuen

3-1 irabazi zuten etxekoek nahiz eta lehenengo zatian makal ibili ziren. Bigarren zatian indartsuago atera eta garaipenaren alde borrokatu zuten

A.E | ARETXABALETA

Lehenengo zatia nahiko makala izan zen. Aurrera taldeak 3-4 aukera on izan zituen, baina gol bakarra sartzeko kapazak izan ziren. UDAko jokariak, baina, erreakzionatu egin zuten eta Perezen eskutik partidua berdindu zuten lehen zatia amaitu baino lehen. Bigarren zatia desberdina izan zen, etxeko jokariak motibatuta atera ziren eta lan handia egin zuten zelaian.

Epaileak aurkarien taldeko kide bat kaleratu zuen eta horretaz aprobetxatuz, bat gehiago zirela ikusirik, gogor ekin zioten partiduari. Azkenean, lan handiaren ondoren, Sanchezek bigarrena sartu zuen, eta ondoren, Oruetaren eskutik, partidua sententziatu zuen gola iritsi zen.

Entrenatzailea pozik azaldu da, nahiz eta "hasieran partidu kaskarra egin dugun, bigarren zatian txipa aldatu eta lanaren emaitza lortu dugu, gainera

hamarren aurka jokatzeko errazagoa izan da guztia".

Hurrengoa Zarautzen

Datorren astean Zarautzen izango dira UDAko jokariak. "Mintuta hainbat jokari ditugu, hortaz, ez dakit nola ibiliko garen. Egia esan, urtea amaitutzat ezin dugu eman, baina dagoeneko ez dugu asko jokatzeko gure helburua hirugarren postuan amaitzea izango da", zioen entrenatzaileak.



Donostiarrek ez zuten amore eman. | JOSETXO ARANZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Partidu estu baten bukaeran, 1-2 galdu Aloñak

Real Unionek dominatu zuen partidu ia osoa, baina 15 minuturen faltan, oñatiarrek berdinketaren gola egin zuten. Azken 5 minutuetan, kanpokoek bigarren gola sartu zuten.

Bestalde, Andoni Azkargortak egunotan sinatu du datorren urtean entrenatzaile gisa jarraitzeko kontratua.



JOSETXO ARANZABAL

OHOR. PREFERENTEA

Aukeraz betetako partidu bikaina jokatu zuten antzuolarrek

Azken emaitza 0-3 izan bazen ere, alde askoz handiagoa ateratzeko partidua izan zen zapatukoa. Aukera asko izan zituzten jokariak ongi jokatutako partiduan eta lazkaotarrekin ezer gutxi egiterik izan zuten. Giro bikaina izan zen harmailetan ere, nahiz eta ez zuten eguraldiak lagundu. Golei dagokienez, bi lehen zatian izan ziren; bata estrategiazko jokaldi baten ostean Imanol Aranzabalek sartu zuen eta bigarrena, aldiz, korner baten ondoren Markel Letek. Hirugarren gola bigarren zatian iritsi zen, Ander Aranaren eskutik. Taldea fin dabil eta oso pozik eta animuz azken bi partiduei aurre egiteko.



Ligako lehen postua eta azken garaipena zaleekin ospatu nahi izan zuten. | IMANOL SORIANO



Natrak ez zion Pas Pielagos aukera askorik eman. | I.S.

EBA LIGA

Denboraldi guztian 6. jokalaria izan den afizioari ospakizun bikoitza eskaini zion Natra Oñatik

Aurreko jardunaldiko irudi txarraren ostean, zapatuan ligako lehen postua garaipenarekin ospatu zuten

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Hori bai denboraldia borobiltzeko modua! Pase bikainak, saskiratzeak, hirukoak... Zubikoak gogotik disfrutatu zuten. Pas Pielagos taldearen ahaleginek ez zuten Natra Oñati kikildu eta jarraitzaileei eskaini nahi zioten garaipena (92-83) lortu zuten.

Natra Oñatik aurreko jardunaldian igoera faserako txartela eskuratu arren, ez zuten partidua

irabazi, eta zapore gazi-gozo batekin geratu ziren Eneko Blancoren mutilak. Zapatuko partidua ostean gutxi gogoratuko dute aurreko jardunaldiko emaitza.

Goraino betea zegoen Zubikoa baten aurrean, Natrak bere joko onena erakutsi zuen. Pas Pielagos baina, ez zen soilik jokatzera etorri, garaipena eroan nahi izan zuen eta horretarako soilik bere zortzi jokalaria onenak ekarri

zituena Oñatira. Etxekoek, baina, argi zuten garaipena etxean gelditu behar zela. Hasierako minutu parekatu batzuen ostean, atsedendititik indarberrituta etorri ziren. Kintanaren hirukoei eta taldearen eraso bizkorrei esker aurrea hartu ondoren, garaipena zaleekin ospatzea lortu zuten.

Opariak, txaloak, esker onak... une hunkigarriak izan ziren. Zenbait baloi eta elastiko oparitu ostean

Iñigo Zabaleta kapitainak mikrofonoa hartu eta zaleei eskerrak eman zizkien. Eneko Blanco entrenatzaileak ere antzera egin zuen. Jendearen txalo artean esaldi batek garrantzi berezia izan zuen: "Ame-tsak darrai".

Argi dago, primerako zale batzuei behar bezala erantzuteko, beharrezkoa dela, lehen postua eskuratzeaz gain, garaipen bat eskaintzea.

Igoera faseari begira

Blancoren mutilek ospakizun motza izan dute. Igoera fasea hilabete barru izango da, eta horregatik gaur bueltatuko dira lanera. Erronka ez da erraza izango, Katalunia eta Madrilgo finalistek oso maila altua izango dute-eta. Hala ere, oñatiarrak play-off-etan sorpresa ematera irtingo dira. Blancok esan zuen moduan, "Oñatiren izena leku onean utziko dugu".

EMAITZA

NATRA OÑATI

92-83

PAS PIELAGOS

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU gogotik saiatu zen arren, puntuak Donostian geratu ziren

Hirugarrena den Bide bide taldea hobea izan zen. Hala ere, Mondragon Unibertsitateak kasta atera eta donostiarrei estuasun une ugari sortu zizkien. Azkenean, baina, behin eta berriro aldea murrizten saiatu arren, partidua 81-72 amaitu zen. Ea ba hurrengo jardunaldian etxean Lizuan.com taldearen kontra emaitza hobea lortzen duten.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Arrasatek irabazi eta Bergarak azken segunduetan galdu

MUK uste baino partidua errazagoa jokatu zuten. Saillapean bere aurretik dagoen Athleticok ez zuten bere maila erakutsi eta MUK 73-69 irabazi zuen. Soralue BK Eren partidua desberdina izan zen. Beti atzetik joan ziren arren, azken bost segunduetan saskiratu ez zuten hiruko bategatik (72-74) galdu zuten.

GIPUZKOAKO KADETEAK

Faboritoak, Askatuak taldeak irabazi zuen kadeeten mailako lauko saskibaloia finala

Mondragon Unibertsitatea, bajengatik ahulduta eta oso urduri, finaletik kanpo geratu zen

EMAITZA

EASO

40-58

ASKATUAK

I.G. | ARRASATE

Ez zen sorpresarik egon. Lehen partidutik faboritoa zen Askatuak taldeak irabazi zuen lauko saskibaloia finala. Easok aurreneko bi laurdenetan neurria hartu ziola zirudien, baina atsedendialdiaren ostean, Askatuak bere benetako maila erakutsi zuten.

Jokoa dezente bizkortu zen eta Askatuak partidua kontrolpean zutela erraz ikusten zen. Easo gogotik ahalegindu zen

arren, ezin izan zuen talde garailea harrapatu eta azken zatian abantaila handiegia izan zen.

MU finaletik kanpo

Ez zen taldearen eguna izan. Mondragon Unibertsitatea oso ahul iritsi zen txapelketara. Zenbait jokalaria lesionatuta zeuden eta etxean jokatzeko dakarren presioak ere ez zuten lagundu. Hala ere, Easori tinko eusten saiatu ziren. Donostiarrek kontraerasora lasai jokatu zuten eta beti joan ziren aurretik. Azken minutuetan, etxekoek amore eman eta 10 puntu baino gehiagoko aldeagatik galdu zuten. Hala ere, txapelketa guztian Iturripera hurbildu zen jendetza ikaragarria izan zen.



Askatuak taldeak partidua dominatu zuten. | JOSETXO ARANTZABAL



MUKo jokalaria ahalegindu ziren, baina ezin. | IMANOL SORIANO

TXIRRINDULARITZA

Txirrindulari gazteak indartsu datozela argi utzi zuten Bergaran eginiko erakusketan

Txirrindularitzak etorkizuna duela argi geratu zen, parte-hartzaileen kemena eta indarra ikusita

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, txirrindulari eta ikusle talde polita izan zen zapatuan Bergarako San Martin plazan. Gipuzkoako Txapelketaren barruan, bailaraka antolatzen diren lasterketako bat izan zen asteburukoa. Debagoiena, Azkoitia-Azpeitia, Urretxu, Mendara eta Mutrikuko txirrindulariak bildu ziren lasterketan dena emateko prest. Guztira, kimu mailako 35 txirrindulari izan ziren eta haur mailako 27. Maila bakoitzean, gainera, emakume bat edo beste izan zen lehen postua lortzeko borrokan. Maila bakoitzeko txirrindulariek 8 bira eman behar izan zioten 800 metroko ibilbide arriskuari. Izan ere, euria gogoz

bota zuen lasterketako momentuan eta errepidea oso bustia zegoen. Aurten, gainera, Labegarietako pista alde batera utzi eta lasterketa erdigunera ekartzeko apustua egin dute antolatzaileek: "Erakargarriagoa da eta, herri-tarrak gerturatzea errazagoa izateaz gain, kirol hau sustatzeko ere eraginkorragoa da".

Sailkapenari dagokionez, kimu mailako lehena Ander Blazquez oñatiarra izan zen, bere atzetik Xabier Isasi urretxuarra eta Mikel Orbea azkoitiarra iritsi ziren helmugara. Haur mailan, aldiz, Elgoibarko Imanol Alvarez gaztea izan zen garaile, eta bere atzetik Iñaki Salaberria urretxuarra eta Jon Astigarraga elgoibarra iritsi ziren helmugara.



Lasterketako momentua San Martin plazatik pasa berri. | ANE ETXEBERRIA

Deialdia

Eguenero Agorrosingo atletismo pistan elkartzen dira 8 eta 14 urte bitarteko txirrindulariak, hala, norbait interesatua balego kirol hau praktikatzeko, probatzeko edo mundu hau hobeto eta gertutik ezagutzeko, Agorrosinera hurbiltzeko dei egin dute antolatzaileek. Kaskoa eta bizikleta eraman beharko dira.



Irabazleak sariek. | I.SORIANO



ANDER BLAZQUEZ
KIMU MAILAKO GARAILEA

"Oso pozik nago eginiko lasterketarekin. Ibilbidea polita zen, baina nahiko arriskutsua, San Pedro kalean bihurgune oso itxi bat zegoen eta nahiko kontuz pasa behar zen bertatik. Errepidea gainera oso bustia zegoen".



IMANOL ALVAREZ
HAUR MAILAKO GARAILEA

"Oso pozik nago eginiko lanarekin. Errepidea oso bustia eta arriskutsua bazegoen ere asko gustatu zait ibilbidea. Etorkizunean profesionala izatea nahi dut, nahiz eta oso zaila den, asko entrenatu behar da eta".



ASIER PENABAD
ANTOLATZAILEA

"Oso pozik gaude; nahiz eta eguraldiak ez digun lagundu, ez dira erorketa asko egon. Gainera, aurten lasterketa erdigunera ekartzeko apustua egin dugu, nahiz eta arriskutsuagoa den, baina askoz politagoa izan da".



Bi mailetako irabazleak taldean. | I.SORIANO

BASQUE NIGHT ADVENTURE

Gauetz eginiko abenturan, dena ondo

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, herritar talde polita atera zen Agorrosin kirolgunetik. Basque Night adventure martxa honetan, hainbat orduz gaua eta mendi bizikletaren arteko nahasketak sortarazten duen plazerraz disfrutatzen aukera izan zuten. "Dena oso ondo irten da", adierazi zuen Iker Osa antolatzaileak.



I.SORIANO



I.SORIANO

GIMNASIA ERRITMIKOA

Arrasate eta Bergarako gimnastek paper txukuna egin zuten zapatuan

- ▶ Proba Gipuzkoako txapelketako sailkapenerako zen
- ▶ Onenak Ordizian lehiatuko dira maiatzaren 11n

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Gimnasia erritmikoko edozein mailako txapelketak ikusgarriak izan ohi dira eta zapatuko Kimu eta Haur mailetak lehiaketa izan arren, gauza bera gertatu zen. 10:00etan gurasoak gimnasta gazteak baino urduriago zeuden eta Labegaraietako kiroldegiko harmaila dezente bete zen.

Musika hasi bezain laster Gipuzkoa osotik iritsitako taldeen desfilea hasi zen. Maillot koloretsuen erakustaldiaren ostean iritsi zen benetako lehia. Taldeka lehiatu zirenak uztaia izan zuten erabili beharreko elementua eta bakarkako lehiakideek aldiz pilota erabili behar izan zuten.

Zapatuko, txapelketa bat baino gehiago, ligaxka moduko lehiaketa bat izan zen. Lehen fase honetan lortutako emaitzekin batez

bestekoa egin eta onenak soilik sailkatzen dira maiatzean izango den Gipuzkoako txapelketara. Hortaz, ligaxkako saioa izan arren, honelako lehiaketek azken txapelketarako garrantzi handia dute.

Ariznoa elkarteak

Bergarako elkarteak maila bakoitzean talde bana aurkeztu zuen. Etxean egotearen babesa eta presioa nabaritu zuten gimnasta gazteek. Kimuek, oso ariketa on bati esker, bigarren postua eskuratu zuten. Haur mailakoek, ostera, ez zuten horren emaitza borobila lortu. Hala ere, laugarren postuarekin gustura gelditu ziren.

Arrasate Dragoi Taldea

Bergarakoaren aldean, Arrasatek talde handiagoa aurkeztu zuen. Horregatik, taldeka lehiatzeaz

gain, bakarkako lehiaketara gimnasta bat aurkeztu zuten: Haur mailako Leire Ugartek laugarren postua eskuratu zuen.

Taldekako txapelketan, aldiz, emaitza guztiak ez ziren horren onak izan. Maialen Diaz, Leire Elizaran, Ane Gorosabel, Maite Iraeta, Araitz Altube, Ane Gorosabel eta Kimi Lopez de Aretxagak osatutako taldeak akats txiki batzuk egin zituen eta, ondorioz, zazpigarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Eneritz Lage, Andrea Hernandez, Alba Revuelta, Maite Oliden, Maitane Ugarte eta Amaïur Mendizabalen taldeak, aldiz, ez zuten apenas akatsik egin eta hirugarren bukatu zuten. Hala ere, gimnasta gehienek maiatzaren 11ko Ordiziako zita dute buruan, hura izango baita hilabeteetan itzaroten egoten diren txapelketa handia.



Bergarakoek oso ariketa ikusgarria egin zuten. | ARIZNOA ELKARTEA



Taldeen guztien moduan, Arrasatekoek ere uztaia erabili zuten. | ARIZNOA ELKARTEA

GUURE KIROLA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena™

ATLETISMOA

Istar Dapena | Pertika-jauzilaria

"Munduko txapelketarako marka lortzea da udako erronka: 4,70eko saltoa beharko dut"

- ▶ Istar Dapena arrasatearrak gazte mailako Gipuzkoako txapela jantzi berri du
- ▶ Neguko denboraldi "gogorra" bukatuta, aire zabaleko probetan hasi da dagoeneko

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Istar Dapena (Arrasate, 1996) pertika-jauzilaria da. Gazte mailako Euskadiko errekorra dauka 4,50 metroko saltoarekin. Hilaren 20an, Mojategin jokaturako Gipuzkoako txapelketan, 4,40koa egin zuen, txapela jantzeko balio izan ziona. Neguko denboraldia bukatuta, udakoa prestatzen dihardu. Bi erronka ditu: Espainiako eta Munduko txapelketak. Lehenengorako gutxieneko marka badauka. Bigarreneko, ez. Mojategiko entrenamenduan egin genuen hitzordua harekin.

Gazte mailako Gipuzkoako txapeldun zara, 4,40 metroko saltoarekin. Zorionak!

Eskerrik asko. Lehenengo bukatu nuen, baina hotz handia egiten zuen. Saltoka hasi orduko arratsalde erdia zen, eta tenperatu asko jaitsi zen. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, salto ona egin nuen.

Aire zabaleko denboraldia oraintxe hasi duzue, eta badaukazu Mojategiko saltoa hobetzeko tartea.

Hori da asmoa. Uste dut badaukadala hobetzeko denbora. Eguraldi onarekin, askoz gehiago eta hobeto entrenatzen gara. Neguan euri asko egin du, eta otsailean eta martxoan ezin izan ditugu fundamentuzko entrenamendu saioak egin. Euria egiten zuenean, Ermuko pabiloi batera joaten ginen. Baina larregiko motza zen. Izan ere, zortzi pauso egiteko lekua zegoen, eta salto normal batean 12-14 egiten ditut.

Eta nola antolatut dituzue entrenamenduak?

Ahal izan dugun moduan. Gorpuz indartzeko gimnasioko lana egin dut, baina, pertikarekin teknika lantzeko, ezinbestean saltoak egin behar dira. Hori falta izan zait neguan. Ea, bada, hemendik aurrera entrenamenduak berreskuratzen ditugun.

Udako denboraldiari begira zeintzuk dira zure erronkak?

Espainiako txapelketako marka badaukat. 3,95 da. Hori horrela, Munduko txapelketarako minimoa lortu gura dut. 4,70 metroko saltoa behar dut, eta hori lortzeko lan egingo dut. Lasterketa hobetzen badut, pertika gogorrago batekin, bada, minimoa lortzeko saiakera egingo dut.

30 zentrimetro gehiago behar dituzu. Asko da hori.

Bai, hala da. Gipuzkoako txapelketako saltoak baino 30 zentrimetro gehiago, eta Euskadiko errekorra lortzeko balio egindakoak baino 20 zentrimetro gehiago. Munduko txapelketa ekainean da.



Istar Dapena, Mojategin, entrenamendua hasi aurretik. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Badaukat denbora. Ez badut lortzen, hurrengo urteko junior mailako munduko txapelketarako saiatuko naiz.

Urte sasoiaren arabera, entrenamenduak aldatu egiten dituzue?

Ez. Eguaztenetan eta domeketan izan ezik, gainerako egun guztietan entrenatzen naiz. Realeko kide izan arren, zorionez, Mojategin egiten ditugu entrenamenduak.

Aire zabalean eta pista estalian dauden ezberdintasunak kanpoko faktoreak dira. Eguraldi kontuak. Aire zabalean haizea eta euria egin dezake. Horiek guztiek eragina dute saltoan.

"Neguan eguraldi eskasa egin du eta horrek eragina izan du plangintzan"

"Eguaztenetan eta domeketan izan ezik, egunero entrenatzen naiz"

Jonathan Perez da zure entrenatzailea. Maialen Ruiz de Azuarekin eta Malen Axperekin entrenatzen zara. Punta-puntako lau pertika-jauzilari herri berean.

Bitxia da. Elkarrekin entrenatzen gara guztiok. Jonathan atleta da eta horrek asko laguntzen digu. Badaki entrenamenduak antolatzeko, motibazioa lantzen... Etekin handia ateratzen digu.

Pertika-jauzilari izan gura zenuen ala kasualitatez heldu zinen modalitate horretara?

Atletismo taldeko kide nintzen. Korrikako probak egiten nituen. Ezustean, pertika probatzeko ahol-

katu ninduten, eta hemen nago. 14 urterekin hasi nintzen pertika-jauziak egiten, eta 16 ditut. Bi urte besterik ez, baina oso gustura nago.

Neguko denboraldia bukatuta, ze balorazio egiten duzu?

Gogorra izan da. Lehen esandako moduan, entrenamendu asko egin behar izan ditugu Ermuan, eta horrek asko zaildu digu plangintza. Dena den, emaitza onak ere izan ditut. Ni neu gazte mailako Euskadiko errekorrekin geratzen naiz. Egindako lanaren emaitza izan zen salto hura.

Espainiako txapelketan ez zuen zorterik izan.

Antequerako txapelketan laugarren geratu nintzen. 4,30 metro arte, lasai ibili nintzen. Distantziak malgutasunez gainditu nituen. Bada, 4,40ko saltoa egiteko unean talonamendu arazoak izan nituen, eta jauzia egin aurretik pausoak gaizki eman nituen. Baliorik gabeko hiru salto egin nituen.

Noraino heldu gurako zenuke pertika-jauzilari moduan?

Gorengo mailara heldu gurako nuke, eta, ahal bada, Espainiako txapelketaren baten dominaren bat jantzi. Baina, auskalo!

Dapena, Perezen begietatik

"Oso langilea da. Azkarra, eta duen pisurako oso indartsua. Isilean lan egiten duen horietakoa. Dena emateko gertu dagoena. Dena den, koordinazioa hobetu beharra dauka. Badauka hobetzeko denbora eta gogo. Hurrengo urtean junior mailan egongo da. Maila horretako munduko txapelketarako 5 edo 5,05eko salto eskatuko diote. Aurten ez badu lortzen, hurrengoan izango du aukera. Ekaineko Munduko txapelketarako marka lortuko duen? Gai da 4,70 metro saltatzeko, baina oso zaila dela badaki. Etorkezunari begiratuta bilakaera ona izango du. Noraino helduko den? Akaso, 5,40tik gora. Baina horretan eragina dute ikasketek, lanak... Ikusiko dugu noraino heltzen den".

Tresnak eman daitezke irakurketa eta idazketa prozesuetako arazoak gainditzeko

Maider Eginok logopedaren zeregina zein den azaldu du *Guraso.com* atarian

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Irakurketa eta idazketa bi prozesu oso garrantzitsu dira gure egunerokoan. Irakurketa prozesua ondo emango da pertsona gai denean testu bat ulertzeko eta interpretatzeko. Idazkerak, berriz, pentsamenduen, sentimenduen eta gertakarien kanporatzea ahalbidetzen du zeinu grafikoen bidez. Konplexutasun handiko bi ekin-tza dira, izan ere, eskatzen dute abilitate eta prozesu kognitibo desberdin asko batera martxan jartzea: prozesu pertzeptiboa, lexikoa, sintaktikoa, semantikoa... Prozesu horietako batek huts eginez gero irakurketa-idazketa gaitasuna trakestu egiten da. Orduan, zailtasunak eta arazoak sortzen dira, eta konponbidea aurkitu behar da lehenbailehen.

Horrelakoetan logopedaren lana da arazoa detektatzea, eta lantzea. "Guraso askok logopedaren lana irakasle partikular baten lanarekin nahasten dute", adierazi du Maider Eginok *Gura-*



Neska gaztea etxeko lanak egiten. | ALIZÉE VAUQUELIN

so.com atarian. "Logopedaren lana ez da umeak ikasketak gaindi ditzan haurrarekin lan egitea, haurrak behar dituen estrategia eta tresna desberdinak lantzea baizik".

Prozesu luzea

Irakurketa zein idazkera prozesuetan parte hartzen duten gaitasunak zeintzuk diren azaldu

du Eginok *Guraso.com* atarian. Ohartarazten du arazorik emanez gero garrantzitsua dela lehenbailehen detektatzea eta lantzen hastea emaitza hobekia lortzen baitira. "Logopedaren helburua da irakurketa eta idazketa mekanika egokiak lortzen laguntzea. Lan luzea eta pisutsua izaten da, prozesuok luzeak izaten baitira", jakinarazi du.

Guraso ona: haurrak gurasoaren premia gero eta txikiagoa duenean

Francesco Tonuccik uste du haurrek etxetik bakarrik irteteko aukera izan behar dutela

L.Z. | ARRASATE

Larrun aldizkariak Francesco Tonucciren *Haurren Hiria* liburuko zenbait pasarte argitaratu ditu azken alean. Txatxili-purdi elkarteak eskatuta Maider Elkoro bergararrak itzuli du liburua euskarara.

Psikopedagogo italiarrak defendatzen du hiriak haurren neurriera egin behar direla. Konturatzen da harreman sozialak oso konplexuak bihurtu direla, eta desagertu egin dela hamarkada gutxi batzuk direla haurren heziketan auzotarrek betetzen zuten kontrol soziala. Hala eta guztiz ere, estereotipoak askatu eta sormenari haize eman behar zaiola uste du. "Garrantzitsua da haurra txikia denetik bakarrik irten ahal izatea, etxeko segurtasuna uzteko arrisku eta plazerak bere gain hartzea",

dio. "Kalera jaitsi, lagun bat bilatu, jokoa eta arauak adostu, jolastu, (...) helduen jarreraren inguruan kontuak atera, (...) etxera nekatuta bueltatu, behar bada zikin-zikin (...). Haurrek hiruzpalau urtetik aurrera bizi behar zuketuen esperientzia hau", defendatzen du Tonuccik.

Helduendako ere badu gomendioa: "Helduei ulertarazi behar zaie, guraso ona ez dela haurrek guztia izan dezaten edo toki guztietara lagunduak izan daitezen bere bizitza alde batera uzten duena. *Guraso onaren* ezaugarri nagusia, egunak pasa ahala, haurrak gurasoaren gero eta premia gutxiago izatea izan beharko litzateke". Francesco Tonucci Hik Hasik maiatzaren 10 eta 11rako Kursoalen antolatutako jardunaldietan izango da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Zer dakigu, oro har, eskaladaz?

Aitzol Gomez de Segura
TAFYDeko ikaslea

Eskalada asko hazi da azken urteotan, baina zer dakigu kirol horri buruz? Hasteko, esan behar da hainbat eskalada modalitate daudela: kirol-eskalada, big wall, boulderra, artifo... Masifikazioek erakusten digute modalitate batzuk beste batzuk baino erakargarriagoak direla jendearendako, eta esan daiteke, orokorrean, boulderra eta kirol-eskalada direla jendeak gehien praktikatzeko dituen bi modalitateak. Kirol-eskaladan zailtasun maila neurtzeko lau era ezberdin daude: UK, FRENCH, UIAA eta USA. Gure inguruan gehien erabiltzen dena FRENCH izenekoa da.

Bideen gradua edo maila

Zailtasun maila zenbaki eta letra bidez neurtzen da: 3tik 9ra, eta A, B edo C letrekin. Esaterako, 6 zenbakia adibide moduan har-

tuz gero, 6a litzateke maila horretan gradu errazena eta 6c+, berriz, gradu zailena.

Hasieran bide errazena egiten dira: 4a, 5a edo 6a. Entrenatuta 7. gradura igo zaitezke; 8. gradura heltzeko gogor ibili behar da eta, azkenik, oso goi mailan 9. gradua dago. Munduan egin den biderik zailena 9b+ da, eta aurten egin du Adam Ondra txekiarrak.

Gradu maila finkatzeko

Baina zeinek jartzen dio gradua edo maila bide bati? Bide hori lehenengo aldiz egiten duenak gradu proposamena egiten du, eta beste eskalatzaile batzuek bidea errepikatu egiten dute, eta gradua mantentzea edo aldatzea proposatzen dute behin betiko da.

Modalitatea aukeratu, eta zailtasunak gainditu

zailtasun maila finkatu arte. Boulderran gradu berdinak erabiltzen dituzte, baina 8c+ da orain arte egitea lortu den zailena.

Boulderra

Boulderra haitz txikietan egiten den mugimendu indartsu eta handien nahasketa da. Azpian *crashpad* izeneko koltxoneta bat jartzen da. Hala, erorketa gertatuz gero kolpea txikiagoa da. Boulderra oso egokia da bertigoa dutenendako; eskalada praktika dezakete altuera handiegietara igo barik.

Mugak gaindituz

Eskalada praktikatu nahi izanez gero, komeni da gustukoen dugun modalitatea zein den erabakitzea. Gero, zailtasun maila ezberdineko bideak gutxika-gutxika egiten lortzea da gakoa. Nork bere mugak gaindituz lortzen da hobeto eskalatzeko, eta gero eta gehiago disfrutatzen da. Betiere, norberaren segurtasuna bermatzea izanik beste gako garrantzitsu bat.



Iaz Aretxabaletan egindako boulder txapelketa. | JOSETXO ARANTZABAL

Debagoienean hazten dabilen kirola

Gero eta gehiago dira kirolguneetan eskaladarako egiten ari diren instalazioak. Aspaldikoa izan arren, lo egon den kirola da eskalada, eta orain berriro esnatzen hasita dago. Beste aurpegi batez esnatzen ari da, gainera. 2004an hasi nintzen eskalatzeko, eta denbora horretan ni ere konturatu naiz gorakada horrekin. Haitzera joan eta era guztietako jendea ikus daiteke: gurasoak haur txikiak, gazteak, helduak, hasi berriak, garai baten hasi zirenak... Ea denon artean handi egiten dugun eskalada, bada-eta haitzartera zikinkeria eta zarata besterik ekartzen ez dutenik.

Bazkideentzat abantaila eskusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Ninika Loradenda

Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L

Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa

Belorrieta 5 behe - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.



Esko Sport

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.



Jaixak

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburutan izan ezik.



Estacion Servicio Arrasate

San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregeia erositara.
- % 2 dendako produktuetan.



Begiondo Optika

Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea

Torreazuo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoa) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia

Aranburuzabala 6 behe - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.



Gaes

Otalora 18, Arrasate

Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Multiópticas

Juan Carlos Guerra, 1 behe - Arrasate

Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Arrikruz Kobak

Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.



Imprespal, C.B Imprimategia

Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Kuttuna Estetika

Aranburuzabala 19, behe - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



AQUARIUM

Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.



Oñati Garajea

Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Biotika

Iturriotz 21 - Arrasate

- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Caravanas Oñate

Odadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketaren egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Guztiz Eder

Kalebarria 29

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Lilura Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



Argia

www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.



Txuri Urdin izotz pista

Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jai egun, jai egun bezpera edo oporraldia.

** Ez bada zubia edo oporraldia.



Lastai

Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KULTURA



Kim eta Antonio Altarriba komikigileak, Arrasateko Udal Bibliotekaren *Komiki Gida* eskuetan dutela. | LEIRE KORTABARRIA

Irakurketaren zale guztiei gerturatu zizkieten komikiak

- ▶ Arrasateko Udal Bibliotekaren 'Komiki Gida' aurkeztu zuten barikuan
- ▶ 'El arte de volar' komikiaren egileek komikiak ezagutzera animatu zuten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Komikienganako zaletasuna gero eta handiagoa da Debagoiengan, eta genero horrek orain arte gurean izan dituen mugak -aurreiritziak, bestela esanda- gainditzen doa pixkana-pixkana. Horretan bere harri-koskorra ekarri guran, zale eta liburuzain guztiendako *Komiki Gida* argitaratu du Arrasateko Udal Bibliotekak, Antonio Altarriba gidolari eta komikietan adituaren laguntzarekin; izan ere, Altarribak koordinatu du lan hori. Eta berau zaleei aurkeztu zien Altarribak berak eta haren lankide Kim marrazkilari bartzelonarrak. El arte de volar komikia egiten ibili ziren elkarrekin. Eta elkarrekin aurkeztu zuten *Komiki Gida* joan den egubakoitzean, Kulturaten.

Altarribak esan zigun zein den *Komiki Gida* horren eta, oro har, eurek komikigile gisa duten helburua: "Bidali nahi dugun mezua hau da: komikitik urrun daudenak gerturatu daitezela eta eman dezatela begiratu bat, izan ere, liburu bikainak deskubrituko dituzte. Liburu horietan, istorio interes-

garri batez gain, txundituta utziko dituzten marrazkiak eta komunikazio bisuala topatuko dituzte".

Lau urteko lana

Komiki Gida-z gain, beste helburu bat ere bazuen egubakoitzeko berriketaldiak: *El arte de volar* komiki ospetsua nola egin zuten azaltzea. Istorio bitxia da, Kimek


dioen moduan: "Ez genuen elkar ezagutzen. Gasteizko komikiaren areto baten topo egin genuen eta bere aitaren bizitzaren gaineko gidoia idazten zebilela esan zidan Antoniok, eta marrazkilari baten bila zebilela. Nik esan nion *El Jueves*-en umorea egiten nuela, eta aspalditik ez nituela gai serioak ilustratzen, baina azkenean ni ere ilusionatu egin nintzen". Baldintza bat ipini zion Altarribari: denboraren presio barik ibiltzea. Halako baten, bukatu zuen: "Nik uste nuen bi urte behar izan nituela, baina Antoniok esan zidan lau urte hartu nituela. Ezin nuen sinistu!"

Arrasaten, ia 1.700 ale

Altarribak bere gustuko komiki batzuk aipatu dizkigu: "Art Spiegelmanen *Maus* ezinbesteko erreferentzia da; Pulitzer saria eman zioten. Esaten dute geurea, *El arte de volar*, haren antzekoa dela. Beste batzuk aipatzearen, Marjane Satrapiren *Persepolis*, David B-ren *Epileptico*, Frederik Peeters-en *Pildoras azules* eta Jiro Taniguchi-ren *Barrio lejano* gomendatuko

"Misiolari" baten zeregina

"Binetaren misiolaritzat" du bere burua Antonio Altarribak. Horregatik, "oso ondo pasatu" du Arrasateko Udal Bibliotekaren *Komiki Gida* koordinatzen. "Komiki munduko hamar lagunekin harremanetan ipini nintzen: adin askotako egileak, baina baita adituak, editoreak, kritikariren bat... Bakoitzari eskatu nion gustuko zituen 10 komikien zerrenda egin zezala". Altarribaren iritziz, "egileen gustuak jakiteko eta komikia oraindik ezagutzen ez duen jendeari erreferentzia batzuk emateko modu interesgarria da. Eta Arrasaten ondo banatuko dutela badakidenez, ziur nago zale eta liburuzain askorendako erreferentzia-gida izango dela".



Komiki Gida. | GOIENA

ESANAK

"Komikietan gauza asko deskubrituko ditu jendeak"

ANTONIO ALTARRIBA | KOMIKIGILEA

"El arte de volar"-ekin ilusionatu egin nintzen"

KIM | KOMIKI-MARRAZKILARIA

Sekulako arrakasta Eskoriatzan

Jende asko eta liburu asko azoka bizi eta koloretsuko protagonistak izan ziren egubakoitz arratsaldean Eskoriatzan, *Bat ekarri, bat eroan* liburu-truke azokan. Eguraldi txarra zela-eta, beste urte batez ere bibliotekako sarrerako aterpean egin dute aurtengo azoka, baina ez du horregatik bizitasun apur bat ere galdu. Adin guztietako herritarrik ibili ziren liburuak ikusten, gainetik irakurtzen eta aukeratzen.



Truke azoka. | IMANOL SORIANO

Musikaldia 2013, musika eta dantza maratoi aberatsa

Herriko erdiguneko sei musika gunetan askotariko musika eta dantza saioak erakutsi zituzten

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Euskal Musika Eskolen topagune arrakastatsua bilakatu zen zapatuan Oñati. Aurtengo Musikaldiaren antolakuntza lanak 25. urteurrena duen Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolari egokitu zaizkio eta parte-hartzaile zein entzuleei entzundakoaren eta ikusitakoaren arabera, eguraldiaren trabak alboratuz, primerako jaialdia gauzatzeko abilezia ederra eta lanerako jarrera ezin hobea dutela erakutsi zuten.

50 musika eskolako 3.000 musikari gazte zein heldu izan ziren, gehienbat Euskal Herritik etorritakoak, baina baita Espainiatik ere, Toledotik eta Granadatik, esateko.

Musikari: gustuko kantua

Iban Garate aktoreak umorez gidatutako aurkezpen ekitaldiarekin abiarazi zuten egun osoko egitaraua. Musika eskoletako ordezkariak gainera, ordezkari politikoak ere baziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza politika sailburua, Kristina Uriarte. Sailburuak ilusio handiarekin hartu zuen haren sailari Musika

Eskolen Elkarteak emandako Ohorezko Bazkide titulua, oparituta Ohorezko Batutarekin. Berbaldi ofizialen ostean ozen abestu zuten Oñatiko musika eskolako ikasle ohi Lander Diaz de Gereñuk eta Egoitz Aizpuruk espresuki jaialdirako egindako *Musikari* kantua.

Barrenetik sentitu, bizi, musika gozatu! leloarekin, musika maratoia egin zuten herrian zehar prestatutako sei musika-gunetan, gero, askotariko estilo edo ezaguri musikalaren erakusle bilakatu: herriko plazakoa talde handien gunea zen; piano eta ganbara doinuak entzun genituen, berriz, Santa Ana aretoan; parrokian, abesbatzak eta orkestrak batu ziren; Zuazola institutuko aretoan, ostera, ganbara talde gehiago; San Anton plazatxoia eta Atzeko kalea musika modernoagoaren erakusle bilakatu ziren, besteak beste, rock talde eta doinu berriagoen topaleku.

Erreportaje osoa:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Foruen Plazan kokatutako guneko emanaldiko une bat. | IMANOL SORIANO



LANDER DIAZ DE GEREÑU
'MUSIKARI' KANTU EGILEA

"Oso gustura entzun dut, sentsazio oso onarekin; oso ondo abestu dute. Orokorrean gustatu zaiela esan didate niregana etorri direnek. Aproposa izan daiteke, aurrerantzean, eskolako errepertorioan sartzeko".



KRISTINA URIARTE
SAILBURUA

"Ohore handiz hartu dut Musika Eskolen Elkarteak nire sailari eman dion Ohorezko Bazkide saria; orain arte egindako lanarekin jarraitzeko indarra ematen du. Musikak hezkuntza integratzean duen garrantzia islatzeko balio du".



BIZKARGI ESKOLAKOAK
AZKOITIA

"Hainbat dantza egitera etorri gara; uztai dantza, fandangoa eta arin-arina. Herriko plazan egokitu zaigu. Bukatutakoan, bueltatxo bat emango dugu eta etxera joango gara gero. Gustura hartzen dugu parte horrelako jaialdietan".



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETAKO

Galartaren ondarea babesteko elkarte

Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarte aurkeztu zuten haren heriotzaren urtemugan

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Julio Galarta margolari zenaren ondare artistikoa babestu eta hedatzeko, Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarte aurkeztu zuten egunean, pintorea hil zeneko bigarren urteurrenean. Elkarte duela urte bete sortu zuten eta, besteak beste, Garaia berrikuntza gunarekin sinatu duten akordioari esker, Arrasateko pintoreak nahi zuen bezala, bere lan artistikoa herrian geratuko da.

Elkarteko presidentea Josemari Velez de Mendizabal da; idazkaria, Eneritz Tirados, eta diruzaina, Iñaki Arejolaleiba.

Velez de Mendizabalek bereziki azpimarratu eta eskertu zuen Galartaren familiak dohaintzan eman izana haren 638 obra, momentura arte katalogatuta dituztenak.

Elkartearen helburuen artean daude Galartaren figura eta lana ikertzea eta ikerketak bultzatzea eta hedatzea.



Argazkioinaxxxx. | IMANOL GALLEGO

Musika barrokoa San Juan parrokian

Arrasateko Udaberriko Musikaldiaren barruan, kontzertuak izan dira asteburuan. Besteak beste, domeka iluntzean Donostiako Ensemble Diatessaron taldearen saioaz gozatu ahal izan zuten San Juan Bataiatzailearen parrokiara joan zirenek. Antzinako estiloko musika-tresnekin, musika barroko emanaldia egin zuten.



JOSETXO ARANZABAL

'Bi bala' izan zen kartzelako lehen saioa

Aitzol Barandiaran, Iñaki Gurrutxaga eta Julen Goikoetxearen *Bi bala* ikuskizunaren estreinaldi edo "esperientzia pilotua"-rekin (egileen hitzetan) hasi zen Bergarako gaztetxeko Egubakoitzak Kartzelan laugarren programa. Maiatzean, astero izango da emanaldi bat.



IMANOL SORIANO

Mirari

Ibargarai 14 - Martoko 34
BERGARA
Tel.: 943 76 23 93



Etor zaitez,
gure Ibargaraiako
denda berrian
dugun eskaintza
zabala ikustera!



GURE MUSIKA TALDEAK

EZ!



Ez! oñatiarrak, San Martinen. | EZ!

"Disko berria ez da salgai egongo, guk geuk banatuko dugu kontzertuetan"

- ▶ Lorentzo Records estudioa jo zuten berriz ere diskoa grabatzeko
- ▶ Urte eta erdiko geldialdia egin ondoren indarberrituta daude bueltan

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Duela hilabete aurkeztu zuten disko berria Ez! oñatiarrak. Bost urte daramatzate errepidean punk-ska nahasketa eroa alderik alde zabaltzen. Urte eta erdi *stand by* egoeran eman ondoren, inoiz baino indartsuago dira bueltan euren aldarria zabaltzen eta kontzertura gerturatutakoak 80ko hamarkadara bueltan eramateko asmoz. Bada, urte hauetan guztietan egin dituzten kantu bilduma berri honi buruz gehiago jakiteko grinez, eurekin izan gara oraingo honetan.

Zelakoa da disko hau?

Urteetan zehar egin ditugun kantuen bilduma da diskoa. Bertan 11 abesti aurkituko dituzue; lehenengo maketako bi, bigarren maketako lau eta beste 5 abesti berri. Hala ere, maketetan zeuden kantuei moldaketa batzuk egin genizkien, bereziki, ahotsean. Berriz grabatu genituen eta koruak gehitu genizkien.

Nolakoa izan da grabazioa?

Diskoa etenaldia egin aurretik amaituta genuen; hau da, 2011ko ekainean bukatuta zegoen. Berrizko Lorentzo Records estudioa

jo genuen, beste behin, eta bertan, 10 egunean prozesu guztia amaitu genuen. Kantuak zuzenean grabatuak izan dira eta ondoren, Josuk ahotsa sartu eta estudioan bertan egin genituen nahasketak eta masterizazioa. Aitor Ariñorekin lan egin genuen eta esperotako emaitza erdietsi dugu, oso pozik gaude egin duen lanarekin, profesionala da eta gauza asko ikas daitezke harekin.

Orduan, emaitzarekin pozik?

Bai; esan bezala, oso pozik gaude. Esperientzia ederra bezain lagun-garria izan zen, eta, ikasiz joan

ahala, guztia errazago eta txukunago irtetzen da. Oraingoan, gano-razko disko bat kaleratzea genuen jomuga, ez beste maketa bat. Kantu zaharren eta berrien arteko aldea egon badago, baina diskoan ez da nabari. Azken diskoaren grabazioa landuagoa izan zen, ez zen arazorik egon.

Nola banatuko duzue diskoa?

Guk geuk egingo dugu. Kontua diskoa Euskal Herriko txoko guztietara heltzea da, eta ez, talde askori gertatzen zaien moduan, diskoak tabernetan salgai jarri edo lokalean bertan hautsa hartzen gelditzea. Hori ez da banaketa egokia, hori egindako lanari oztopoak jartzea dela uste dugu, bide motza du horrek. Horretarako, adostutako zenbait irizpide jarraituko ditugu. Lan berria ez da salgai egongo, guk geuk banatuko ditugu kontzertuetan, entzuteko interesa erakusten duen orori, lagundu digutenei, eta abar.

Diskoa aurkezteko kontzertu-bira antolatzen zabilzate.

Bai, banaketa egokia egitea du xede prestatu dugun birak, kontzertuak emango ditugun herrietako giroa alaitzeaz aparte. Aurkezpen ofiziala Oñatiko Antixena gaztetxean izan zen eta publikoaren erantzunarekin oso pozik geratu ginen. Urte eta erdiren ondoren berriro oholtza gainera igotzea hunkigarria izan zen, eta, are gehiago, Antixena gaztetxean. Bada, hurrengo zuzenekoak Donapaleun, Gasteizen, Txantrean eta Oñatiko *Fan hemendik* egunean izango dira.

ZERTZELADA



EZ!

Estiloa: Punka, rocka, ska.**Egilea:** Ez! (Oñati, 2013).**Argitaletxea:** Autoekoizpena.**Iraupena:** 36:19 minutu.

Musika modei eta tendentziei ere ezetz

Bizitza abiadura bizian doa eta gauza gehienak eraldatuz doaz, ia oharkabean. Baina Oñatiko Ez! taldearen kantuak entzunda, badirudi denbora geldi eustea posible dela. Taldekideak nostalgiko hutsak dira eta 80ko hamarkadan amorrakioa eta dantza uztartutako taldeak dituzte inspirazio. Badute punketik -horra hor taldearen izen, mezua eta kantu batzuen norabidea-, baina ska doinuek leku oso nabarmena dute kantuetan, eta baita Oi! estilok ere zenbait lelotan; izan ere, piezatak asko tabernan, lagun artean, abestekoak dira. Tartean daude Laboaren bertsio bat eta lñoiz ez! taldearen hit!-a. Pikutara, Skalope eta Reincidentes gogorazi dizkirate, besteak beste.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Abadiño. Pisu salgai edo alokairuan Abadiño probalekuan: 3 logela, 3 balkoi, sukaldere-jantokia, egongela handi bat, komuneta eta ganbara. Deitu: 615-71 12 40.

Abadiño. Abadiño Matiena auzoan pisua salgai. Bizitzentzako moduan. Guztiz berriztatuta eta altzariz jantzia. 3 logela, igogailua, hegoaldera begira, denak kanpora ematen du, eta eguzkitua. Zatoz ikustera, gustatuko zaizu. Prezioa: 199.000 euro. Deitu: 688-86 18 78.

Azpeitia. Garmendi auzunean etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldere eta bainugela bat ditu. Ganbara ere bai. Gela guztiek kanpoaldera ematen dute. Garagea aukeran. 943-81 27 28.

Bastida. Pisu saldu edo egunerako alokatu egiten da. Bastidan (Arabar Errioxa). Herriaren erdialdean kokatuta dago. 106m²ko eta 3 logela, 2 bainu, sukaldere eta saloia dauka. Altzairuekin geratzen da. 8-10 pertsonentzat alokatzen da 65 euro eguneko, pisu osoa. Arremanetan jartzeko 600-46 32 76 telefonora deitu. Posta-e: alejandrojosefina@gmail.com.

Beriz. Berizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukaldere berria, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitua. Egoera ezin hobean. Tel: 647-77 73 92.

Eibar. Pisu salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m² ditu. 3 logela, komun bat, sukaldere, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar-hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Deitu: 656-78 60 97.

Eibar. Etxea salgai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldere eta komuneta. Berriztatuko. Deitu: 94-655 05 53.

Gasteiz. Pisu salgai San Martin auzoan (125m². 2. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmiria ederrekoa, ipar-hegoaldera begira. Sukaldere, 3 logela, egongela eta bi komun ditu; baita balkoia, aparkaleku eta trasteleku ere. Altzari eta guzti. Berogailua gas bidez. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 693-24 37 12 telefonora deitu. 253.000 euro.

lurreta. lurretan, Arriaundin, etxebizitza salgai. 50.000 euro. 685-72 80 42.

lurreta. lurretan Zubiaurre kalean pisua salgai. 70 m², 3 logela, egongela, komuneta eta sukaldere. 30 m²ko terraza. Berriztatuko. Deitu telefonora: 636-40 26 67.

Leintz-Gatzaga. Etxea salgai erdiguinean. Orube handia dauka aldamenean. 160.000 euro. 677-52 46 71 / 615-74 13 47.

Urnieta. Zubitxo plaza. 3. Solairua. Logela bat, egongela handia, komuneta, sukaldere eta tendereroa. 47m² erabilgarriak. Igogailua. Komunitateko gastuak: 34 euro hilean. Deitu telefono hauetara: 655-70 26 13 (Miren). 154.000 euro.

Zegama. Zegaman, Olaran auzoan bigarren pisu bat salgai. Sukaldere, balkoi eder batekin aitzkorri begira, hiru logela, jangela eta bi traste leku txiki. Nahi izanez gero garaje eder batekin. Deitu telefono hauetara: 943-80 04 04 edo 943-18 76 08.

103. ERRENTAN EMAN

Aulesti. Aulestin, pisu ederra alokatzen da. Behe solairua, sukaldere handia, egongela, hiru logela, hiru bainugela, begiratokia, balkoia, trasteleku, egurtokia eta ortu txikitxo bat. Interesatuok deitu 620-56 85 89 telefonora.

Bastida. Oporretako pisua alokatzen dut pisinarekin. Torre-otxandi urbanizazio pribatuan. Urbanizazioak igerilekua eta saskibaloia pista ditu. 2 logela, bainugela, sukaldere eta egongela, guztiz apaindua. Paisaia eta bista ikusgarriak. Ezkarraitik hurbil. Urte osoan eskuragarri. Hamabostaldika eta hilaibetea alokatzen da. Interesatuok deitu hona: 620-62 92 45. iartea-ga@hotmail.com.

Bergara. Etxebizitza interesgarria ematen da errentan erdiguinean. Garajearekin, eguzkitua eta guztiz hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 62 39 45

Durango. 4 gela, 2 komun, egongela eta sukaldere. Berokuntza zentrala, igogailua eta argitsua. Deitu 660-05 56 43 telefonora.

Gasteiz. Pisu alogagai Arantzabal auzoan (8. Solairua). Etxe argitsua eta ikusmiria ederrekoa, hegoaldera begira. Sukaldere, 4 logela, egongela eta bi komun ditu; baita aparkaleku eta trasteleku ere. Altzari eta guzti; bizitzentzako moduan. Igogailua ere badu. Ikusi nahi izanez gero, 665-75 78 07 telefonora deitu. 950 euro.

Santo Domingo de la Calzada (Errioxa). Pisu berria alokatzen da santo domingo herri erdian. Ezkarraitik hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. 657-77 26 13.

Tolosa. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det tolosan, persona bat edo bintzako egokitu, bi planta dauka. Eguzkitua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609-48 11 24.

Zaldibar. Pisu alokatzen dugu Zaldibarren. 3 logela, altzariz horniturik. Hilean 550 euro. 655-70 62 68.

104. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Bikotea Aramaion pisu bila. Altzariarekin edo altzaririk gabe. Deitu zenbaki honetara: 620-15 13 11.

Arrasate. 500-600 euroko pisubila debagoienan. Presazkoa da. Arduratsuak. Deitu telefono hauetara: 722-28 84 39.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. Deitu telefono zenbaki honetara: 629-80 77 73.

Durangaldea. Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 665-70 34 08.

105. ETXEA OSATU

Abadiño. Logela bat alokagai Muntzaratz auzoan. Komun pribatua, ikuspegi paregabea, argitsua eta oso merke. Deitu telefono zenbaki honetara: 653-71 24 67.

Aretxabaleta. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 300 euro gastu guztiak barne. Deitu telefono zenbaki honetara: 619-83 13 51.

Arrasate. Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. Deitu telefono zenbaki honetara: 610-82 02 17.

Arrasate. Pertsona bat behar dut gelmako etxeetan etxebizitza osatzeko. Ollaia. Deitu telefono honetara: 687-26 46 58.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO****- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.****Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Etsakerak
403. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

Beriz. Logela alokatzen da baserria konpartitzeko Berizen. Berriztatu berria eta leku paregabea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619-66 58 57.

Durango. Logela bat alokatzen dut Durango, Ibaizabal auzoan. Komun pribatua du. Interesatuok egonez gero deitu telefono zenbaki honetara: 652-86 57 80.

Oñati. Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Ruben. 688-69 49 76.

Oñati. Garajea errentan hartuko nuke Errekalde edo Moiu kalean inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 27 05 78

2. GARAJEAK**201. SALDU**

Elorrio. Elorrioko Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu: 658-75 92 64.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garajea ematen da errentan Zubiaurre kalean. Merke. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 74 00 61

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Harane Erreka auzoan garajea hartuko nuke errentan. 617 78 73 21.

Durango. Garaje plaza bi errentan ematen ditut. Platerren plazan. 656-78 02 15.

Durango. Durango Gasteiz bidea kalean garaje itxia alokatzen da. 658-45 35 66.

Oñati. Garaje itxia hartuko nuke errentan. Kokapena eta tamaina berdin zait, urtean zehar asko erabiltzen ez diren gauzak gordetzeko nahiko bainuke. Gehien axola zaidan konzeptua ekonomikoa izatea da, ez baitut asko erabili. Trasteleku bat ere izan daiteke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 70 86 49

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan Bakardadeko Ama kale inguruan. Berdin da itxia edo irekia izan. Epe luzearako gurako nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 630 13 08 92

Arrasate. Neska zaintza lanetarako gertu: etxean bizitzaren, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671-10 39 13.

Arrasate. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziarik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634-28 16 34.

Arrasate. Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 647-10 58 72.

Arrasate. Neska arduratsua lanerako gertu. Garbiketaren edo ume eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Etxean bizitzen edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617-64 08 48.

Arrasate. Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko. 647-10 58 72.

Arrasate. Emakumea gertu lanerako: nagusiak eta haurrak zaintzen zein atari, etxe eta abarren garbiketaren. Brenda. Interesatuok deitu telefono honetara: 631-13 02 48.

Arrasate. Emakumea lan egiteko gertu, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. Maite. Deitu 943-76 48 26 edo 650-1774 87 zenbakira.

Arrasate. Neska arduratsua lanerako gertu debagoienan. Orduka, egunez zein etxean bertan bizitzen. Manikura eta pedikura lanak ere egiteko nituzke. 727-74 42 36.

Arrasate. 54 urteko emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. 943-79 60 89.

Azpeitia. Zaintzaile bat eskeintzen da umeak edo gende edadetuak zaintzeko baita ere etxe lanak egiteko. 695-74 88 35.

Bergara. 19 urteko mutil euskalduna ostiralde arratsalde, astebukaera eta jalegunetan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627-36 83 70.

Bergara. Arrasate. Mutila asteburuetan lanerako gertu. 654-98 69 14.

Bergara. Antzuola edo Zumarraga. Bikotea, esperientziaduna eta erreferentziaduna, garbiketarako gertu: atari, bulego, taberna, elkarte eta abarrak. Merke. Orduetako arazo barik. Deitu 634-91 81 73 edo 943-76 66 24 telefono zenbakietara.

Bergara. Emakume euskalduna prest goizean etxe lanak egiteko. 627-96 19 22.

Bergara. Emakumea prest goizez etxe lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649-52 86 54.

Bergara. Neska euskalduna prest umeak zaintzeko etxeak garbitzeko. Esperientzia daukat. 943-76 52 39.

Bergara. Edo Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu nengoke. Baita etxean bizitzen, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674-93 20 47.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zein atari, etxe eta abarren garbiketaren. Esperientziaduna. 631-22 32 92.

Debagoiena. Neska arduratsua orduka lan egiteko gertu, etxeetan, tabernetan. Bertan bizitzen ere bai. 648-46 90 51.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txetean ere bai, laguntzaile gisa. 630-20 12 03.

Debagoiena. 18 urteko mutil espainiarra loratzaintza lanak egiteko nituzke. Gidabaimena eta esperientzia. 722-32 43 67.

Debagoiena. Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egiteko nituzke bai etxean bizitzen zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633-28 81 24.

Debagoiena. Lorategi lanak eta eraikuntza lanak egiteko nituzke debagoienan. Bi urtetako esperientzia igeltsero gisa. Mudantza lanak egiteko ere lagundu nezake. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661-94 19 13.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: zaintza lanetan zein atari, taberna eta abarrak garbitzen. 661-94 19 13.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txetean ere bai, laguntzaile gisa. 630-20 12 03.

Debagoiena. Eraikuntza, garbiketaren zein mekanika lanetarako gertu nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671-26 74 74.

Debagoiena. Debagoieneko herri guztietan sukaldari laguntzaile, zerbitzaria eta garbitzaile eskaintzen da. Informazio gehiagorako deitu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610-93 98 21.

Debagoiena. Emakumea gertu etxean laguntzen lan egiteko: garbiketarako, nagusiak zein atari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630-20 12 03.

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu, arratsalde, gauze edo astebukaeratan. Pertsona nagusiak zein atari eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630-99 11 85.

Debagoiena. Emakumea gertu etxean laguntzen lan egiteko: garbiketarako, nagusiak zein atari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686-40 42 03.

Debagoiena. Eritzaintza laguntzaile tituladuna neska etxean laguntzen jarduteko gertu. 686-40 42 03.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Deitu 695-73 87 95 edo 943-71 53 74 zenbakietara.

Debagoiena. Mutila gertu manikari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berriete lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691-79 53 34.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zein atari, etxe eta abarren garbiketaren. Esperientziaduna. 631-22 32 92.

Debagoiena. eska arduratsua orduka lan egiteko gertu, etxeetan, tabernetan. Bertan bizitzen ere bai. 648-46 90 51.

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: tabernako sukaldere, garbiketarako, zaintza eta abar. Hotelean lan egiten du. Autoa daukat. 636-11 23 40 / 648-10 26 53.

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: nagusi zein umeak zein atari, etxe eta abarren garbiketaren. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-30 65 28.

Berriz ere guztiak Apple-eri begira, aurkezpen berrirako

Gutxi jakinarazi badute ere, aspaldiko kuriositatea piztu du ekainaren 10ean egingo duten ebentoak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hurrengo aurkezpenarekin Apple-ek Steve Jobs hil zenetik lortu ez duen jakin-mina piztea lortu du. Berez, inork gutxi daki ezer baina esaten da garai bateko nobedade liluragarri horietako batekin etor daitezkeela. WWDC 2013 garatzaileentzako ekitaldian emango dute guztia jakitera.

Ondorioz, espekulazioa ez da makala. Aurkezpena bera ekainaren 10ean izango da eta soilik erakutsi dute ebentua iragartzen duen irudia, kolorez josia eta tipografia berri batekin; aplikazio baten ikonoaren itxuran. Irudian ez dute Apple-en ikonoa erabili eta hau bai behintzat, berria da. Hiru dira, esamesen eta adituen ustez, Apple-en egungo interes-guneak: erlojua, sistema eragile berria eta pantaila bikoitza.

iWatch eskumuturrekoa

Joera gaur egun osagarrietan dago eta aurki ikusiko dugu merkatuan erloju eta betaurreko



Apple Worldwide Developers Conference
June 10-14, San Francisco

Ebentua iragartzeko erabili duten irudia. | APPLEWEBLOG

Tweetdeck Android eta iOS-entzat, maiatzaren 7an desagertuko da

Twitterrek erosi eta gero, desagertu egingo da aplikazioak eramangarrietarako duen bertsioa. Horrekin batera Facebook-ekin duen integrazioa ere kendu egingo dute. Gainontzeko bertsioei dago-kienez, mahaigaineko bertsioetan lanean jarraitzen dutela iragarri dute Twitter-etik eta aurki hobetuko dute Chrome nabigatzailearentzako bereziki diseinatutako bertsioa, aukera gehiago gehituko baitizkiote bertsio horri datozen hilabeteetan.

Nokiak 79 euroko smartphone-a ipiniko du salgai aurki

Asha 210 modeloak 46 eguneko iraupena izan dezakeen bateria dauka. Facebook eta sare sozialetarako sarbide zuzena eskaintzeko du eta doan ekarriko du WhatsApp aplikazio ezaguna. Horrez gain, QWERTY teklatuarekin dator mugikor berria eta SIM txartel bi erabiltzeko aukera ere badu, gainera, mugikorra bera itzali barik alda daitezke txartelak. Asmoak betetzen badira, uda hasieran ipiniko dute salgai banatzaile nagusiek esandako prezioan.

Azaroan jarriko ei dute salgai Xbox berria eta Windows 8 sistema eragilearekin etorriko dela diote

J.B. | ARRASATE

Microsoft barruko iturriak aipatuz, What The Tech guneak atera du albistea. Jakin ahal izan dutenez, Xbox berria urte amaierarako jarriko dute salgai, zehazki azaroan, eta 499 dolarreko prezioan aterako dute merkatura, iturri horien arabera beti. Horren barruan Xbox Live Gold zerbitzurako harpidetza ere sartuko litzateke. Harpidetza barik 299 dolarreko prezioa izango luke kontsolak baina nahitaezkoa litzateke zerbitzuan bi urtez alta ematea, konfirmatu dutenez, Xbox

berriak Internetarako etengabeko konexioa behar duelako. Sistema operatzaileari dagokionez, Windows 8rekin etorriko da, What The Tech-en arabera, kontsola berria.

Maiatzaren aurkezpena

Maiatzaren 21ean aurkeztuko dute kontsola eta orduan argituko dira zalantza guztiak. Oraingoz, modeloaren izena bera ere ezezaguna da baina izen bitxia izan du garapeneko proiektuak, *Durango* izena ipini baitzioten garatzaileak lanean hasi zirenean.



2010eko Xbox-aren aurkezpeneko irudia. | WIRED

inteligenteen loraldi oparoa. Apple-k oraindik ez ditu bere asmoak argitu baina iWatch erlojuaren zurrumurruak indar handia hartu du patenteen erregistroekin eta ustezko garapenen filtrazioekin. Uste honen alde egiten dutenek diote iWatch horrek izan ditzakeen aluminiozko estalduraren kolore ezberdinak izan daitezkeela irudikoak.

Sistema eragilea

iOS 7 sistema eragilearen eguneraketa berria izango da ekitaldiko puntu garrantzitsuenetako bat. Hain zuzen, iragarkiko irudiak aplikazio baten ikonoaren itxura osoa dauka. Horren atzean interfaze osoaren diseinu erabat berritua egon daitezkeela diote espekulatuzaileek eta minimalismoaren alde egiten dela. Hori erakutsiko lukete tipografiak eta diseinuaren lineak: sinpletasunaren aldeko apustua.

Iragarkien diseinuaren irudikapen handienak islak ekarri ditu eta irudimen handiena dutenak pantaila bikoitz baten iragarpenarekin lotu dute. AirPlay eta iOS 7 lotzen dituzte honela eta aipatzen duten sistema eragilearen bertsio berria zentrala izango dela gailu ezberdinean artean pantaila partekatze aplikazio hori.


Jakin-mina handia dela garbi geratu da hedabideetan honezko zeresana piztu dutelako. Aurkezpenarako gonbidapenak, adibidez, bi ordutan agortu ziren egunean bertan.

Euskalerrria.org ataria itxi egingo dute maiatzean

J.B. | ARRASATE

Ataria eta posta zerbitzua bertan behera geratuko dira 12 urte eta gero. Informazio ataria, zerbitzuen gida eta posta elektronikoko zerbitzua eman ditu *Euskalerrria.org*-ek orain arte eta egubakoitzean jakinarazi zuten oraingo astean zerbitzuarekin amaituko dutela.

2001 urtean abiatu zuten egitasmoa helburu bakar batekin: sarean euskarazko eta doako kalitatezko zerbitzuak erabili ahal izateko aukera ematea. Honela, posta zerbitzuak hasiera baten arrakasta nahikoa izan zuen. Garaiak aldatu dira, ordea, eta atarian eskegi duten oharrean onartzen dutenez, ezin dute posta zerbitzu handiekin lehiatu, "ez zerbitzu eta ez gaitasunean", eta geroago eta zailtasun gehiago dituztela zerbitzua "modu duin baten mantentzeko". Maiatzaren 2an etengo dute zerbitzu osoa eta egun hauetan erabiltzaileek euren datu eta informazioa gordezko urratsak azaltzen dituen mezua jasoko dute argibide guztiekin.



Amazonen eduki digitalen iragarkia. | BLOOMSBURG

Telebista deskodetzailea aterako du Amazonek eduki digitalak banatzeko

J.B. | ARRASATE

Telebista sistema tradizionalen bete betean sartuko da Amazon Set-Top Box deskodetzaile berriarekin. Telebista kate tradizionalak jasotzeaz gain, gailu horrek Interneteko edukiak ere banatuko lituzke Apple TV-aren antzera, eta erabiltzailearen eduki digitalak ere kudeatuko ditu, modu integrarean.

Sistemak, baina, mugak ditu. Internetera konektatuko da baina soilik Amazonek banatzen dituen edukietara izango du sarbidea, bideo zerbitzarietara. Amazon-etik, oraingoz, ez dute halako zerbitzu baten iragarpenik egin baina horren berri eman du Bloomberg-ek eta konpainiatik

ez du gezurtatu. Amazon-ek, hala ere, beste gailu batzuri dagoeneko ematen die zerbitzua. Horietatik ezagunen Roku da. Orain, ordea, Amazon-ekoek telebistarako gailu propio baten alde egin dutela ematen du eta ikusteko dago euren zerbitzarietan bestelako gailuentzat mugarik ipiniko duten ala ez.

Apple TV bezala

Finean, Apple TV-k duen funtzionamendu berdina izango du Amazonen gailuak Internetarako konexioa eta edukiak zerbitzatzeko bidea ematen baitu, betiere, edukiak Amazonenak badira. Bestelako banatzaileen edukirik ez lukete baimenduko.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGAMirarizko buru
'sinesgaitzak'

Geroz eta gutxiago ulertzen dut telebis-tako entretenimendu modelo.

20 urte atzera egin izan bagenu bezala, bapatean, Antena 3k *Sinesgaitzak (Increibles)* saioa jarri du martxan. Bere garaian Ramontxu Garcia kuttunak Ana Obregon (adjektiborik?) alboan zuela aurkezturiko *¿Qué apostamos?* mitiko horren antzera, hiritar anonimoak ageri dira trebetasun arraro (eta frikiren) batekin, gehienetan, kalkulo eta oroimenarekin zerikusia dutenak, publiko asko eta zaratsua dagoen plato erraldoi batean eta Carlos Sobaren gehiegizko oihi eta garra-si distorsionatuekin.

Hori gutxi balitz, epaimahai batek erabakitzen du zeintzuk diren abilezia eta gaitasun bitxi eta berezi horien artean sinesgaitzenak.

Nire uste apalean, benetan sinesgaitza dena epaimahia bera da: Santiago Segura bere 5. *Torrente*-a publizitatzeko edozer gauza egiteko gai dena, Chenoa, bere ibilbide musikala erabat amaitua duen artista sumindua eta Mario Vaquerizo... Azken honek... azken honek zer egin du bere bizitza osoan? Alaskarekin txortan egin? Hori ere zalan-tzan jartzen dut nik.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 29



Albistegiak

Asteburuko eta eguneko albistek eskainiko dizkizuegu albistegian, Monika Belastegiren eskutik. | 14:45

12:00 Magazinea
13:00 Gurean gaur
13:30 Zorion Agurrak
13:36 Onein
13:57 Ikusmira
14:15 Ekogune
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AZK2012
16:18 Pedalka
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:18 Eguraldia
17:21 Onein
17:47 Erreportajea
18:27 Ekogune
18:57 Ikusmira
19:14 Altxorraren bila
19:46 Zorion Agurrak
19:51 Berriak
20:11 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Harmailatik

MARTITZENA, 30



Lanbide heziketa

Magazinea saioko ekonomia tartean lanbide heziketaz hitz egingo dugu Kepa Altuberekin. | 20:15

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:50 Onein
16:21 AsteON
16:51 Zorion Agurrak
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:19 AZK2012
17:44 Altxorraren bila
18:16 Erreportajea
18:56 Harmailatik
19:41 Zorion Agurrak
19:46 Berriak
20:11 Eguraldia
21:00 Gurean gaur
21:30 AZK2012
22:00 Berriak
22:20 Eguraldia
22:25 Magazinea
23:10 Bizitegia
23:38 Berriak
23:58 Eguraldia

EGUAZTENA, 1



'Prozaka.eus'

Oihan Vega eta Kepa Errastiren *Prozaka.eus* ikuskizuna ikusi ahal izango duzue eguaztanean. | 15:26

10:00 Pedalka
10:30 Hitzlandia
10:57 Harmailatik
11:42 Erreportajea
12:22 Zorion Agurrak
12:29 Magazinea
12:59 Klaketa
13:36 Onein
14:06 Harmailatik
14:51 AZK2012
15:21 Zorion Agurrak
15:26 Prozaka.eus
16:36 Ikusmira
16:55 Handik eta hemendik
17:25 Bizitegia
17:55 Beranduegi.tv
18:25 Zorion Agurrak
18:28 Magazinea
18:58 AZK2012
19:28 Pedalka
19:58 AsteON
20:28 Ekogune
20:58 Prozaka.eus
22:08 Ikusmira
22:38 Harmailatik
23:23 Magazinea
23:58 AZK2012
00:26 Berriak
00:46 Eguraldia

EGUENA, 2



'Pedalka'

Julen Iriondok Alpeak bizikletaz zeharkatu zitueneko bidaiaren bigarren zatia eskainiko dizuegu. | 21:51

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Altxorraren bila
13:47 Ikusmira
14:17 Onein
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Ikusmira
15:27 AZK2012
15:57 Berriak
16:17 Eguraldia
16:20 Onein
16:51 Handik eta hemendik
17:21 Planik bai?
17:41 Hitzlandia
18:08 AZK2012
18:38 Onein
19:04 Zorion Agurrak
19:09 Beranduegi.tv
19:34 Planik bai?
19:54 Berriak
20:14 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:01 Gurean gaur
21:51 Pedalka
22:21 Planik bai?
22:41 Berriak
23:01 Eguraldia
23:04 Magazinea
23:49 Klaketa

EGUBAKOITZA, 3



'AsteOn'

Astean zehar gure bailaran gertatutako albisteen errepasoa egingo dugu, besteak beste. | 22:07

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:40 Onein
14:10 Pedalka
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 AZK2012
15:58 Ikusmira
16:28 Beranduegi.tv
16:58 Zorion Agurrak
17:03 Planik bai?
17:23 Berriak
17:43 Eguraldia
17:46 Planik bai?
18:06 Altxorraren bila
18:38 Zorion Agurrak
18:41 28.Klip
19:13 Beranduegi.tv
19:43 Zorion Agurrak
19:46 Berriak
20:10 Eguraldia
20:13 Planik bai?
20:35 Gurean gaur
21:05 Pedalka
21:35 AZK2012
22:07 AsteON
22:37 Berriak
22:57 Eguraldia
23:00 AsteON
23:30 Planik bai?
23:50 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Mondra Futbol
Taldearen 100.
urteurrena berbagai

Aurten 100 urte bete ditu Arrasateko Mondra Futbol Taldeak. Hori ospatzeko, hainbat ekintza egingo dituzte eta urteurren horren harira, Mondrako kideak izango ditugu Arrasate Irratiko 107.7ko uhinetan aste honetan. *Igo autobusera!* irratsaioan izango da hori.

'Gatibu' taldearen
CD-a zozketatuko
dugu, besteak beste

Aste honetan zozketa bakarra egingo dugu; egubakoitzeko zozketa egingo dugu. Bertan hainbat sariren artean, besteak beste, *Gatibu* taldearen CD-a zozketatuko dugu. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on!

Maiatzaren 1ean ez
dugu 'Igo autobusera!'
irratsaioa izango

Maiatzaren 1a, eguaztana, Langileen Nazioarteko Eguna denez, ez dugu *Igo autobusera!* irratsaioa izango. Beraz, aste honetan Arrasate Irratiko autobusak bost geldialdi egin beharrean, lau egingo ditu; astelehenean, martitzenean, eguenean eta egubakoitzean, saioak izango ditugulako.

TELE-ALBISTEAK

'Magazinea' gai
ugarirekin dator beste
aste batez

Maiatzaren 1ean, eguaztana, ez dugu saiorik izango Langileen Nazioarteko Eguna dela-eta



Txomin Madina aurkezlea. | A.T.

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Aste honetan ere izango da zertaz informatu eta zertaz gozatu iluntzetan izaten dugun *Magazinea* saioan. Txomin Madinaren gidaritzapean, gai ugari jorratuko ditugu beste behin saioan.

Hala ere, maiatzaren 1a, eguaztana, Langileen Nazioarteko Eguna dela kontuan hartuta, egun horretan ez dugu *Magazinea* saiorik izango. Astelehen, martitzen, eguen eta egubakoitzean, baina, Goiena telebistako *Magazinea* saioak jarraitu ahal izango dituzue.

Saioak

Astelehenean, Elgetan asteburuan egin den gerrako errekreazioa nolakoa izan zen ikusi ahal izango duzue eta protagonisten hitzak ere entzun ahal izango dituzue. Egunerokotasuneko gaien gaineko tertulia ere izango dugu Aitor Guridi eta Karlos Etxaniz solaskideekin.

Martitzenean, berriz, Langileen Nazioarteko Eguna izango dugu berbagai sindikatuetako ordezkariekin, besteak beste.

Debagoieneko
txirrindularitzaren egoera
aztergai, 'Harmailatik'-en

Ziklismo eskolako ordezkari, entrenatzaile eta ziklista profesionalekin hitz egingo dugu saioan

A.T. | ARRASATE

Bergaran Bizikleta Jardunaldiak ari dira ospatzen eta aitzakia hori hartuta, *Harmailatik* saio berezia egingo dugu gaur, astelehena, 22:00etan. Bailaran txirrindularitzaren egoera zein den aztertuko dugu ziklismo eskolako ordezkari, entrenatzaile eta ziklista profesionalekin.

Bestelako kirolak

Futboleant, Mondrak Derioren aurka jokatutako partidua izango dugu hizpide. Saskibaloian, berriz, Natrak Pas Pielagos taldearen kontra jokatutakoa.



Txirrindularia. | GOIENA

ZORION AGURRAK



BERGARA
Intza Goiti Zubia
Maiatzaren 3an, 3 urte.
Zorionak eta muxu handia Egoitzen, amatxoren eta aitatxoren partetik!



BERGARA
Ane Lazkano Palacios
Maiatzaren 3an, 5 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo pasa, maripasa,
gurekin eta zure laguntxuekin. Bost muxu goxo-goxuak bialtzen dizkizute familiak eta bereziki OSI taldekuek.



ARETXABALETA
Xabat Larrinaga Elkoro
Maiatzaren 3an, 3 urte.
Zorionak, pirata! Jadanik hiru urte. Ondo pasatu zure eguna etxekoan partetik.




BERGARA
Endika Ibaibarriaga Bengoa
Maiatzaren 2an, 9 urte.
Zorionak, maittia. Muxu potolo mordoa etxekoan partetik.



BERGARA
Aiur Lezeta Iturralde
Maiatzaren 2an, urtebete. Zorionak, Aiurtxo! Mila besarkada hainbeste maite zaituen familiaren partetik. Maren, Noa, amatxo eta aitatxo. Segi horren polita izaten, bihotz!




ARAMAIO
Oier Errasti Mera
Maiatzaren 2an, 2 urte.
Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Oier Iturbe Garmendia
Maiatzaren 2an, 4 urte.
Aupa portero! Zorionak etxekoan partetik eta muxu potolo bat.



ARRASATE
Naira Nuñez Apiañiz
Maiatzaren 1ean, urtebete. Familiaren partetik, zorionak!



ARRASATE
Haitz Belategi
Maiatzaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, mutikote!
Primeran pasatu zure egunien. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Ion Arabaolaza
Maiatzaren 1ean, 25 urte. Zorionak etxeko denon partetik eta ondo pasatu zure urtebetetzean.



BERGARA
Aratz Arenaza Irizar
Apirilaren 30ean, 8 urte.
Zorionak, bihotza. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Zortzi patxo goxo danon partetik.



BERGARA
Unax Maeztu Elkoroberezibar
Apirilaren 30ean, 4 urte.
Muxu handi bat Irati, Aratz eta Anderren partetik. Ondo pasatu zure egunean familia guztiarekin. Aupa Osasuna!



ARRASATE
June Dominguez Garai
Apirilaren 30ean, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo pasatu zure egunean. Patxo potolo bat etxekoan partetik.



ARRASATE
Ane Herrero
Apirilaren 30ean, 22 urte. Zorionak! Ederto pasatu eguna, kilometrotara egon arren nerekin zauzelako egunero!




ANGIOZAR
Nahia Loidi Garrido
Apirilaren 30ean, 9 urte. Zorionak eta muxutxo asko etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Pablo Berezibar Arevalo
Apirilaren 29an, 11 urte.
Zorionak, artista! Muxu handi bat familiako guztien partetik. Ea merendola goxo bat prestatzen duzun.



ARAMAIO
Uxue eta Aitor Arana
Uxue 7 urte beteko ditu astelehenean eta aitatxo Aitor ostegunean zorionduko dogu. Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo pasatu!



ARETXABALETA
Markel Pando Egorza
Apirilaren 29an, 9 urte.
Zorionak, arrantzale, senide guztien partetik!



ARETXABALETA
Inder Arando Iturbe
Apirilaren 29an, 3 urte.
Zorionak, Inder! Hiru tirakada eta besarkada bat etxeko danon partetik.




OÑATI
Maialen Romaratezabala
Apirilaren 29an, 28 urte.
Neska jatorra eta kuttuna, zorionak denon partetik eta ez ahaztu zure zorrarekin!



BERGARA
Hur Bilbao Alvarez
Apirilaren 28an urtebete. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat eta zorionak beti... Etxeko danon partetik.




OÑATI
Ioritz Zabaleta Kortazar
Apirilaren 27an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo-ondo pasatu zure zorion eguna. Muxu potolo bat etxeko danon partetik! Mua, mua, mua!



ANTZUOLA
Iban Mendia Valor
Apirilaren 27an, 3 urte.
Zorionak, txapeldun!
Denok batera oso ondo ospatuko dugu zure eguna! Besarkada handi bat familia guztiaren partetik eta muxu handi bat zure arreba Aitanak.



OÑATI
Nahia Amundarain Agirre
Apirilaren 27an, 6 urte.
Zorionak, printzesa!
Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Nekane Ziardegi Martxueta
Apirilaren 27an, 6 urte.
Zorionak, Txinperta!
Muxu eta besarkada pila familia danaren partetik.




OÑATI
Gaizka eta Itsasne Lizarralde
Apirilaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, bikote, etxekoan partetik eta urte askotarako.



BERGARA
Amalur Egidazu Arrillaga
Apirilaren 25ean, 3 urte.
Zorionak, printzesa!
Txokolatzeko patxo handixak zuretzako etxeko danon, eta bereziki, aitatxoren eta amatxoren partetik!



BERGARA
Jone eta Irati Eguren Balzategi
Jonek apirilaren 26an, 18 urte beteko ditu eta Iratik maiatzaren 4an, 16 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Elaia Gonzalez Ibarrondo
Apirilaren 26an, 7 urte.
Zorionak, polit hori!
Aitatxok eta amatxok asko maite zaitugu eta zutaz oso harro gaude. Marrubizko muxu handi-handi bat, maitia.



ARRASATE
Irati Lekue Zeziaga
Apirilaren 26an, 23 urte.
Zorionak, *guapetona!* 23 urte bete dituzu eta ganoraz ospatukou. Jarraitxu beti bezain irribarretsu! Patxo handi bat.



ARRASATE
Itziar Moreno Gomez
Apirilaren 25ean, 17 urte. Zorionak eta patxo handia familiaren partetik, bereziki Aimarrek eta Oierrek.



OÑATI
Xabi Jausoro
Apirilaren 25ean, 3 urte.
Zorionak, Xabi!
Ondo-ondo pasatu zure egunian eta muxu handi-handi bat!



ARETXABALETA
Aimar Akizu eta Begoña Uribetxeberria
Aimarrek apirilaren 25ean, urte bat eta amama Begoñak apirilaren 27an, 65 urte. Zorionak bioi etxeko danon partetik eta segi horrela, gure bizipozak izaten!



DEBAGOIENA
Maixel Iparragirre Guenetxea
Apirilaren 25ean, 52 urte.
Etengabe Euskal Herria bihotzean eramaten duen borrokalariari. Azkena izan dadila espetxean beteko dezuna. Eutsi goiari. Maite zaitugu.



ARAMAIO
Bittor Arana
Apirilaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, aitiba! Muxu handi bat zure lau sorgintxoan partetik: Amaiur, Goiatz, Uxue, Ihintza eta etxekoan partetik noski!



ARETXABALETA
Nahia Eraña
Apirilaren 25ean, 12 urte. Zorionak familiako guztien partetik. Maite zaitugu!




ARETXABALETA
Helene Galindez Bragado
Apirilaren 24an, urtebete. Zorionak, politto! Aitita, amama, osaba eta izebaren partetik muxu handi bat!



BERGARA
Josu Urkiola Aguayo
Apirilaren 24an, 6 urte.
Zorionak, Josu! Ondo ospatu zure eguna eta muxu handi bat etxekoan partetik.



OÑATI
Ainhoa Zabaleta Igartua
Apirilaren 23an, 34 urte.
Zorionak, tio! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta ia pastel gozu gertaketan dozun, eh! Muxu pila bat loritzek eta Garazik.



ARETXABALETA
Aimar Azpitarte Zubizarreta
Apirilaren 23an, 5 urte.
Zorionak, pirata! Ederto pasatuko dugu zure eguna txokolate beroarekin. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik eta Anerrek pa!



OÑATI
Ander Murillo Astigarraga
Apirilaren 22an, 12 urte.
Zorionak, *guapiximo!*
Ondo-ondo pasatu zure 12. urtebetetze eguna! Muxu eta besarkada handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Irantzu Casanellas
Apirilaren 22an, 19 urte.
Zorionak, *guapisima!*
Muxu erraldoi bat kuadrilaren partetik Bartzelona aldera! Jaixetan zelebraukou danok batera!



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ESKER ONA



Maitere Markuleta Lete




2013ko apirilaren 25ean hil zen, 65 urte zituela


Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko apirilaren 29an

OROIGARRIA



Mikel Perea Uribe-Echevarria



Arrasaten hil zen 2013ko apirilaren 25ean, 31 urte zituela.

Isilean joan zara baina zure epeltasuna eta umorea gurekin geratzen dira.

Zure betiko lagunak
Arrasaten, 2013ko apirilaren 29an.

JAIOTAKOAK



Martin Esparza Castaños

Oñati. 4,100 Kilo. Apirilaren 19a. Gurasoak: Amaia eta Igor. Argazkian, Martin arreba Ingerekin.



Nathalia Garcia Ibañez

Oñati. 2,400 Kilo. Apirilaren 21a. Gurasoak: Amalfy eta Urial. Argazkian, Nathalia sehaskan lo.



Oier Irizar Bidezabal

Oñati. 4 Kilo. Apirilaren 15a. Gurasoak: Mikel eta Maite. Argazkian, Oier bapo lo.



Peru Ansa Okarantza

Aretxabaleta. 3,030 Kilo. Apirilaren 24a. Gurasoak: Leire eta Joseba. Argazkian, Peru amarekin..



Elene Alkorta Delgado

Arrasate. 2,900 Kilo. Apirilaren 22a. Gurasoak: Manoli eta Mikel. Argazkian, Elene gurasoekin.



Ekain Leibar Zumalde

Oñati. 4,030 Kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Edurne eta Jon. Argazkian, Ekain amamaren besoetan.



Igor Larrañaga Mandaluniz

Elgeta. 3,440 Kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Maite eta Jabier. Argazkian, Igor jaioberria sehaskan.



Maddi Urionabarrenetxea Poncel

Arrasate. 3,620 Kilo. Apirilaren 25a. Gurasoak: Adeli eta Iñaki. Argazkian, Maddi jaioberria sehaskan.



Maddy Fabian Nevado

Aretxabaleta. 3,210 Kilo. Apirilaren 21a. Gurasoak: Laura eta Asier. Argazkian, Maddy gurasoekin.



Paula Biain Graña

Oñati. 3,890 Kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Laura eta Iñigo. Argazkian, Paula amaren besoetan.



Unai Torres Valdes

Arrasate. 3,060 Kilo. Apirilaren 24a. Gurasoak: Ainara eta Oscar. Argazkian, Unai amarekin.



Aiora Unamuno Lete

Bergara. 3,800 Kilo. Apirilaren 23a. Gurasoak: Gurutze eta Xabier. Argazkian, Aiora amarekin.

Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



AI, ENE!

Uso mezularien itzulera

E-posta, WhatsApp eta Twiterra jaun eta jabe diren garaiotan irudi honek ez al du nostalgia sentipen nabarmena eragiten? www.nopuedocreer.com




AHOBERO

"[Andaluzian] Umeek, dekretuz, hiru jatordu egunean. Zergatik ez bizikleta bat?"

ERNESTO SAEZ DE BURUAGA | KAZETARIA

Bazterketa sozialaren kontra Andaluzian onartuko duten lege dekretuan umeek egunean hiru jatordu egitea da neurri bat. Horri buruzko txio honek zentzu ironikoa duela azaldu du kazetariak. Ironia eta sentsibilitate ezaren arteko lerroa hain da fina batzuetan... www.twitter.com

EGURALDIA



Max. 11°

Min. 5°

Zerua oso hodeitsu egongo da eta euria egingo du, sarriago eta ugariago. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-04-29

HAMARREKOA

Sara Gandara Eguenean estreinatu zuten 'Ya queda menos' saioko aurkezlea egubakoitz goizean harrapatu genuen. Lezaman jaioa, kirol eta eguraldi kontuetan ere badu eskarmentua. | TXOMIN MADINA

"Terolen proposamenari pentsatu gabe esan nion baietz"

1. Lehen saioa hasteko minutu gutxi geratzen zirela, zela zegoen urduritasun maila?

Urduritasun eguna izan zen. Askorik ez genuen pentsatu: segituan atera eta egin genuen; lehen eguna izateko oso ondo moldatu ginen lantaldearekin. Ondo joan zen; audientzien zain gaude orain...

2. Ya queda menos-i buruz ez dut ezer entzun. Zer da jakin beharreko garrantzitsuena?

Gaurkotasuna duten gaiak umore puntuarekin jorratzen ditugula eta barre batzuk egiten ditugula.

3. Nola hartu zenuen bertan egoteko proposamena?

Informatiboetako zuzentasunera ohituta, Oscar Terolen deia sorpresaz hartu nuen eta proposamenari pentsatu gabe esan nion baietz. Guztiz ezberdina den komunikazio adar baten sartzen ari naiz, eta oso ondo nago bertan.

4. Eta zer moduz moldatzen zara hainbeste umoristaren artean?

Hasieran oso arraro sentitu nintzen; izan ere nik etxean ikusi izan ditut, *Vaya Semanita*- eta. Umorista aski ezagunak dira, niretzat, goi mailako langileak. Eurekin egotea sorpresa hutsa izan da eta gustura egon naiz.

5. Zuri zer eragiten dizkizu barre algarak?

Barre egiten malko errazekoa naiz. Gauza askok ematen didate barregura, bereziki politika kontuak umorearekin lantzeak.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Mundua erabat aldatuko nuke"

"Mundua erabat aldatuko nuke: maltzurak kartzelara sartu, krisialdiarekin bukatu... Duela hamabost urteko garaia itzuli ez, baina mundu hobe bat sortuko nuke. Uste dut lehen hobeto bizi ginela".

6. Euren berri ematen hasi aurretik; zenbat zenekien isobarez?

Gutxi. Sei egunetan pasa nintzen kiroletatik eguraldira: egun horietan ikastaro arin bat egin nuen. Telebista ikusita edo Internetekin, ezagutza handituz joan da.

7. Eta eguraldia dela eta, kalean errieta asko egiten dizute?

Herrian bai esaten didate bat ere ez dugula asmatzen eta horrelakoak. Arropei buruz esaten dizkirate gauza gehiago: daramatzadan *piti-lloak*, takoiak... Herrian bestelako itxura batekin ibiltzen naiz.

8. Garai baten kazetaritazatik aparte ibili zinen.

Oporraldian eta bakarrak deitzen zidatenez, nazkatu eta beste lan batzuk egin nituen: zerbitzari, idazkari... Gero *Deia*-n kolaboratzen hasi eta berriz sartu nintzen mundu honetan. Kazetaritazatik at bada mundua ikusi nuen, baina kazetaritza gustatzen zaidala gehien.

9. Twitterren nahiko aktibo ikusten zaitugu.

Bereziki azkenaldian. Nire ideiak inongo presio barik azaltzeko aukera ematen dit: egun txarra dudala, autobidean ez duela inork eskuineko erraila erabiltzen...

10. Lezamarra. Badu zentzurik zein taldetakoaren zaren galdetzek?

Bai; ez naiz Athleticetako. Esateak lotsa eman arren, Bebetorekin eta Coruñaiko Deportivoz maitemindu nintzen. Ez naiz zale amorratua, baina gustatzen zait.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Merkel eta Raxoi

Mundu osoak daki Merkel andreak eta Raxoi jaunak kide-tasun asko dutela elkarren artean, hala nola kontserbadorismoa, jendearen arazoez ez ikusiarena egiteko trebetasuna edota neoliberalismoa itsuena.

Kanpai-hots neoliberalari erantzuten diote eta interesa enpresentzat baino ez daukate, han ari diren langileez paso eginez, nahiz eta enpresen etekinak saltzeko kontsumitzaileak behar izan. Errukiñak dira, errukiñak direnez, ezinbestean kontsumitzaile ere badiren langileak!

Eta negozio horretan eskuz esku ageri dira Angela eta Mariano. Baina bata nolako, halako da bestea ere, beti? Neoliberalismoak, beste eze-ri erreparatu gabe, irabaztea, irabazpideak egitea eta irabazietan irabazle izatea du ikur.

Ondorioz, Merkelek bere planteamendu filoeuropar eta proeuropar ei diren guzti-guztiak udazkenean Alemaniaren izango diren hauteskunde federalak irabazteko dihardu txirikordatzen, eta Raxoiren kezka elektoralak txakurraren salara bialtzen ditu aire ederrean, Merkeli inporta ere horixe inporta zaiolako Raxoiren etorkizun politikoa: txakurraren putza adina!

R.P.S. Nº 149/10 L.L.G.

umeen
2 betaurreko
erreflexuen aurkako
kristalak barne

87€

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan